

Pedro Migel Urruzuno

# Koroi eder bat

Bertso-bilduma





Pedro Migel Urruzuno Salegi Elgoibarren jaio zan 1844-an, eta Mendaron il, 1923-an. Emen egin zituan bere urterik geienak, bertako moja itxien kapellau. Apaiz-lanak egiteaz gain, euskalzale sutsua izan zan. Bere idazlanak garai artako aldizkarietan agertzen ziran: *Euskal-Erria*, *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Baserritarra*, *Argia*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Aranzazu*...

Bera il ondoren, idazki oiek –batzuk, ez danak– liburuetan bildu eta argitara eman dira: *Urruzuno ñar P. M. 'en ipuiak*, 1930; *Euskalerritik zerura* (1961), *Iru ziri* (1965), *Ur-zale baten ipuiak* (1965); *Sasiletrau baten ziria* (1973), danak ere prosazko lanez geienbat ornituak.

Gaurkoan Urruzunoren beste liburu bat eskeintzen degu: *Koroi eder bat*, bertsoetan geienbat. Beraren bertso-bilduma, alegia, oso-oso ia izango ez dana, baiña bai aal izan degun osoena.

# **Koroi eder bat**

**Bertso-bilduma**

**(Bilketa eta argitalpena:  
Antonio Zavala)**

---

Auspoa Liburutegia

291

URRUZUNO SALEGUI, Pedro Miguel

Koroi eder bat : bertso bilduma / Pedro Migel Urruzuno ; bilketa eta argitalpena, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2005.

304 or. : argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 291)

Aurkibidea

LG SS 89-2005. – ISBN 84-7907-468-X

I. Zavala, Antonio. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"19"

© Pedro Migel Urruzuno Salegi

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-468-X

Legezko Gordailua: S.S. 89/05

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Pedro Migel Urruzuno**

**Koroi eder bat**

**Bertso-bilduma**

**Bilketa eta argitalpena:**

**Antonio Zavala**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2005



*Pedro Miguel de Arraras*

**Egillearen berri**

## **Pedro Migel Urruzuno Salegi (1844-1923)**

---

### **Bizitzaren argibideak**

Pedro Migel Urruzuno Salegi Elgoibarren jaio zan, 1844-ko Apirillaren 29-an, Arrabal kalean, 110-garren zenbakian.

Gurasoak, Juan Bautista, errementaria, eta Manuela izan zituan, biak elgoibartarrak. Aitaren aldeko aiton-amonak, Migel Urruzuno eta Lorentza Kruzelegi, elgoibartarrak; amaren aldekoak, Frantzisko Salegi, Astigarribiakoak, eta Josefa Antonia Mugertza, Elgoibarkoak.

Berak bertso batean esaten duanez, ama umetan galdu zuan:

Iru urtekin nintzan gelditu  
amarik gabe lurrian;  
izeba bati ikasi nion  
nik nere jaioterrian  
beste Ama bat baneukala, bai,  
an zeru-goien erdian

Galtze orrek utsune mingarria utzi zion biotzean, berak beste bertso batean aitortzen duanez:

Sarri askotan jarri oi nintzan  
zeru ortara begira,  
eta negarrak igotzen nziran  
biotzetikan begira.

Itxura danez, denboraldiren bat Lesakan egin zuan gaztetan Urruzunok. Beraren ipui batzuk Naparroako erri ortan gertatzen dira beintzat. Elgoibarko Toribio Iriondo apaiz jaunak ere onela dio ari eskeiñitako bertso batzuetan: «Elgoibar ta Lesakan ezagun ziñana».

Meza 1870-an eman zuan, eta zein egunetan berak beste bertso batean adierazten du:



Errosario Santuko jai  
zait oso oroigarria,  
egun orretan naizelako ni  
emana meza berria.

Eta festa ori Urriaren 7-an ospatzen da.

Ondoren, Elgoibarko eritegi edo ospitalean, Elgoibarko parro-  
kian eta Mendaro-Garagartzako moja itxien komentuan egin  
zitian bere apaiz-lanak.

Elgoibarko eritegian zala, kaslisten bigarren gerratea (1872-  
1876) gertatu zan. Batean, 1873-ko Kandelaria-bezperan, karlis-  
ten Antonio Lizarraga jenerala gaixotegi ortara ekarri zuten, pul-  
moniaz zegoan eta.

Bai liberalak susmoa artu eta bertan sartu eta etxe guzia goitik  
beeraiño aztertu ere. Baiña, gezurra badiruri ere, etzuten  
nai zuten txoririk eskuratu. Bitartean, Urruzuno larri. Gertaera  
ori berak kontatu zuan andik urteetara, *Argia* astekarian, 1923-  
II-4-an.

Berrogei ta iru urte egin zitian Mendaron, bertako agustiñeta-  
ko kapellau.

Eta bertan il zan, 1923-ko apirillaren 14-an.

## Mendaro

Gustoko txokoa zuan Mendaro. Ura bezelakorik ez omen  
zan arentzat mundu guzian. Esan bezela, berrogei ta iru urte  
egin zitian bertan, bertako moja itxien kapellau. Aiei meza  
eman, platikak edo itzaldiak egin, aitortu eta abar izango ziran  
beraren lanak.

Baiña erriko jendeak ere entzuten zitian aren mezak, eta  
aldarean oso astiro mugitzen zana omen zan. Orregatik, *Don  
Pedro Migel* esan bearrean, *Don Geldo Migel* esaten omen  
zioten.

Baiña biotz barruko debozioarengatik ere izan zitekean patxa-  
ra ori. Ura debozio aundiko gizona zala jakiteko, naikoa da libu-

ru ontan bildu ditugun bertsoak irakurtzea. Arekin arremanen batzuk izan zituana zan Aita Migel Maria Zubiaga, orain urte batzuk illa. Eta onek, Urruzuno zana aitatu bakoitzean, onela esan oi zuan:

–Ura *xantu* bat zan.

Aren sermoiak, berriz, ez omen ziran eliza dar-dar jartzen duten oietakoak, gure Don Pedro Migel izuti eta lotsati samarra omen zan eta.

Garai artan aumobillik etzanez, errietako kale eta plazak uts-utsik egoten ziran, eta jolas-leku ederra bertan izan oi zuten umeak. Auek, ordea, asarretu egiten ziran noizean bein alkarrekin. Alakoetan, Mendarokoak bein baiño geiagotan joaten omen ziran Don Pedro Migelengana, eta au aien artean pakea egiten jarduten omen zan.

Abendu aldean maiz etortzen omen zitzaizkion mutikoak. Zertarako? Gabonetan aterik ate eskean ibiltzeko kantaren batzuk nai zituztela eta ea mesede ori egingo ote zien. Baietz, noski; eta idatzi eta eman.

Liburu ontan Gabon-kantarik ere bada. Eta sail bat baiño geiago, gaiñera. Oietako batzuk, beraz, aldizkariren batean agertuak ez-ezik, Mendaroko umeak kalerik kale kantatuak ere izango ziran.

Leen aitaturako Migel Mari Zubiagari beste argibide bat ere zor diot. Berak Txomin Agirre apaiza ere ezagutu omen zuan: *Garoa* eta *Kresala* nobelen egillea, dakigunez. Ala, Zubiagak onela esan omen zion bein batez:

–Zuk dakizu euskeraz, zuk,

Eta Txomin Agirrek onela erantzun omen zion:

–Nik ez; euskera ondo dakiana, Pedro Migel Urruzuno dezu.

Erantzun ontan bi gauza ikus ditezkelara uste det: batetik, Txomin Agirrereren apaltasuna, goralpen bat entzun eta beste beste bati pasatzen ziolako; eta, bestetik, bene-benetan mires-ten zuala Urruzunoren euskera bizi, aberats, errikoi, garbi eta naturala.

## Eriotza

Pedro Migel jauna Mendaron il zan, 1923-ko apirilaren 14-an, irurogei ta emeretzi urterekin.

Eriotz orren berri onela eman zuan Argia astekariak, 1923-IV-22-an:

«Egin zaizkan illeta eta obiraltze aundien berri, Mendaro'ko berrilariak eman digu. Ona emen:

“Joan dan zapatu goizeko amaiketari il zan 79 urtekin emengo mojetako kapellau berrogeita iru urtean izan dan apaiz on eta langille aundia, Pedro Migel Urruzuno jauna.

Igandean izan ziran bere animaren alde elizkizunak, erri guztia eta erbestetar asko bertan bildurik, baita apaiz jaun asko ere. Esan geinke sekulan ere ez dala erri onetan ikusiko elizkizun baten ainbeste jende, bada parrokiako eliz aundia jendez bete-beterik arkitzen zan.

Naigabe aundia utzi du erri onetan iltze onek, bada apaiz jaun au ongille aundi bat zan erritarrentzat, eta bere poltsikuak beti zabalik arkitzen ziran pobrientzat.

Elizkizunak amaitu ta gero, bere gorputza eguadiko trenean Elgoibar'era eraman zuten, bere gorputz santuari erri artan sepultura emanik; bertako semea baitzan.

Moja Agustindarra, bere arreba Seberina'ri, illoba eta gañerako senide guziaz laguntzen diegu beren atsekabe aundian. Eta *Argia*'ren irakurleai Jaunari otoï dagiela Pedro Migel jaunaren anima-aldez.

Bukatzeko, Urruzuno'gandik artu degun azkenengo idazkia jartzan degu. Olerki au, ill onen 9'an argitaratu genuen ipuiakin batean bialdua da; beraz argitaratu gabea».

## ***Argia* astekariak berak, beste toki batean:**

«Urruzuno jauna, apaiz onbidetsua, euskal idazle bikain ta sutua ta gizon langillea izan da.

Euskalerrian agertu diran euskerazko aldizkingi edo errebista ta periodiku guzietan idatzi izan du. *Argia*-k iragarri bezin laister gugarra zuzendu zan eta bere idaztiak, ordezkariak ta alegin guziak eskeñi zizkigun; bai bere eskeintzak ongi bete ere. *Argia*-ren irakurle guziok

amaika aldiz poz-pozik irakurri dituzute bere ipui polit, parragarri ta onurakorrak. Mendaroko ordezkari-tza berak bezin zintzo ta arduratsu betetzen ez da errez izango.

Urruzuno jaunaren *Argia*-ganako zaletasun sutsuari eskerrak, gure asteroko au Mendaron iñon baño geiago irakurtzen da, saillez-saill (*proporción*). Erri bakoitzean Urruzuno jauna bezelako euskaltzale zintzo ta adoretzu bat izan ezker, gure euskera aisa indartu, zabaldu ta goratuko litzake».

## ***Jesusen Biotzaren Deia* aldizkariak:**

«Gure Pedro Mikel jaun agurgarri ta on-ona ill zaigu. Jainkoak ala nai, ta bizitza onen bete-bearrak ondo bete ondoren joan zaigu, danok uste degun bezela, ludi zirtzil onetik amairik ez daukan aberri gozoaruntz.

Elgoibartarra zan bera, ta bere jaioterriaren maitatzalle bikaña. Ia larogei urte bete zituan, berrogei ta amar baño geiago apaiztasunean, gogo-lanketan, alde guzi ta bazterretan onbidea erakusten ekin zituan. A ze sari ederra artu dun dagoneko! A zein gogozki laztandu dun bere Jainkoak alako apaiz agurgarri ta ongille au! Elgoibarko elizburu edo parrokoa izan zan aspaldian, baño zartu zanean, Mendaroko moja-txuen ardura zeukala bizi zan.

Azkeneko ikusi nuanean, gogoan daukat oso. Mendaron bultzian sartu zan ta Elgoibarren jetxi zan. Oraindik gogorra zegon, ta osasuntsua zirudin, ta izan ere ala zan. Bere izkuntza gozoa orduan azkenez aditu nion. Baita ere gogoratzen zaizkit –nola aztu?– arek bialtzen zizkigun illero, bein ere utzi gabe, ipuin politak gure *Deia*-n argitaratzeko; paper txiki bat, bere izkiera argi ta txikia, *Urruzuno*-k izenpetua, ezer geiago geitu gabe, bere lanari ezer zor ez bagenion bezelaxe...

Azkeneko Aste Donean asko nekatu omen zan; ta, beraz, nekaldi gogortxuak eriotza erakarri zion. Illaketak eta otoiketak egin dira bai Mendaron ta bai Elgoibarren, alde guzietan ospe aundikin.

Pedro Migel jauna ona zan, apaiz onenatarikoa, euskaldun bikaña, eta euskal idazle argi oso ta mamitsua....».

## Urruzunoren liburuak

Gero ere esango degunez, Urruzunok eliz-liburu batzuk euskeratu zituan 1885 eta 1915-ean, eta oiek ikusi zituan. noski. Baiñan gaiñontzeko bere liburuak etzitian ikusi: danak ere bera il ondoren osatu eta argitara emanak dira.

Lenengo argitaratu zana: *Urruzuno'tar P. M. 'en ipuiak* derizana, Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan, Iruña, 1930.

Beste guziak *Auspoa* liburutegiak atera ditu: *Euskalerritik zerura* (1961), *Iru ziri* (1965), *Ur-zale baten ipuiak* (1965); *Sasiletrau baten ziria* (1973).

Liburu oiek danak aren ipuiekin osatuak dira. Baiña orrek, au ere ondoren zeatzago adieraziko degunez, ez digu Urruzuno osoa azaltzen, aren alderdi bat baizik. Beste alderdirik ere badu; ipui-egille ez-egik, bertso-jartzaille jatorra eta ugaria ere izan baitzan.

Gaurko liburua Urruzunoren bigarren alderdi ori erakustera dator, aren bertso-saillak andik ete emendik bilduta: *Euskal-Erria, Euskalzale, Baserritarra, Euskal-Esnalea, Argia, Jesusen Biotzaren Deya, Aranzazu...*

Ipuien barruan ere baditu arek noiz-beinka bertso bat edo beste. Oiek, prosa tartean baitijoaz, ez ditugu onera aldatu.

Ipui banaka batzuk baditu, ala ere, bertso-sail luzetxo bat sartzen duana. Oiek bai; oiek onera aldatu ditugu, bertso-sorta ori eskeintzearren. Denbora berean, gaiñera, Urruzunoren prosaz gozatzeko aukera emango diogu irakurleari.

## Toribio Iriondoren bertsoak

Urrengo bertso aukeratuak liburu ontan agertu ziran: *Urruzuno'tar P. M. 'en ipuiak*, Lenengo idaztia, Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. Iruña'n, 1930.

Bertsoak nork jarriak diran ez da esaten; baiña, gure iritzirako, Elgoibarko Toribio Iriondo apaiza jaunarenak dira; Pedro Migel Urruzunoren errikidea, beraz, eta lagun miña ere bai, ziur aski.

Noiz eta zer zala-ta moldatu ziran, bai, esaten da: 1920-garren urtean, Urruzuno leenengo meza eman zuaneko urrezko eztaiak ziran, berrogei ta amar urte, alegia, eta ori ospatzearren.

Aren bizitzaren pausoak ere adierazten dira bertso auetan: Elgoibar eta Lesakan aurrena; meza eman eta Elgoibarko eritegira kapellau; gero bertako Parrokira; andik Mendaroko moja-komentura; urrengo, aren idazlanak zein izan diran: «liburu txit ederrak», banaka batzuk euskeratu baitzituan; olerkiak, bertsoak alegia, bai umorezkoak eta bai Jesus eta Ama Birjiñari eskeiñiak; eta, azkenik, ipui politikak, amaika parre gozo eragindakoak.

Bertsoak eun urteko bizitza opa dio; baiña andik iru urtera il zan, irurogei ta emeretzi urte betetzeko egun batzuk falta zituala.

Gure ustez Toribio Iriundo jaunarenak diran bertso oiek merezi dute onera aldatzea:

*Bere jauparitzako urrezko eztaietan  
Don Pedro Migel Urruzuno jaunari*

Garagartza-Mendaro  
Kilimon ertzean,  
biotzez maite degun  
txoko txukunean,  
Urrilleko bigarren  
gaur dan egunean,  
milla bederatzi eun  
ogeigarrenean.

Ume-umetatikan  
zure biotz dana  
Jainkoari zendukan  
oparo emana;  
Elgoibar ta Lesakan  
ezagun ziñana,  
apaiz egiñik igo  
ziñan Jesusgana.

Pozez adixkideak  
emen gera batu,  
urrezko eztaigozoak  
nairikan ospatu;  
berrogei ta amar urte  
dirala gertatu,  
meza zenduenetik  
lenbizi opatu.

Leen eritegian  
gaxoak zaindutzen,  
gero Txadon aundian  
arimak argitzen;  
Elgoibartik ziñala  
Mendarora aldatzen,  
abelge ta aberatsak  
dituzu laguntzen.

Egaraz goi-goitikan  
jatxi ziñan noski,  
ala iduritzen zait  
beñepein neroni;  
goiz izarrak bezela  
egiñikan argi,  
ekaitzetan zerala  
askoren gidari.

Santutasun osoa  
irakatsi dezu,  
lekaimiak zerura  
zuzendu dituzu;  
zarren eta gazteen  
ardura daukazu,  
mutill eta neskatxen  
aingeru zera zu.

Guztiak ekartzeko  
zeruko bidera,  
gogoz lan egitea  
da zure jokera;  
ardi galduen billa  
Jesusen antzera,  
zintzo erakutsiaz  
santuen jaiera,

Nork agertu ditzake  
zure otoi ziñak,  
eta egin dituzun  
egintz alegiñak?  
Batzuetan zirala  
gozoro atsegiñak,  
eta bestetan berriz  
negartsu samiñak.

Beti gau eta egun  
Jainkoari deika,  
txiki t'aundi guztiak  
ditzala bedeinka,  
su-leizera ez ditezen  
erori amilka;  
zuk askatu dituzu  
ortikan amaika.

Liburu txit ederrak  
dituzu idatzi,  
donokira dezula  
bidea erakutsi;  
olerki alaitxuak  
jarririk egoki,  
Jesusen Biotz eta  
Ama maiteari.

Ipuiñ politak ere  
idatzi dituzu,  
amaika parre gozo  
eragin diguzu;  
Patxi Motzen larriak  
esan dizkigutzu,  
triste geudenean zuk  
pozkiada gaituzu.

Goiko Jaunak zaitzala  
esker onetsitu,  
eta luzaroetan  
gurekiñ alkartu;  
eta ditzazunean  
eun urte artu,  
gotzonak zaitzatela  
zorioneratu.

Bitartean gurekiñ  
bizi zaitez emen,  
donokira bidea  
guri erakusten;  
egun zorionsua  
danean etortzen,  
zurekiñ joango gera  
donokira zuzen.

Urruzuno Salegi  
Kepa Mikel jauna,  
agertu nai dizugu  
gure maitasuna,  
opatuaz biyotzez  
orain osasuna,  
gero beti-betiko  
zoriontasuna.

## Beste bertso batzuk

Urrengo beste bertso auek ere Urruzunoren gorantzan moldatuak daude. *Argia* astekarian agertu ziran, On Pedro Migel jauna itzali eta laster, 1923-IV-29-an. Egillea ez da esaten; *Bat* itza jarri eta or izkutatzen da. Bertso auek ere onera aldatzen ditugu:

### *Pedro Migel Urruzuno zanari*

Zer entzuten det,  
Jaungoiko maite,  
nere biotzaren taupadan?  
Emen ludiyan  
adiskide bat  
gutxiago izan nik dezadan,  
beti betiko  
zeru goi gora  
igo dezula eriozkadan?

Auspezturikan  
nik gurtutzen det  
naimen donea, Jainko ona,  
naiz egin arren  
barren barruan  
miña dun zauri sakona;  
zure-zurea  
orain da beti  
beti izan nai det on-ona.

Urruzuno jaun  
agurgarriya  
eunka gizonen euspena,  
apaiz gartsua,  
txit langillea,  
euskal idazle zuzena,  
beti erein dezu  
euskal biotzetan  
oituren azi ederrena.

Orain zeruan  
atseden zaitez  
ludiko lanen saritzaz;  
Jesus'en Biotz  
ta bere Amaren  
goralpenetan biziyaz,  
gutzaz etzaitez  
egundaño aztu  
t'emen dauzkagun premiyaz.



Ainbeste maite  
maitatutako  
Jesus Karrera lagunak  
guri egin zigun  
utsune aundiya  
nai ta ezin bete degunak  
naigabeturik  
bai utzi digu  
Urruzuno il dan egunak.

**Bat**

*Argia*, 1923-IV-29

## **P.M.-ri**

Bost bertso auek, Donostiako Ramon Gelbentzu bertso-jartzailleak moldatuak, *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziran 1902-XI-16-an:

Larunbatero jakiña daukat  
*aja, ja!* farrez lertutzen,  
arkitzen nazu zure ijito  
kontuak irakurritzen;  
iñoiz egon naiz nere artian  
esanaz: «Nolatan sartzen  
ditu astero kontutxo aiek?».   
Jaunak, oso naiz arritzen.

P.M. jauna izkiratuzten  
asi zanetik gaur arte,  
gure *atxuak* badu etxian  
berak makiña bat kalte;  
ala esaten dit: “Argi erretzen  
egon be oiera zaite”.  
Orain ez dakit argia duben  
ni bañan geiago maite.

Bazkaltzen eta irakurritzen,  
gauz onik ezin espero,  
aitortuko det neri mayian<sup>1</sup>  
zer gerta zitzaiten gero;  
irakurritzen ari nintzala  
“*En Mardill no ai salero*”,  
kutzare gatza nere abora  
juan zan nai bezin aguro.

Nere eriuari, nere *Mardilko*  
*salero* edo gatzontzi,  
mai gañetikan bota nituben  
lurrera iru-lau ontzi;  
lapikua ere an erori zan,  
eskerrak etzala autsi,  
jakin nai nuke nere *atxuak*  
jardunai noiz zion utzi.

Orain azkenik, autsiak autsi,  
zuri nua esatera:  
kontu lanikan ez utzitzeko  
bizi dedilla euskera;  
bada naiago det irakurri  
euskeraz dagon papera,  
naiz autsi iñoiz kazuela bat,  
kikara edo platera.

---

<sup>1</sup> *Ibaizabal-en maiari.*

## Nere osaba Pedro Migel

---

(*Auspoa*-ren 47-garrenean Pedro Migel Urruzuno jaunaren ipui-sorta bat argitaratu genduan, *Iru ziri* izenburuarekin. Itzaurrea beraren illoba zan Jose Maria Etxaniz Urruzunok idatzi zuan. Bai bere osabaren berri jakingarri asko eman ere. An esaten diranak merezi dute gaur ere irakurleak irakurtzea. Baiña liburu ori 1965 urtean ikusi zuan argia, orain ia berrogei urte, eta eskuratzen zailla izango da. Orregatik, itzaurre ori ere onera aldatzen degu. A.Z.)

*Auspoa*-ren eskutiz bat artu det, esanaz Don Pedro Migel Urruzuno-ren beste ipui-sorta bat argitaratzera dijoala, eta ia zerbait idatziko dedan itz-aurre bezela liburu orretarako.

Bai pozik egin ere. Baña alde-aurrez esatera noa ni ez naizela idazle bikaña; borondate oneko euskaltzalea bai, baña geiago ez. Barkatu, beraz, irakurle, nere itz-aurre au euskera garbi ta apañean idatzirik ez badago.

Ta zer esan bear det nere osaba Don Pedro Migelen gañean? Bera il zanean, ni umetxoa nintzan. Ta, orregatik, ezin nezake ikusitako gauzarik kontatu.

Orregatik, esan ondoren Elgoibar-en jaioa zala ta apaiz egin ezkeroztik iya bizitza guzia Mendaro-n eraman zuala, lelengo erretore bezela ta gero Agustiñetako kapellau bezela, besteren aotik entzun ditudan itzak jarriko ditut emen. Mintzatu ditezela, beraz, nere partez, bera ezagutu zutenak: moja zar bat, apaiz bat, sakristau bat, baserritar bat eta ijito bat. Ta azkenean ipiñiko ditut nik bildutako beste gauza batzuk.

**Mojatxoak** ala dio: «Don Pedro Migel izan zan apaiz piñ, zintzo ta jator bat. Izketan geienean bertsotan egiten zigun. Berak gutxi jaten zuan. Dana eman. Zapatetarañoeko guzia erregalatu egiten zuan. Bere bazkaria izango zan pobre edo ijitoren bati jaten emateko. Ta elizkizun ikusgarriak egiten zituan. Musika-zalea ere bazan, ta koruko kanta asko berak egiñak ziran. A, aren errosario santua! Ta Maiatzeko lorak berriz!... Gaur ez da orrelako eliz-puntziorik egiten. Nobena ta mezak ere oso ederrak

izaten ziran. Baña, orretarako, Don Pedro Migel beti lanean. Errosarioa kantaz beterik erreztatzen genduan. Misteriotik misteriora, berak egindako kanta ederrak. Asiera zan:

Agur, Errosarioko  
Amatxo ederra,  
aingeru ta gizonen  
pozside zu zera;  
Gabriel aingerua  
jetxi da Zugana,  
aitortzeko zerala  
Jainkoaren Ama.

Ta gero misterioen bukaeran:

Larrosa zuri eder  
Jainkoak jarriya,  
zeru-lurrak dizute  
kantatzen gloriya.  
Loreen lorea ta  
argiyen argiya,  
egunaz eguzki ta  
gabaz illargiya.  
Pekaturen kutsurik  
batere gabia,  
sortzetik guzi ori  
osoro garbia,  
zerutarren ispillu  
edu ta garbia,  
pekatarien poza  
eta alegria;  
lore danen erdian  
zauden liriya,  
ez dago zotz beterik  
zure ingurua.

Eta orrela, beti kantak aldatuaz, a zer errosarioak!».

**Apaizak**, berriz, esaten du: «Don Pedro Migel izan zan totaleko umilla ta oso langillea. Etzuan sermolari bezela gauza aundirik balio, ta berak ere aitortzen zuan ori. Bañan sermoi-presatzalle bezela, asko balio zuan. Apaiz asko joaten giñan beragana mesede au eskatzera, ta sekula etziguñ ukatzen. Musikan ere bazuan bere apiziotxo. Eliz-kantak, gabon-agurak eta beren bertsoetako laguntza berak egiten zituan. Mojatxoak asko maite zituan; baita auek ere bera. Auzo-errietako organistak ere askotan joaten ziran Urruzuno-gana, idazkien billa beren musikai jartzeko. Guziak lagun zituan. Etzegoan arentzat ez aberats eta ez pobrerik. Guziak berdiñak. Ta euskaltzale bezela, lelen-goetakoa. Bere elizkizun eta komentuko lanak bukaturik, sartzen zan bere etxetxoan da iskribitzen asten zan. Zenbat bertso ta zenbat ipui idatzi ote zuan! Makiña bat parre egiñak gera aren lanekin. Ta dana euskeraz. Gutxi izango dira Don Pedro Migel ainbat lan gure euskeraren alde egindakoak».

**Sakristauak**, berriz, dio: «Kanta batek Donostia *bakarra munduan* dala esaten du; ba, nik orixe bera esango nuke Don Pedro Migelgatik. Arentzat danak ziran berdiñak. Ez aberats eta ez pobre; ez gorri ta ez zuri. Sarritan berak egiten zituan eleizako ta sakristiko garbitasunak ere. Nik esaten nion: “Don Pedro Migel, laga, ori nere lana da-ta”. Bañan alperrik... Ain zan umilla. Orain kontatuko dizut Mendaro-n egin zuen lelengo sermoia, erretore bezela etorri zanean. Jende guzia, eliza bete-betean, zai-zai zegoan aren itzak entzuteko, ta onela itzezin zuan: “Mendarotarrak: ez nator ez gorri ta ez zurien lagun egitera, baizik danona izatera. Ez, ba, ni artu apaiz bezela bakarrik. Artu nazazute danok lagun bezela, bai eleizan zaudetenok eta bai etorri ez diranak ere. Ta benetako lagun bezela”. Oiek izan ziran Don Pedro Migelek esan zituan itzak lelengo sermoian. Ta alaxe izan zan beti: danen laguna. Kontatuko dizut beste gertaera bat ere: Don Pedro Migel etzan osasun onekoa. Ezta sermolari ona ere. Etxekoandrea, Praixka Antoni, beti errietan ari zitzaion gutxi jaten zualako: “Jauna, berori bere buruaren kaltean dabil. Eztu jaten. Dana ñori eman. Jan beza, ba, Jainkoak agintzen duan bezela!”. Ta Don Pedro Migelek erantzun zion: “A, Praixka Antoni! Etzazu alperrikan jardun. Zure errietak ete nere sermoiak berdiñ-berdiñ: baterez”.

Entzun dezagun orain **baserritarrak** diona: «Guretzako, baserritarrentzako, Don Pedro Migel izan zan apaiz ona ta lagun ohea. Ura zan, guretzat, apaiz, abogadua, eskribientia ta dana. Zerbait erosi edo saldu bear genduala, edo seme soldaduari eskribitu bear geniola... danok beragana. Bazekian gero gure lana, nekzaritza, lan aundia dala; ta, jai egunean, meza ondoren, beti agertzen zan Mendaro-ko plazara, gure goraberak entzutera. Ta bere ipuiñ ta txisteekin naikua parre eragiten zigunean, onela esaten zigun: “Ni banijoa nere lantxoak egitera, ta zuek joan Jainkoaren pakean tabernara ta amaiketako on bat egin, astean baserriko lanak gogo onarekin egiteko. Datorren jaira arte, ta ez dezala iñork nobedaderik izan. Agur, ba”...».

Ta **argiñak** diona: «Ura bai zala gizona! Zenbat mesede egin zuan! Beretzat ezertxo ere ez; dana besterentzat. Nunbait ere gaixorik bazan, an zan Don Pedro Migel apaiz ta lagun bezela. Arrek bere ortutxoan zituzen sagar ta madariak, iñorentzat danak. Baserrietan txerri-iltzea zala, danak eramango zioten puskarik onena. Baña berak jan... ez det uste».

Entzun orain **ijitoari**: «Don Pedro Migel oso gure maitea zan. Listoa ere bai noski. Guk egiten giñuzen pekatutxo guziak berealaxe jakiten zituan. Errietan beti, baña bai barkatu ere. Berak ere asko maite giñun. Ta gure ipuiak, berriz,... zer ederki eskribitzen zituan! Beti kontseju onak ematen zizkigun, baña gu... beti ijitoak. Gerok baño obeto jakiten zuan gure ibillera guzien berri: Santa Luzietan zer egin genduan Zumarraga-n... Elgoibar-en beiñ edo beiñ ardo geitxo eran genduala... Nik badakit mikeleteak ere sarritan beragana joaten zirala gugatik gaizki esatera; baña Don Pedro Migelen erantzuna izaten zan: “Badauzkate, bai, beren pekatutxoak; baña zeñek ez? Laga dezaiozun pakean ijito jendeari. Ez dutela lanik egiten? Ainbeste ta ainbeste dira egiten ez dutenak!”. Disgustotxoak ere emanak gera berari; baña baita pozak ere. Gogoratzen naiz oraindik zer poza artu zuan nere aiton-amonak ezkondu zituzenean. Ura bezin apaiz onik izan diteke noski. baña ez det uste!».

Ta orain, bukatzeko, nik ere zerbait esan bear det. Len esan detan bezela, dana entzuna. Nere osaba zanaren esaera ta kontu

guziak idazten asiko banintz, itzaurre au geiegi luzatuko litzake. Banijoa, ba, iru edo lau bat gauza kontatzera.

Bein batean, agertu zan konfesatzera ijito bat, eta onela asi zan: “Jauna, aitortzen det lau ollasko lapurtu ditudala”. “Lau?” Noiz?”. “Bata joan zan jaiean, bestea martitzenean, eta irugarrena atzo”. “Bañan oiek ez dira lau, iru baino”. Ta ijitoak, burua makurturik dio: “Bai, jauna; baña laugarrena biyar lapurtzeko asmoa det”.

Beste batean, bazijoan Don Pedro Migel etxe aldera bazkari-ordu inguruan, eta ikusi zuan emakume bat, ezkondua, beste batekin jardun da jardun ari zala. Don Pedro Miguelek bazekian emakume ura oso berritsua zana ta onela esan zion: “Baña, Joxepa: bazkari-ordua ta zu oraindik txur-txur berriketan? Berriz ere izango dira zure etxean errietak. Esango det, bai, nik:

Gatza Gatzagan ta koipia Mutrikun,  
ta bixen bitartian azak ezin egon bigun”.

Mendaron, beste erritan bezela, baziran neskazar beatak ere, beti elizan egoten ziranak. Ta gure Don Pedro Migelek, aguantatu bai, baña ez zituan begi onez ikusten. Bein batean joan zan beragana neskazar beata oietako bat, eta asi omen zitzaion: “Ai, jauna! Atzo izugarrizko eskandalua sortu zuan Pulanak. Jende guzia arrituta egondu zan. Aundiak esan zizkion Menganari”. Ta gero: “Ene, jauna! Pulana joan zan jaiean Elgoibar-era, ta gaberdian oraindik etxeratu gabe zegoan. Zer lotsa! Noraño allegatu bear degu? Jauna, berori zerurutzen danean, errezatu beza nigatik, ni ere ara joan nadin”. Ta Don Pedro Migelek, burua jiraturik, erantzun zion: “Baña, Mari Juana: zuk badakizu zeruan arkitzen diran guziak onak dirala. Beraz, zu ara joaten bazera, norgaitik gaizki itzegingo dezu, ba?...”.

Beata neskazarrai bertsoak ere jarri zizkien Don Pedro Migelek. Makiña bat aldiz kantatu izan ditugu, ta oraindik ere kantatzen dira:

Beatak or dabilta  
beti errezuan,  
suspiruak egiñaz  
pausuan pausuan;

iñork artu nai ez ta  
ara eta ona,  
orra estimazioa  
munduak diona.

Goizero konfesatzera,  
goizero eleizan,  
norberanak gordeta  
besterenak esan;  
korriotzat oberik  
ezin liteke izan,  
orra gure beatak  
zer moduz dabiltzan.

Lapikuari palta  
zaionian gatza,  
gañera aragia,  
olio ta gantza,  
arrek bai dadukala  
beataren antza:  
sustantziarik ez du  
baña bai esperantza!<sup>1</sup>

**Jose Maria Etxaniz Urruzuno**  
Elgoibar, 1965-5-2-an.

---

<sup>1</sup> Bertso auen sail osoa aurrerago eskeiñiko degu.



## Urruzuno, idazle

---

(Pedro Migel Urruzuno jauna ilik berrogei ta amar urte zirala-ta, omenaldi bat eskeiñi zitzaion bere jaioterri Elgoibarren, eta ari buruz itzaldi au eman nuan nik, 1973-ko ilbeltzaren 28-an. Orduan esanak balio dute liburu ontarako ere, itzaurre gisa. A. Z.)

### Idazle ugaria

Idazle bat goratzearren bilduta gaude gaur emen. Ala ere, beste ezer baiño len, gauza bat esan bearrean gaude: idazle orrek, Urruzunok, etzuala bere libururik ikusi ta ezagutu. Bere libururik esan det. Eliz-liburu bat baiño geiago euskeratu zuan: *Zeruco arguiya* edo *Ondo pentsatu!*, Tolosa, 1885, ta *Meza santua zer dan*, Durango, 1915. Baiñan oiek itzulpenak dira; ez bere-bereak, beraz. Bertsotan *Igande escolaraco jarritako cantac* ditu. Auek, ordea, ez dute, uste dedanez, libururik osatzen, liburuxka bat, *folleto* bat baizik. Naiz-ta oso onak izan, itzulpen oietzaz ez degu ezer ere esango; ezta liburuxka orretzaz ere.

Danok dakigunez, Urruzunok garai artako aldizkari guzietara bialtzen ta banatzen zituan bere idazlanak; ta an da emen, ardi galduen gisa, gelditu ziran. Urruzunok etzuan bere lanik beste moduz ikusi. Aldizkari oien izenak: *Euskal-Erria*, *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Baserritarra*, *Euskal-Esnalea*, *Argia*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Aranzazu*...

Urruzunoren liburu guziak, bera il ondoren agertu dira, aren ipui ta bertsoak andik eta emendik bilduta. Lenengo argitaratu zana: *Urruzuno tar P. M. 'en ipuiak* deritzana, Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan, Iruña, 1930; ta beste guziak *Auspoa* liburutegiak atera ditu: *Euskalerritik zerura* (1961), *Iru ziri* (1965), *Ur-zale baten ipuiak* (1965); ta, azkenik, omenaldi ontarako prestatu dana: *Sasiletrau baten ziria* (1973).

Danetara, bost liburu; ta geiago egiteko ere gai-paltarik ez dago. Bostetatik iru aituta daude; bi bakarrik salgai, azkeneko

biak. Ta auetatik ere, *Ur-zale baten ipuiak* izenekoa, laister agortuko dana. Ez du edozein idazlek olako arrera onik izaten. Erriaren gogokoak, beraz, Urruzunoren lanak.

Azken idazlana, berriz, *Argia*-n agertu zan, 1923-IV-22-an, bera il da zortzigarren egunera. Ama Birjiñari eskeiñitako zazpi bertso dira. Onela bukatzen zuan:

Aldendu gabe zure ondotik  
beñere mundu onetan,  
bizitutzeko bizi-guzian  
zurekin zero goietan.

Iltzera zijoala igerri eta Ama Birjiñari eskari ori egiten diola ematen du; ta ondoren oian sartu zala azken arnasa emateko. Eriotzera arte lan ta lan aritu zan gizona degu, beraz,

Asi zanetik, 1881 urtetik alegia, erioak 1923-an eramán zuan arte, berrogei ta iru urteko tartea izan zuan. Orixe da euskal aldizkarietan lan egin zuan denbora. Eliz-liburuak euskeratzen lenago asia izango zan bearbada.

Bitarte orretako idazlanak, zenbat ote? Saiatu naiz kontatzen, eta irureun ta ogeiraño iritxi naiz<sup>1</sup>. Gutxi gora-bera or nunbait izango dira; baiñan zorrotz ta juxtu kontatzeko, denbora geiago bearko litzake.

Ta galdutakorik ere badu. *Baserritarra* izeneko bi aldizkari izan dira: Bata, Bilbon Sabino Aranak agertzen zuana, politika-aldizkaria; bestea Donostian Pepe Artola, B. Iraola ta gaiñontzeko garai artako donostiar euskal idazleak ateratzen zutena. Onako au amabostean bein izaten zan, ta Urruzunok ia amabostero idazten zuan. Danetara, eun da irurogei ta zazpi ale edo zenbaki izan ziran; baiñan orain arte agertuak eun da bi. Irurogei ta bost, beraz, falta diranak. Ta, ziur aski, Urruzunoren ia beste ainbeste idazlan aldizkariarekin batera galduak. Iñork baleki *Baserritarra* orren sorta osoa nun dagoan, biotzez eskertuko genioke beraren berri ematea.

---

<sup>1</sup> Orain geiago dirala uste det.

Urruzunoren iturriak etzuan, beraz, agorralkirik izan. Iturri ugari ta oparoa izan zan. Ori beintzat aitortu ta eskertu bear zaio; ta are geiago oraindik, beste zerbait kontuan artzen badegu.

Urruzunok bazuan, noski, idazteaz gain beste lanik. Mendaroko mojen kapellaua izan zan, ta bere apaiz-lanak gogotik egiten zituana. Elizkizun ederrak gustatzen zitzaizkion; ta maiz xamar, aietarako bear ziran kantik ere, berak egiten zituan, bai letraz eta bai musikaz. Are geiago: jende asko etortzen zitzaion, bai jende xumea –eskaleak eta abar– eta bai apaizak ere, zerbaiten galde edo kontsulta egitera. Zabalik beti Urruzunoren atea. Onela zion *Jesus'en Biotzaren Deya*-k Urruzunoren ilberria ematerakoan: «Azkeneko Aste Donean asko nekatu emen zan, eta beraz nekaldi gogortxuak eriotza erakarri zion». Onenbesterekin esanda dago idazlanak txolarteetan egin bearko zituala. Ez du edozeinek bere une libreetan tamaña ortako lanik egiten. Askok, ezta egun guzia emanda ere. Langille purrukak, beraz, Urruzuno zana.

Urruzunoren lanak bi taldetan bildu ditezke: ipuiak eta bertsoak. Bestelakorik ere badu bat edo beste; baiñan oso bakanak. Ez, noski, talderik osatzeko ainbat. Orregatik, ez degu oietaz ezer esango. Ipuiei buruz mintzatuko gera geienbat, bukaeran bertsoetaz zerbait esateko.

## Umorea

Onela dio Urruzunok idazki batean:

–Aizazu, Iñaxio: zeñ da bizar beltz-dun ori?

–Orixe dezu bada Iparragirre´ren erederua.

–Zer eredau ete zuan ba? Kitarria?

–Ez; umore ona.

–Tripia betetzeko... eztakit...

–Ez; apizioz dabill. Orañ zartzara obra miserikordiazkoak eitten ei dabill.

–Zer obra da?

–Triste daudenak konsolatzia.

Guk ez dakigu zeinengandik eredatu zuan Urruzunok bere umorea; bai, ordea, erentzi aundia jaso zuala. Bere denbora guzian besteri banatzen aritu zan, eta ala ere etzitzaion batere gutxitu edo eskastu.

Ta triste daudenak konsolatzea errukizko egintza baldin bada, dan bezela noski, egintza ori bai gogotik eta benetan egin zuala.

Onela zion Antonio Arrue jaunak orain amasei urte idazlan batean: «Gaiñontzean, eta *euskal umoreari* buruz, esan genezake, oker aundirik gabe, Euskalerriak idazle gutxi izan dituala, oso gutxi ere, Urruzunok bezela umore berezi ori beren lanegiñetan irauli dutenak: Mogel *Peru Abarka*-n, Domingo Agirre *Garoa*-n, Bustintza ta... beste bat edo bi, geienaz».

Bai: Urruzuno umorezale degu, gure umoristarik aundienetako bat. Aren ondotik, bere donostiarkeri guziekin, Biktoriano Iraola jarriko nuke nik. Zoritzarrez, olakorik gutxi daukagu gaur, ez bearrik ez degulako baiñan...

Gauza batez arrituta nago aspaldi; arrituta ez-ezik, kezkatuta ere bai. Gure erria oso umorezalea degu. Or ditugu bertsolariak; baita ere edozein lagunartetan kontatzen diran gertaera ta pasadizoak; ta or, batez ere, erriaren izketa-modua. Gure erriak ez daki izketan egiten, umorezko zirikadarik ezker-eskubi banatu gabe. Ori danok dakiguna da. Zergatik ote dan, beste kontu bat da. Bada emen, nik uste, sikolojia-lan baterako gaia.

Baiñan arrigarria au da: alde batetik, umoredun erria; ta, bestetik, umore gabeko idazleak... Nai duanak nai duana esan dezala, baiñan nik ez det au ondo arrapatzen. Aitortzen det neroni naizela lenen pekataria. Baiñan onek zera esan nai du: euskal literaturak ez duala bear bezela euskal izaera erakusten; erria bide batetik dijoala ta gu, euskaltzaleok, bestetik.

Umore-mota asko dago. Badira umore onak eta txarrak, legunak eta zakarrak, gozoak eta mikatzak. Umorearekin bromarekin bezela gertatzen da: broma on batek adiskide berri bat egingo dizu; ta broma txar batek, etsai berri bat.

Urruzunoren umorea nolakoa ote da? Urruzunorena oso umore garbi ta gozoa degu; biotz garbi ta gozo batetik jaioa, alegia. Urruzunoren umoreak ez du iñor zauritzen; ezta arramazkarik txikiena egiten ere.

Onek ez du esan nai Urruzunok malizirik etzuala. Apaiz txiki arek bazuan, bai, ortatik bere puxkatxoa. Izan ere, malizirik gabe ez da, nik uste, umorerik. Zergatik ez du, ba, iñor samintzen?

Bere umore ori maitasunez beterik dagoalako. Maitasuna zeññentzako edo zerentzako? Bere ipuietan agertzen dituan pertsona guzientzako.

*Pertsona* idatzi baiño len, nere zalantzak izan ditut, itz ori erderazkoa dala ta euskerazkorik ezin arkiturik. *Kristaua* ia-ia jarria neukan, baiñan Urruzunoren alkar-izketa batez oroitu naiz. Onela dio ijito-andre batek erretore bati:

-Liña-putzuan bataiatutakoa nai du nerekiñ konparatu?

-Liña-putzuan?

-Bai, jauna, liña-putzuan; ark bear zuan izena Liña, eta ez Prantxiska.

-Nork bataiatu zuen?

-Mañexek.

-Nola?

-Ara, jauna: putzuan iru sartu-atera egiñ zizkion, esanaz: «Uka pirme, kasta gaixtoa; aitaren partetik lapurreria, amaretik ordikeria, mundu guzia dezu zuria, Prantxiska».

Ez det uste bataio orrek kontzilioaren ondoren ere iñor kristau egiteko balio duanik. Ezin, beraz, *kristaua* jarri... Baiñan bat-batean Urruzunoren beste itz bat bururatu zait, eta itz orrekin esango det. Bai; Urruzunok maite ditu, ta beren akats ta guzi maite ere, bere ipuietan agertzen dituan *ankabiko* guziak. *Ankabiko* oietzaz itzegin nai nuke orain.

## **Ankabikoak**

*Ankabiko* oiek ez dute lur-eremu aundirik betetzen: beren bizilekua oxo txikia da luze-zabalean. Urruzuno Mendaron bizi zan. Ipar aldean, zortzi bat kilometrora, Deba ta itxasoa zeuzkan; baiñan ez du aitatzan ez itxasorik, ez itxas-gizonik. Ego aldean, berriz, sei bat kilometrora, Elgoibar zeukan, ta andik bereala Eibar ta Plazentxi. Ala ere ez du aitatzan ez ango industriarik, ez

ango langille jenderik. Urruzunoren mundua, Deba ta Elgoibar bitartean dagoan erreka-zulo illun ta luze ori da. Menditarte orretan bizi diran jendeak agertzen ditu bere ipuietan.

Jende oiek zein dira? Mota guzietakorik dago: tabernari, juez, alkate, praille, neskazar, mutilzar, pregonari, sasiletrau, perratzaille, txorroskille, mozkor, klerikala ta antiklerikala, bertsolari, ikazkin, baserritar, nagusi, morroi, iñude, zapatari, soldadu, mitin-zale ta abar ta abar. Ta batez ere, batez ere diot, ijito jendea; ijito-jendea bere ijitokeri guziekin.

Zerrenda luzea idatzi det, baiñan izen bat izkutatua. Zein ote? Apaiza. Apaiza ere agertzen da Urruzunoren ipuietan, baiñan beti bigarren maillan. Ez du aurrera atera ta danen bistara azaldu nai. Zergatik ote? Apaiza Urruzuno bera dalako. Ez dago ortaz zer duda egin. Erriarekin eten gabeko artu-emanetan bizi zan ura; eta artu-eman oien ondoren edo frutu, ara or apaiza, Urruzuno bera alegia, azaltzen dan ipuiak.

Ortega y Gasset jaunak onela dio Barojari buruz:

«Ha tenido que ir al margen de la sociedad actual, y precisamente en eso que suele considerarse como el escombros social –los golfos, los tahures, los extravagantes, los vividores, los suicidas– creyó encontrar un asunto».<sup>2</sup>

Olako zerbait badegu, nik uste Urruzunorekin ere. Jende xume ta arlotea arena; jende umilla, pobrea, ta nolabaitekoa ere bai makiña bat aldiz. Urruzunoren kutunak jende oiek dira. Len esan bezela, maite ditu, ta beren akats guziekin maite ere.

Jaio zaneke eungarren urtea zala-ta. amaika bider entzunak gera aurten Barojaren izena, baita ere *barojianos*, *tipos barojianos* ta olamoduzko beste zenbait esaera. Era berean, guk ere *urruzunotar* itza asma genezake, ta *urruzunotar ankabikoak* esan. Ez dago gaizki, baiñan luzetxoa da. Aski izango da *urruzunotarrak* esatea.

Zenbait idazle mundu berri baten sortzaille izan dira; ta mundu berri ortan pertsona askori, *ankabiko* askori, eman diote bizi-

<sup>2</sup> Ortega y Gasset: *Ideas sobre Pío Baroja, El Espectador, I.*

tza. Alakoxeak, adibidez, Baroja ta Galdós. Bi erdal idazle auek aitatu ditut, ez noski Urruzuno aien maillako ta pareko egin nairik, zer esan nai dedan obeki ulertarazteko baizik.

Urruzunok ere mundu berri bat sortu du, euskal mundu bat; esan bezela, mundu txiki bat jeografiaz; baiñan *ankabiko*-mota askoz ondotoxo betea. Ez det uste gure literaturan iñor danik, Urruzunok ainbat pertsona, ainbat *ankabiko*, bere idazkietan agerrarazten duanik.

Euskal literaturan azaltzen diran lagunik geienak, alako geldiantza bat dute; maiz xamar serioegiak dira. Baita gure pinturan ere. Gure pintatzaillak euskal arpegi jatorrak erakusten dizkigute beren kuadroetan, baiñan bai serioegiak, sarritan beintzat. Urruzunorekin, ordea, olakorik ez da. Nik, beintzat, nere iduripenean ezin det urruzunotarrik ikusi, bere ezpaiñetan irripar pikaro samar bat gabe.

## Euskera

Nik ez dakit gramatikalariak zer esango duten Urruzunoren euskeragatik; baiñan, nere iritzirako, Urruzunok euskerarik asko zekian, euskeraren jabe zan.

Izkera guzietan bi mail arkitzen ditut: bata, gramatikak erakusten duana, ta ori arrotzak ere ikasi lezateke. Bestea ez dago gramatiketan, erriaren ezpaiñetan baizik. Beste au jakiteko, edo Urruzunoren aiñean jakiteko beintzat, bi gauza bear dira: lenengo, izkera ori amaren bularra artzearekin batera ikasia izana; ta, bigarren, erriarekin eten gabeko artu emanetan bizitzea.

Urruzunok biak zituala, zer esanik ez dago. Guk orain Urruzuno maixu aitortzen degu, berak maixutzat erria artu zualako. Nekez arkituko da euskal idazlerik, arek bezin ondo erriaren euskera ematen duanik.

Garaia artan, euskaltzaleen artean modan jarria zegoen garbizaletasuna esanda entenitzen zana. Gaur, ziur asko, garbizalekeria esango genioke, geiegizkoa izan baitzan. Baiñan auzi ori pakean uztea obe, gaur ere beste geiegikeririk badegu ta.

Urruzunok etzion moda orri jarraitu. Arek egin zuana zera da: euskerarik errikoiena ta jatorrena bere lanetan erabili ta eztabaida guziak or konpon utzi. Obeki esateko, etzitan or konpon utzi, baizik-eta ikamikan iñorekin sartu gabe, zuzenbidea nundik nora zan garbi asko erakutsi.

Orduko idazle guziak Urruzunoren bidetik abiatu izan balira, beste txori batek joko zion gaur kuku euskerari. Baiñan idazleak etzuten ulertu, edo etzuten ontzat artu, Urruzunok erakusten ziena, te okerbidetik bota zituzten beren egiñal geienak.

Urruzunoren merituak lenengo aitortu zituana, Sebero Altube jauna izan zan. Aitamen luzetxoak izango dira, baiñan merezi dute emen jartzea. 1933 urtean, *La vida del Euskera* izeneko itzaldia eman zuan Donostian, ta urrengo urtean Bilbon argitaratu zan. Artatik artzen ditut puska auek:

*«Hace unos 40 años que se inició en Bizcaya y Gipuzkoa el movimiento conocido con el nombre de “renacimiento euskerista”.*

*En aquella época el euskera era hablado, casi exclusivamente, en toda Bizcaya (con excepción de Bilbao y las Encartaciones) y en toda Gipuzkoa; aquí incluso en la capital donostiarra.*

*...se iniciaron los trabajos encaminados al susodicho “renacimiento euskerista” persiguiendo como finalidad principal (con un optimismo sin límites) la total extirpación de los elementos alienígenas importados al euskera, incluso los más extendidos y arraigados desde tiempo inmemorial.*

*...el absurdo plan de procurar el exterminio de las palabras populares de origen extraño fue seguido por toda una generación de escritores de los pasados años...».*

Altubek bi idazle jartzen ditu eredutzat: Kirikiño ta Urruzuno. Auek etzioten giro galgarri ari obeditu; ta giroak agintzen duanari ez obeditzeko. ez da buru argia bakarrik bear, baita biotz ausarta ere. Bai; nere iritzirako, beintzat, gizon agertu ziran Kirikiño ta Urruzuno.

Altubek lenengo Kirikiñooren gorralpenak egiten ditu, ta urrena Urruzunorenak. Oni buruz ona nola dion:



*«En medio de tantas publicaciones euskéricas carentes de savia popular y, por consiguiente, de belleza artística en el lenguaje, surgió el año de 1930 un libro intitulado "Urruzuno'tar P. M.' Ipyiak", una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdaderamente el título de literaria. El euskera que emplea Urruzuno en ese libro es la transcripción fiel del habla del pueblo; por lo mismo es rico en modismos, idiotismos y demás locuciones típicas que adornan el lenguaje ágil, vivaz y expresivo de la masa popular euskaldún; por otra parte, los conceptos, ideas y pensamientos que exteriorizan los personajes creados por Urruzuno reflejan con la mayor exactitud las manifestaciones más íntimas del alma de las gentes de nuestro pueblo. Se trata, por todo ello, de un libro que debiera servir de modelo a la literatura vasca del género popular.*

*Pues bien: algunos euskalzales, puestos en trance de hacer la crítica de ese libro, no supieron decir otra cosa sino que "es bueno en cuanto al contenido, pero que su lenguaje resulta poco depurado en relación con el que usan los escritores de nuestros días".*

*Para que el libro que comentamos satisficiera a aquellos críticos, hubiera bastado, por lo visto, con que un niño que supiera manejar el diccionario, sustituyera aquellas voces por otras, consideradas como "puramente" euskéricas; es decir, que allí donde Urruzuno escribiera "Ordu onean, Diru asko, Beko kalean...", cambiara esas frases por "Gabeuki onean, Txindi asko, Beko txaidean..." convirtiendo el lenguaje claro, transparente y expresivo del original, en árido e ininteligible para la masa euskaldún.*

*Esta clase de críticos nos hace la impresión de la de aquel que juzgara un cuadro de Miguel Ángel o de Murillo como inferior a un cromo de feria, porque éste estuviera colocado en un marco dorado con reluciente purpurina».*

Len esan bezela, aitamen luzetxoa izan da, baiñan merezi zuana. Nik onela esango nuke: Urruzunok egitez erakutsi zuan, batere teorikarik sortu gabe; ta Altubek, Urruzunok egitez erakustean zuanaren teorika atera zuan. Zein baiño zein prestuago bi euskaltzale auek. Emendik sei urtera, Altube jaio zanetik eun urte beteko dira. Zuzen izango da, gaur Urruzunori egiten dioguna, orduan Altuberi egitea.

## Bertso-jartzaille

Oraindik ere zer esan asko legoke Urruzunoren ipui ta prosa-ri buruz; baiñan au luze dijoa ta utzi egin bearko degu. Bada, ordea, oraindik, ezer ere artaz esan gabe ezin utzi ditekean beste zerbait: bertsoak.

Urruzunok bertso asko ta asko jarri ta argitaratu zuan. Ta guzi-guziak, teknikaz eta muiñaz, gorputz-animaz alegia, oso errikoiak, bertsolaritzaren legeen barruan egiñak.

Bertsolari ez diranak, diranak baiño askoz lasaiagoak dira puntuetan. Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik kontuan artzea aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeke. Urruzuno oso xuxena ta aberatsa zan puntuetan. Aren liburu bat artu ta bertso bat billatu det: edozein. Ona emen puntuak: ardatza, aberatsa, latza, esperantza. Beste bertso batenak: gutxian, etxian, kotxian, biotzian. Alakoxeak dira beti Urruzunoren puntuak; bertsolaririk onenak erabiltzen dituzten modukoak.

Ta barrengo muiñaz zer esan? Irakurleak berak juzka beza. Ona emen, puntuak berezi edo atera ditugun bi bertso oiek:

Baztarturik an dauzka  
goru ta ardatza,  
gubernatzeko dio  
esaten baratza;  
atxurraren kirtena  
omen dago latza,  
etxea goratzeko  
ai zer esperantza.

Bizitu naiz eta ez  
denbora gutxian,  
umeekiñ la asko  
egiñez etxian:  
andria pasiatzen  
ederki kotxian,  
pena andirik gabe  
bere biotzian.

Baiñan gu baiño erabakitzaille oberik badago: erria. Ura erriak Urruzunoren lanak edozein bertsolariarenak bezela artu izan ditu.

Urruzunoren bertso-sail bat baiño geiago bertso-paperetan azaldu zan. Beti bezela, *Bertso Berriyak* ipintzen du goiko aldean; baiñan zeiniek jarriak diran esan gabe. Orrela argitaratu ziran “Kantatutzero nua nere istoria” asten diran bertsoak, base-rritar gizarajo batek ijitoekin egiten duan asto-tratuaz jarriak. Zestoako Tomas Etxabek bialdu zidan kanta-paper ori. Aitzol zanaren bertso-bilduman ere badaude bertso oiek, iru tokitatik etorriak: Donostiko bi lekutatik eta Plazentzitik. Ta *Goiz-Argi* aldizkarian ere agertu ziran, Aita Garatek oñatiar bati, Alejandro Irizar jaunari, jaso zizkion bezela.

Andre ezkonduak eta neskazarrak alkarri kantatutakoak ere bertso-paperetan agertu ziran. Azkoitiko Landakanda baserritik etorri zitzaidan papera: eta gerra aurreko *Argia* astekarian ere azaldu ziran.

Patxi Motzaren kantak ere bertso-paperetan publikatu ziran. Ale bat Arizkunen jaso nuan, eta beste bat Donostian.

Ta orain berriro lengora goaz: bertsolaritza ere ain menderatua, ain barrena sartua zeukan gizon onek, zenbateraiño maite zuan erria? Urruzunoren idazkietatik eta bizitzatik ikasbide jator asko atera genezazke. Baiñan, nere iritzirako, danen sustraia ta oiñarria auxe da: erriarenganako maitasuna.

Urruzuno ain bertsolari ikusirik, orain urte batzuk, bertso biltzeari ekin nionean, aren illobengana azaldu nintzan, osabaren paperen artean bertso-paperik-edo ba ote zan galdetuz. Urruzunok derrigor bear zuan bertso asko irakurria izan; ta bertso-irakurle bazan, gordezale izatea ere etzan arritzekoa izango. Baiñan etzekiten ezer ere. Era ortako paperik somatu etzutela erantzun zidaten. Ez nuan, beraz, probetxurik atera. Beste nora-bait eramanak ote ziran? Ez dakit.

Ala ere, badaezpada, Mendaroko mojen komentuko atea jo nituan, eta Pedro Migel Urruzuno jauna zanaren paperik bai ote zuten galdetu. Onelatsu erantzun zidaten:

Urruzuno jauna gure kapellaua il ondoren, andik denbora asko gabe, komentuko moja bat petxutik gaixotu zan. Dakizunez, garai artan gaitz ori senda eziña zan, eta oso kutsakorra gaiñera. Orregatik, moja ori gela berezi batean jarri bear eta Urruzuno zanarenean sartu zuten. Il zanean, iñor kutsatu etzedin, gela artako paper eta tresna guziak erre egin ziran. Zuk nai zendukean ori ere an izatea ditekena da, baiñan ez nizuke esango.

Danok dakigunez, mojen komentuetan, kapellauari meza ematen laguntzeko, auzoko mutiko bat edo beste izaten dute. Urruzunoren meza-laguntzailletako bat nor izan zan badakigu: Eusebio Mugertza, urteen buruan *Duque de Kilimón* edo *Mendaro Txirristaka* esanda ezagutuko zana. Bertsolariaz gaiñera, bertso-saltzaille purrukatua. Oraindik ere askok eta askok izango dute gogoan. Azkeneko urteetan. erdera-euskerazko bertsoak publikatzen ta saltzen zituan. Asieran, orde, euskera utsezko bertsoak zituan, ta ez nolanaikoak. Bertso auekin liburu mardul bat atera diteke.<sup>3</sup>

Baiñan nola dakigu *Mendaro Txirristaka* onek mutil koxkorretan Urruzunori meza laguntzen zionik? Berak kanta-paper batean ala aitortzen dualako. Lenengo erderaz:

*Yo cacé un gavilán  
cuando era monaguillo;  
me decía el capellán:  
«Eusebio, tú eres un pillo».*

Ta urrena, euskeraz, argibide jakingarri au ematen digu:

Ura zan Pedro Migel  
Urruzuno jauna,  
bertsuetan sermoia  
egiten zuana.

Kontu polita au ere. Zeiñek usteko zuan orrenbesteraíño zani-kan? Apaizak bertsotan sermoia; ta, azkeneko, meza-laguntzai-ilea ere bertsolari biurtu...

---

<sup>3</sup> Ikus: *Mendaro Txirristaka*, Auspoa 120-121-122. 1974.

Datorren urtean beteko dira eun urte *Mendaro Txirristaka* au jaio zanetik.

## Eskerrak

Bukatu baiño len, bi izen aitatu nai nituzke, ain merezia duten esker ona gugandik jaso dezaten.

Urtetan eta ixil-ixilik, bi lagun oiek lan aundia, lan zailla egin zuten, Urruzunoren idazkiak andik eta emendik biltzen. Biltzen ez-ezik, makinaz kopiatzen ere bai. Ta ala, gaur emen bildurik baldin bagaude, gaur Urruzunori omenaldirik egin bazaio, bi lagun oiei zor zaie geienbat.

Oietako bat emen degu gaur: Jose Maria Etxaniz Urruzuno jauna, Urruzunoren illloba. Besteak atsegiñik aundiena izango zuan gaur gurekin egotea, baiñan mundu ontatik joana degu: Antonio Arrillaga jauna.<sup>4</sup>

Beraz, nere itzaldi au bukatzeko, jaun oientzat txaloaldi bero bat eskatuko nuke.

---

<sup>4</sup> Antonio Arrillaga jauna Elgoibarko mediku ospetsu bat izan zan. Liburu bat ere idatzi zuan Iparragirreri buruz. Bere azken urteetan bere errikide zan Pedro Migel Urruzunoren idazkiak jasotzeari ekin zion. Makiña bat bildu ere bai. Ikatz-paperez egindako kopia bat neri bialtzen zidan. Orain, bertso-liburu au prestatzerakoan, aren paperak ere aztertu ditut, noski; eta badira sail batzuk beste iñun aurkitu ez ditudanak. Batzuetan, iturria aitortzeko, *Argia* jarri oi du; baiña egunik ez du esaten. Ori adieraztearren, *Argia* astekariaren bilduma aztertu det, Urruzuno il zan urtera arte. Bertso-sail batzuk agertu zaizkit; baiña beste batzuk ez. Nundik ote zituan, beraz, Arrillagak? Ez dakit. Orrelakoak jaun orren paperetatik ditugula esaten det; baiña argitasun osoa ezin eman det. Dana dala, Antonio Arrillaga jaun orri mesede ori ere zor diogu, pozik aitortu eta eskertzen deguna.

# **Bertso-bilduma**



Mendaro Garagartza, parrokia.

(Foto: Luis Pedro Peña Santiago)

*O Biotz zeruen  
Jaun-jabea,  
amorezko su  
paregabea.*

Amore zauriz  
zultatua,  
guri begira  
zoratua,  
o jardiñ eder  
loratua,  
zeruetatik  
aldatua!  
*O Biotz...*

Zeruetako  
jaun andiya,  
egiñik gure  
janariya,  
o amoriyo  
ugariya,  
gizonarentzat  
geiegiya!  
*O Biotz...*

Ondasun danen  
iturriya,  
iltzeko gure  
egariya,  
o misteriyo  
pozgarriya,  
zeru ta lurren  
mirariya!  
*O Biotz...*

Zer moduz, Jauna,  
guk merezi  
Zugandik degu  
ainbat grazi?  
Zurekin guk nai  
degu bizi,  
eta zerua  
irabazi  
*O Biotz...*



Ongo gabeko  
itxasua,  
zerutik jetxi  
zeran sua,  
o amoriyo  
ain osoa,  
animarentzata  
txit gozoa!  
*O Biotz...*

Gurasorikan  
ez dutenen  
Aita gozoa  
zera emen;  
billa zabilta  
zu animen,  
salba gaitzazu  
danok, amen.  
*O Biotz...*

*Igande-escolarako jarritaco cantac*, Azpeitia: P. Martínez (1878).

Bertsoen aurretik, onela esaten da: «*Es propiedad de la escuela dominical de Azpeitia*».

Bertso auek *Koldo Mitxelena* Kulturgunearen liburutegitik artuak ditugu. Mikrofitxa batean atera zizkiguten. Ez genduan an Pedro Migel Urruzunoren izenik ikusi. Bearbada, orriren bat falta dalako-edo. Baiña arenak dirala ez dago zer duda egin, bertsoen joskerari begiratuta. Ortaz gaiñera, Jon Bilbaok bere *Bibliografian* Urruzunorenak bezela ematen ditu. Arek Mendaroko kapellauaren izena bertso auen ondoan ikusiko zuan. Emen esan deguna kontuan ar beza irakurleak urrengo lau sailentzako ere.

## Maria txit garbiari

---

*Ama maite Maria,  
egiguzu lagun  
zure bitartez Jesus  
ikusi dezagun.*

Jaungoikoak bedeinka  
zaitzala, Maria,  
edertasunez zera  
bere iduriya;  
jatorrizko graziya  
da apainduriya,  
zu egin zaituana  
gure mirariya.  
*Ama maite...*

Salbaziya degu  
gauza bearrena,  
au guziyok nai degu  
ikasi aurrena;  
zu geien maitatzea  
Jesusen urrena,  
zerurako ori da  
bide zuzenena.  
*Ama maite...*

Gau illunean zera  
guretzat illargi,  
egunaz ekaitzetan  
pakezko eguzki;  
arren, Ama gozoa,  
egiguzu argi,  
birtutez apaindurik  
bizitzeko garbi.  
*Ama maite...*

Egiguzu, Maria,  
zerutik graziya,  
ikasten saiatzeko  
al degun guziya;  
biyotzetan ereiñik  
zeruko aziya,  
baliya dekkigun  
emen ikasiya.  
*Ama maite...*

Egin diguzulako  
zerutikan lagun,  
nork daki zuri zenbat  
esker zor dizugun?  
Zu alabatzea nai  
degu gau ta egun,  
beti izan gaitezen  
munduan ezagun.  
*Ama maite...*

Zure bendiziyuaz  
bagoaz etxera,  
laister berriz etorri  
nai degu atzera;  
zu bitartean guzaz  
aztuko etzera,  
agur, Ama maitea,  
despeditzen gera.  
*Ama maite...*

*Igande-escolarako jarritaco cantac*, Azpeitia: P. Martínez (1878).

Bertsoen aurretik, onela esaten da: «*Es propiedad de la escuela dominical de Azpeitia*».

## Mariari eskaerak

---

*Maria, Ama maite  
ta ona egiaz,  
arren!, erruki zaitte  
gure miseriaz.*

Jesus eta Maria  
ta beste santuak,  
jakitea nai degu  
zeruko kontuak;  
baña griña gaiztoak  
gauzka itxutuak,  
arren!, etzazute argi  
gure adimentuak.  
*Maria...*

Estadurikan artu  
baño len munduan,  
esan zaiguzu Jaunak  
guzaz zer nai duan;  
bere borondatia  
egin ta onduan,  
zori onean gera  
biziko orduan.  
*Maria...*

Liriyo eder usai  
gozozko zuriya,  
birtute garbiyaren  
azi ugariya  
gugan ereiñ ta gorde  
ezazu, Mariya,  
zeruetako lore  
estimagarriya.  
*Maria...*

Aingeruak dituzu  
zure serbitzari,  
zu onratzen zeruan  
beti dira ari;  
gure eskolak geitu  
itzatzu ugari,  
lurra iduri dedin  
zeru eder ari.  
*Maria...*

Jende asko munduan  
daude errukarri,  
bekatuaren mende  
diralako jarri;  
badakigu zerala  
ona miragarri,  
arren!, bide onera  
itzatzu ekarri.  
*Maria...*

*Igande-escolarako jarritaco cantac*, Azpeitia: P. Martínez (1878).

Bertsoen aurretik, onela esaten da: «*Es propiedad de la escuela dominical de Azpeitia*».

## Salbea

---

Agur, zeruetako  
Erregiñ ederra,  
Amarik maiteena  
guretzat zu zera;  
amoriyo garbiya,  
errukiya bera,  
zuzaz oroitzean  
oso pozten gera.

Zure ao gozotik  
irtetzen dan itza  
da zerutik guretzat  
datorren bizitza;  
izanik gloriyako  
atearen giltza,  
zure esperantzan gu  
munduan gabiltza.

Bekatuaren bidez  
Jaunaren aserrez,  
miseriya besterik  
munduan ezer ez;  
destierruan gaude  
zuri deadarrez,  
suspirez, sentimentuz,  
penaz ta negarrez.

Aditu gabe zuk ez  
utzi gure deyak,  
gugana itzulirik  
errukiz begiyak;  
erremediatzeko  
gure miseriyak,  
gañerakuan gera  
txit errukarriyak.

Gertatzen zaigunian  
mundua uztia,  
zugan ar zazu gure  
anima tristia;  
geien nai deguna zuk  
guri iristia  
zeruan beti-beti  
Jesus ikustia.

O biyotz biguñeko  
Ama ta Birjiña,  
egiñ ezazu gure  
alde alegiña,  
izateko Jesusen  
aginduen diña,  
eta zeruetan zu  
gure atsegiña.

*Igande-escolarako jarritaco cantac*, Azpeitia: P. Martínez (1878).

Bertsoen aurretik, onela esaten da: «*Es propiedad de la escuela dominical de Azpeitia*».

## Anton Alper-en kontuak

---

Alper-en bizi modua zer dan  
nai nuke laburki esan,  
errukiren bat munduan guzaz  
norbaitek iduki dezan;  
lanari iges egiñaz beti  
diyot nik nere pobrezan:  
«Lendabiziko tripa-zorria  
nondikan sortu ote zan?».

Tripa-zorriak aspalditxoan  
neukazkian ustez illak,  
barrun utsian orain dabilta  
berriz pizturikan millak;  
ortz zorrotzakin este-zulaten  
langille gogor isillak,  
alperkeria sendatutzeko  
oriek dituk mutillak.

Lanaren beldur naizala oian  
gelditzen naiz aldietan,  
medikuak Kataliñi dio:  
«Jarri ezazu dietan;  
bazkari ordez meretzintxo bat  
urakiñ amabietan,  
kolikoakiñ kontu iduki  
urrengo egun oietan».

Juanik lasterka *Mr. Sibuple*  
mediku prantzesagana,  
galdiaz zer dan tripa-zorriak  
iltzeko konbeni dana,  
erantzuten dit euskal gaiztoan:  
«Zuk egin bear da lana».  
«Obe genikek –nire artian–  
ire poltsa erdi bana».

Atsegiñ da oian egotia,  
ez ordia ni bezala,  
jaikitakoan esan diteke  
eskeletoa naizala;  
nigan ekusten dira bakarrik  
ezurak eta azala,  
Anton Alper-en gaitzetik Jaunak  
gizona libra dezala.

Baziñekien gaitzaren berri,  
nire Kataliñ, antziña;  
«Ago ixillik –esan zenidan–,  
badiat biontzat diña».  
Zertako bada orain agindu  
dieta ta meretziña?  
Prantzesak berriz lan egiteko,  
ori da etsi eziña!

Milla esker, erriko mediku  
Don Gil de *Ezer-ez-eta*,  
gaixoarentzat zerbait tristia  
da bedorren errezeta;  
bisitak egiñ eta kobratu  
bakoitzako lau pezeta,  
kolikoaren beldur bear du  
poltsa orrela aseta.

*Mr. Sibuple-en Chemin de fer  
venir aquí hacer tranpa,  
bu le bu a mi engañar, pero  
moa uí tre-bien konprenpa;  
con tu bisaia y la sudurra  
elepante como tronpa,  
vete atzera, pardon, musiu,  
Prantzia de Millapranka.*

**P. M. Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1881*



(1881)

## Arantzazuko erromeriya

(Urruzunotar Pedro Migel jaunaren neurtitzak)

---

Aloña-mendi alde orretan  
orra izar txit argiya,  
ez da beste bat mundu onetan  
aïñ eder eta argiya;  
zabaldutzen du euskaldunetan  
poza eta alegriya,  
Arantzazura egun abetan  
dijua Euskal Erriya.

Pozez beterik Arantzazura  
gatoz, o Ama Birjiña,  
zuk ekarririk nonbait burura  
gendukan promes egiña;  
pentsamentuaz goaz zerura,  
au bai dala atsegiña,  
alabatzera al dan modura  
aingeruben Erregiña.

Jendez beterik dira mendiyak  
Oñatitikan agiri,  
zar gazte eta txiki aundiyak  
izar au dute giyari;  
alabantzazko kantu alaiak  
zuzenduaz Mariari,  
Arantzazuko erromeriyak  
zerua bera diruri.

Laister zenduen zure oiñpera  
Luzifer etsai okerra,  
sujetaturik zure mendera  
irabazi dezu gerra;  
zabaldutuz zure bandera  
orren bian jartzen gera,  
Judit beraren aldiñ zera  
oso aundi ta ederra.

Sortzetik zera oso doai ta  
grazi ederrez betia,  
eta alaba Zeruko Aita  
beraren guziz maitia;  
iguzu arren zaitzagun maita  
gu zureak izatia,  
Eleizak zaitu, guk ere baita,  
deitzen zeruko atia.

Zuri dizute pekatariyak  
eskatzen laguntasuna,  
ezagaturik errukarriyak  
beren ezereztasuna;  
jakiñik ama baten erraiak  
beti zugan dituzuna,  
senda itzatzu beren zauriyak,  
o gaixoen osasuna!

Somatutzean nekazariyak  
nonbaitetikan ekaitza,  
biyurturikan orruntz begiyak  
egiten dizu otoitza:  
baldin guretzat arto gariyak  
gordetzia bada gaitza,  
Arantzazutik Ama Mariyak  
arren anparatu bitza.

Pobre gaixoak aterik ate  
nondik-nai datozenian,  
eskatzea oituraz daukate  
Mariyaren izenian;  
txanpon bakar bat dakargun arte  
an dijoa zuzenian,  
arki dezagun neurriya bete  
zerura guazenian.

Asko alditan itxas-ontziyak  
jotzen duela arroka,  
dabiltz mariñel erdi-jantziyak  
olatuakin burruka;  
ai zenbat pena, ai zer antsiyak,  
Mariari erreguka,  
esperantza zugan ipintziak  
baliyo aundiya dauka.

Oeturik zaudeten gaixoak  
sufritzen pena samiñak,  
kontuan dauzka Ama gozoak  
zuen naigabe ta miñak;  
Kalbariyoruntz triste pausoak  
eman zituan Birjiñak,  
koruak dauzka birtuosuak  
sariyatzeke egiñak.

Bala tartian asko soldadu  
arkitzian guziz larri,  
erreguka ez ditezen galdu,  
Ama, dagozkitzu zuri;  
zure mantua oso zabaldu  
gaitezen azpiyan jarri,  
bestela berriz arren azaldu  
zaute gugana zerorri.

Etsaiak denbora galtzen eztu  
gure animen arrantzan,  
bere sarian ez gaitzan nastu  
gaude zure esperantzan;  
amabi bertso kantatzen poztu  
gera zure alabantzan,  
agur, Maria, gutzaz ez aztu,  
gelditu zaite arantzan.

Bertso-papera, «Donostiyan: - Oses-en moldiztegian» argitara emana  
eta Loiolako Aita Jose Inazio Aranaren bilduman aurkitua.

## Ama Birjiña maite sortze oso garbikoari

---

### Kantaera erregala Korua edo kantartea

*O Maria! Ezin egundaño  
guk zu alabatu naikua,  
nor da ederragorik zu baño?  
Bakar-bakarrik Jaungoikua.<sup>1</sup>*

### Kantaldiyak

Eguzkiaz jantzirik agertu  
da emakume bat zeruan,  
izar ederrez egiñikako  
koroia darama buruan;  
illargiya oñazpiyan eta  
aingeru asko inguruan,  
zorionekoa jartzen dana  
Erregiñ onen anparuan.  
*O Maria...*

Uztarkuak mundu au alaitzen  
du agertzian odeietan,  
ori bera egiten dezu zuk,  
o Maria, zeru goietan;  
Aingeruak gozoro dituzu  
muñ egiten zure oñetan,  
Jaungoikua da bera aurrena  
zu onratzen gauza oietan.  
*O Maria...*

Birtute guziyaz zaitubela  
Aita Jaungoikuak apaindu,  
Semearentzat bizi-lekurik  
ederrena zugan egiñ du;  
etsai guziyeri diye berak  
zugandik urruti agindu,  
Adanen pekatuak sekulan  
iñola etzaitzan zikindu.  
*O Maria...*

Beti zabalik daukakiguzu  
zure biotzeko atia,  
zuk iñork baño naiago dezu  
guziok zerura juatia;  
ekusi ezazute, kristauak,  
Mariaren borondatia:  
Bakoitzari Jainkoak zeruban  
tronu eder bat ematia.  
*O Maria...*

Begiyak biurtu itzatzute  
zeru eder orren erdira,  
beste guziak baño gorago  
ageri dan Izar argira;  
sortu ziñan unetikan zutzaz  
aingeruak arritzen dira,  
batak besteari diyotela:  
«Atozte, begira, begira».  
*O Maria...*

Ezagutzen dezu gu galtzeko  
etsaiak zenbat asmo duan,  
inguruan dabilkigu leoi  
amorratu baten moduan;  
ar gaitzazu zure mantu-pean  
bizi geran arte munduan,  
egunen baten arki gaitezen  
zeruetan zure onduan.  
*O Maria...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1882.*

---

<sup>1</sup> Gaztelaniaz *Himno real* edo *Kantaera erreala* deritzaion neuraldiaren modura kantatzeko egiñak dira oiek. Ara oietako bat nola asitzen dan erderaz:

*Salva, salve, cantaban, María,  
que más pura que tú sólo Dios;  
y en el cielo una voz repetía:  
Más que tí sólo Dios, sólo Dios...*

(*Euskal-Erria* aldizkariaren oarra).

*Eguzki, illargi ta  
ainbat izar eder,  
alaba ezazute  
Jauna milla bider.*

A zein ederrak dauden  
zeruan odehyak!  
Ez ditugu aditzen  
aingeruen deyak?  
Zer dira soñu eta  
kanta aín alayak?  
A!, badakit: dituzte  
pesta txit andiyak.  
*Eguzki...*

Tronu eder bat dute  
zeruan apaindu,  
Sebastian jartzeko  
Jaunak du agindu.  
Ori irabazteko  
berak zer egin du?  
Birtutezko bidean  
guziei gaindu.  
*Eguzki...*

Begira nola dauzkan,  
goi, be ta inguru,  
konta al baño ere  
geiago aingeru,  
eskaiñiaz millaka  
palma eta koru;  
ara nola dagoan  
Aita Mendiburu.  
*Eguzki...*

Atoz, Euskal-Erria,  
atoz zu, Oiartzun,  
iya zure semea  
ezagutzen dezun.  
O zenbat soñu eta  
zenbat edertasun!  
Orrelakorik ez da  
ekusi, ez entzun.  
*Eguzki...*

Jesuiten sotana  
loturik gerrian,  
predikatu zenduan  
zuk Euskal-Errian;  
sutu Jesusen Biyotz  
amorez errian,  
orren sariyan zaude  
zeruen erdian.  
*Eguzki...*

Esperantza guziya  
daukagu jarriya  
zukan, o gure aita  
txit maitagarriya,  
izan zaitezen gure  
zimendu-arriya;  
zuk maiteen dezuna  
da Euskal-Erriya.  
*Eguzki...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
Mendaron, 1882-garren urteko  
Uztailaren 5-ian.  
Urruzunoren esku-idatzia,  
Julio Urkijoren liburutegian  
gordetzen dana.  
*Euskal-Erria*, 1882.

Aita Sebastian Mendiburu il zaneko eun urte betetzen ziran 1882-an. Ori zala-ta, zenbait ospakizun antolatu ziran beraren jaioterri Oiartzunen, Uztailaren 14, 15 eta 16-an. Olerki-koroia edo *Córona poética* bat ere bai aren omenez, garai artako zenbait idazlek parte arturik: Orkaiztegiko Patrizio, Biktoriano Iraola, Luis Iza eta Agirre. Klaudio Otaegi, Antonio Arzak, Manuel A. Antia, Felipe Arrese Beitia, Jose Manterola... Eta aien artean, Pedro Migel Urruzuno.

Antea Sebastian

Mendiburu

Egurak, illargi ta

Supbat izar eser

Alaba ezarute.

Taura milla bider.

<sup>1o</sup> Antea ederrak dauden <sup>2o</sup> begira nola daukan

berrian odevata: Gori, be, ta inguru.

ber ditugus aditzen. Konta al baño ere

tingeruen deyak: Beyago aingeru.

ber dia sümü eia Eskimiar millaka

konta aün alayak: Palma eta koru.

Oh! balapit: diturte Tra nola dagoan

Pesta ehit andiyak. Antea Mendiburu

Egurak <sup>3o</sup> 2: b

tronu eser bat dute Aroz Euskal-erria.

bernan apaindu. Aroz, ru, Oyarrun,

Sebastian jantzeko Gya rure semea

Taurak du agindu; Bragutren derun.

Bri irabarteko iOh! Zepabat sümü eia

Berak. Ber egin du. Zepabat edertasun.

Bertuterko bidelan Orrelakorik ez da

Berziei gaindu. Ekusi, ez entzun.

Egurak <sup>4o</sup> 2:

5  
Jesuiten setana  
loturik gerriam,  
Predikatu zenduan  
Tuk euskal-errian  
Sutu Jesusen biyote  
Temorer errian.

Orren sarigan raude  
Gerruen erdiyan.

6  
Esperanza gurzija  
Barkagu jarrija,  
Eugan iok gure aita  
Eh maita garrija,  
Gran raitelen gure  
Eimundu-arrija,  
Erik maiteen deruna  
Sa baskal-erria.

Pedro Miguel de Urruzuno

Mendavon 1882-garren urteko Urtaillaren 5.ian



## Josepatxoren ametsa

---

Amets bat egiñ det bart,  
zenbat dedan goza,  
kabitu eziñikan  
barrunian poza!  
Banua esatera  
dan bezala gauza,  
bada bestela lertu  
bear zait biotza.

Eldurik tronu eder  
aren egalera,  
abiyatu naitzaio  
egan magalera;  
baña begiratzian  
azpiko aldera,  
airian gelditu naiz  
ez goi ta ez beera.

Usu biurturikan  
igo naiz zerura,  
tronurik ederrenen  
baten ingurura;  
gauza arrigarriak  
datozkit burura,  
zer da, nire maiteak,  
leku eder ura?

Bere jantzi guzia  
arrigarri fiña,  
nor ote da ekusten  
dedan serafiña?  
Tronuaren oñean  
an dago Fermiña,  
gure ama txit maite  
eta atsegiña.

Izarrez estaliya  
tronu goi-urdiña,  
eguzkiyaz jantzia  
ango Erregiña;  
oñetan odei eder  
aiñ ondo egiña,  
nun ezagutu nuan  
Maria Birjiña.

Biotz beretik dauka  
Mariak jarriya  
Fermiñaren aora  
ai zer iturriya!  
Amorezko ur gozo  
ain gustagarriya,  
zerua irabazten  
dutenen sariya.

Ondoren eman dizu  
Mariak laztana,  
utzitzen zaituala  
ederturik dana;  
biurturik zerutar  
guziak zugana,  
«Nor da? –galdetzen dute–  
aiñ ederra dana?».

Oso pozgarriya zan  
gabeko ametsa,  
ai zer pena egia  
izan bear eza!  
Nere aldetik ezer  
egiñ al baneza,  
eskatu det gogotik  
entzutian meza.

Gatoz zure umeak  
guziok bat-bana,  
poz-pozik erantzunaz:  
«Au da gure Ama;  
buruan koroia ta  
eskuetan palma,  
edertasun guzia  
berek in darama».

O, Ama maitea, gaur  
da zure eguna,  
aspaldian gogoan  
iduki deguna;  
agertu nai nizuke  
osoro barruna,  
asko mesederen naiz  
zukanontz zorduna.

*Drist... drist...* egiten zizun  
zerbaitek koroian,  
danak zuri begira  
zeuden zeru-goian;  
pozez txoro egiñik  
nenguan sasoiñ,  
esnaturik, au pena!,  
arkitzen naiz oiñ.

Zoriontasunaren  
beti gabiltz billa,  
Jaungoikoak dizula  
bendizio milla;  
zeruan berriz goien  
arkitzen dan silla  
opa dizut, ta ala  
gertatu dedilla.

1882-ko Uztaillaren 7-an.

**P. M. de Urruzuno**

*Euskal-Erria*, 1882

*Ez dago zu partzeko  
mundu ontan urik,  
ez eta pagatzeko  
bear dan dirurik.*

Mendaro dezu ama  
ta jaioterria,  
arkaitz baten azpitik  
berriz jatorria;  
iru zulotatikan  
dator iturria,  
Pliniok berak digu  
ematen berria.  
*Ez dago...*

Esan ezin adinbat  
ur presku garbia,  
kristal piñena ez da  
zu bezin argia;  
zure bañuak dute  
pizkortzen nagia,  
askorentzat legoke  
emen lantegia.  
*Ez dago...*

Egia dan bezala  
nai dizut aitortu:  
zenbait aldiz oi zera  
osoro agortu.  
Gogoak dizunian  
atzera agertu,  
bazterrak ez ditezen  
guziro legortu.  
*Ez dago...*

Ordu laurden bateko  
bidea ibaira  
dezula, bitartian  
lau errot badira;  
guziak Kilimonen  
uraren begira,  
amabi arri dabiltz  
jira eta bira.  
*Ez dago...*

Errotaz gañera len  
zinduzen bi ola:  
aurrena Lasalde ta  
gero Gabiola;  
sarritan aditu det  
jendeak diyola  
Jaunak ur oni eman  
indarra ziola.  
*Ez dago...*

Diyote Kilimongo  
arbolen itzala  
bizia luzatzeko  
ona agitz dala;  
esan dedan kontu au  
baldin balitz ala,  
uste det luzaroan  
biziko naizala.  
*Ez dago...*

Erritarrentzat dira  
zure probetxuak,  
zer moduz ditzakete  
Mendaron atxuak  
iñon ezin bezala  
egin bizkotxuak?  
Grazi au du zure ur  
garbi preskotxuak.  
*Ez dago...*

Bañu-etxe bat emen  
al baledi egiñ,  
guziontzat izango  
litzake atsegiñ,  
bizia luzatzeko  
egiñaz alegiñ,  
nork ez luke etorri  
naiko urtian beñ?  
*Ez dago...*

Piñak dira mantentzen  
dituzun arraiak,  
aiñ ederrak aingirak  
nola amurraiak;  
arrantzan dizkitzute  
billatzen erraiak,  
lan onetan badira  
Mendaron ernaiak.  
*Ez dago...*

Arkaitzak ematen du,  
geienian samur,  
erri guzi-guzian  
bear ainbat dan ur;  
ibaira eldu arte  
or dijua mur-mur,  
esanaz: «Ni banua,  
agur, agur, agur».  
*Ez dago...*

Zure berri baleki,  
Kilimon, munduak,  
urrez beterik emen  
lirake manduak,  
egiteko jauregi  
eder apainduak;  
aurki dituzu bada  
danok zuganduak.  
*Ez dago...*

Nork daki zoriona  
gizonak nun duan?  
Beti dago txit giro  
zure ur onduan;  
udan presko-presko ta  
epeltxo neguan,  
Kilimonen parerik  
ez dago munduan.  
*Ez dago...*

**P. M. de Urruzuno**

1882-ko Urriaren 11-n

Urruzunoren esku-idatzia,  
Julio Urkijoren liburutegian  
gordetzen dana.

*Euskal-Erria*, 1882

*Urruzuno 'tar P. M'en ipuiak*,  
Lenengo idatzia, Iruña'n, 1930

*Bertsolariya*, 1932-VII-3

## Kilimonigo itur-errakate

	1 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup>
	4 <sup>o</sup>	5 <sup>o</sup>	6 <sup>o</sup>
	7 <sup>o</sup>	8 <sup>o</sup>	9 <sup>o</sup>
	10 <sup>o</sup>	11 <sup>o</sup>	12 <sup>o</sup>
	13 <sup>o</sup>	14 <sup>o</sup>	15 <sup>o</sup>
	16 <sup>o</sup>	17 <sup>o</sup>	18 <sup>o</sup>
	19 <sup>o</sup>	20 <sup>o</sup>	21 <sup>o</sup>
	22 <sup>o</sup>	23 <sup>o</sup>	24 <sup>o</sup>
	25 <sup>o</sup>	26 <sup>o</sup>	27 <sup>o</sup>
	28 <sup>o</sup>	29 <sup>o</sup>	30 <sup>o</sup>
	31 <sup>o</sup>	32 <sup>o</sup>	33 <sup>o</sup>
	34 <sup>o</sup>	35 <sup>o</sup>	36 <sup>o</sup>
	37 <sup>o</sup>	38 <sup>o</sup>	39 <sup>o</sup>
	40 <sup>o</sup>	41 <sup>o</sup>	42 <sup>o</sup>
	43 <sup>o</sup>	44 <sup>o</sup>	45 <sup>o</sup>
	46 <sup>o</sup>	47 <sup>o</sup>	48 <sup>o</sup>
	49 <sup>o</sup>	50 <sup>o</sup>	51 <sup>o</sup>
	52 <sup>o</sup>	53 <sup>o</sup>	54 <sup>o</sup>
	55 <sup>o</sup>	56 <sup>o</sup>	57 <sup>o</sup>
	58 <sup>o</sup>	59 <sup>o</sup>	60 <sup>o</sup>
	61 <sup>o</sup>	62 <sup>o</sup>	63 <sup>o</sup>
	64 <sup>o</sup>	65 <sup>o</sup>	66 <sup>o</sup>
	67 <sup>o</sup>	68 <sup>o</sup>	69 <sup>o</sup>
	70 <sup>o</sup>	71 <sup>o</sup>	72 <sup>o</sup>
	73 <sup>o</sup>	74 <sup>o</sup>	75 <sup>o</sup>
	76 <sup>o</sup>	77 <sup>o</sup>	78 <sup>o</sup>
	79 <sup>o</sup>	80 <sup>o</sup>	81 <sup>o</sup>
	82 <sup>o</sup>	83 <sup>o</sup>	84 <sup>o</sup>
	85 <sup>o</sup>	86 <sup>o</sup>	87 <sup>o</sup>
	88 <sup>o</sup>	89 <sup>o</sup>	90 <sup>o</sup>
	91 <sup>o</sup>	92 <sup>o</sup>	93 <sup>o</sup>
	94 <sup>o</sup>	95 <sup>o</sup>	96 <sup>o</sup>
	97 <sup>o</sup>	98 <sup>o</sup>	99 <sup>o</sup>
	100 <sup>o</sup>	101 <sup>o</sup>	102 <sup>o</sup>
	103 <sup>o</sup>	104 <sup>o</sup>	105 <sup>o</sup>
	106 <sup>o</sup>	107 <sup>o</sup>	108 <sup>o</sup>
	109 <sup>o</sup>	110 <sup>o</sup>	111 <sup>o</sup>
	112 <sup>o</sup>	113 <sup>o</sup>	114 <sup>o</sup>
	115 <sup>o</sup>	116 <sup>o</sup>	117 <sup>o</sup>
	118 <sup>o</sup>	119 <sup>o</sup>	120 <sup>o</sup>
	121 <sup>o</sup>	122 <sup>o</sup>	123 <sup>o</sup>
	124 <sup>o</sup>	125 <sup>o</sup>	126 <sup>o</sup>
	127 <sup>o</sup>	128 <sup>o</sup>	129 <sup>o</sup>
	130 <sup>o</sup>	131 <sup>o</sup>	132 <sup>o</sup>
	133 <sup>o</sup>	134 <sup>o</sup>	135 <sup>o</sup>
	136 <sup>o</sup>	137 <sup>o</sup>	138 <sup>o</sup>
	139 <sup>o</sup>	140 <sup>o</sup>	141 <sup>o</sup>
	142 <sup>o</sup>	143 <sup>o</sup>	144 <sup>o</sup>
	145 <sup>o</sup>	146 <sup>o</sup>	147 <sup>o</sup>
	148 <sup>o</sup>	149 <sup>o</sup>	150 <sup>o</sup>
	151 <sup>o</sup>	152 <sup>o</sup>	153 <sup>o</sup>
	154 <sup>o</sup>	155 <sup>o</sup>	156 <sup>o</sup>
	157 <sup>o</sup>	158 <sup>o</sup>	159 <sup>o</sup>
	160 <sup>o</sup>	161 <sup>o</sup>	162 <sup>o</sup>
	163 <sup>o</sup>	164 <sup>o</sup>	165 <sup>o</sup>
	166 <sup>o</sup>	167 <sup>o</sup>	168 <sup>o</sup>
	169 <sup>o</sup>	170 <sup>o</sup>	171 <sup>o</sup>
	172 <sup>o</sup>	173 <sup>o</sup>	174 <sup>o</sup>
	175 <sup>o</sup>	176 <sup>o</sup>	177 <sup>o</sup>
	178 <sup>o</sup>	179 <sup>o</sup>	180 <sup>o</sup>
	181 <sup>o</sup>	182 <sup>o</sup>	183 <sup>o</sup>
	184 <sup>o</sup>	185 <sup>o</sup>	186 <sup>o</sup>
	187 <sup>o</sup>	188 <sup>o</sup>	189 <sup>o</sup>
	190 <sup>o</sup>	191 <sup>o</sup>	192 <sup>o</sup>
	193 <sup>o</sup>	194 <sup>o</sup>	195 <sup>o</sup>
	196 <sup>o</sup>	197 <sup>o</sup>	198 <sup>o</sup>
	199 <sup>o</sup>	200 <sup>o</sup>	201 <sup>o</sup>
	202 <sup>o</sup>	203 <sup>o</sup>	204 <sup>o</sup>
	205 <sup>o</sup>	206 <sup>o</sup>	207 <sup>o</sup>
	208 <sup>o</sup>	209 <sup>o</sup>	210 <sup>o</sup>
	211 <sup>o</sup>	212 <sup>o</sup>	213 <sup>o</sup>
	214 <sup>o</sup>	215 <sup>o</sup>	216 <sup>o</sup>
	217 <sup>o</sup>	218 <sup>o</sup>	219 <sup>o</sup>
	220 <sup>o</sup>	221 <sup>o</sup>	222 <sup>o</sup>
	223 <sup>o</sup>	224 <sup>o</sup>	225 <sup>o</sup>
	226 <sup>o</sup>	227 <sup>o</sup>	228 <sup>o</sup>
	229 <sup>o</sup>	230 <sup>o</sup>	231 <sup>o</sup>
	232 <sup>o</sup>	233 <sup>o</sup>	234 <sup>o</sup>
	235 <sup>o</sup>	236 <sup>o</sup>	237 <sup>o</sup>
	238 <sup>o</sup>	239 <sup>o</sup>	240 <sup>o</sup>
	241 <sup>o</sup>	242 <sup>o</sup>	243 <sup>o</sup>
	244 <sup>o</sup>	245 <sup>o</sup>	246 <sup>o</sup>
	247 <sup>o</sup>	248 <sup>o</sup>	249 <sup>o</sup>
	250 <sup>o</sup>	251 <sup>o</sup>	252 <sup>o</sup>
	253 <sup>o</sup>	254 <sup>o</sup>	255 <sup>o</sup>
	256 <sup>o</sup>	257 <sup>o</sup>	258 <sup>o</sup>
	259 <sup>o</sup>	260 <sup>o</sup>	261 <sup>o</sup>
	262 <sup>o</sup>	263 <sup>o</sup>	264 <sup>o</sup>
	265 <sup>o</sup>	266 <sup>o</sup>	267 <sup>o</sup>
	268 <sup>o</sup>	269 <sup>o</sup>	270 <sup>o</sup>
	271 <sup>o</sup>	272 <sup>o</sup>	273 <sup>o</sup>
	274 <sup>o</sup>	275 <sup>o</sup>	276 <sup>o</sup>
	277 <sup>o</sup>	278 <sup>o</sup>	279 <sup>o</sup>
	280 <sup>o</sup>	281 <sup>o</sup>	282 <sup>o</sup>
	283 <sup>o</sup>	284 <sup>o</sup>	285 <sup>o</sup>
	286 <sup>o</sup>	287 <sup>o</sup>	288 <sup>o</sup>
	289 <sup>o</sup>	290 <sup>o</sup>	291 <sup>o</sup>
	292 <sup>o</sup>	293 <sup>o</sup>	294 <sup>o</sup>
	295 <sup>o</sup>	296 <sup>o</sup>	297 <sup>o</sup>
	298 <sup>o</sup>	299 <sup>o</sup>	300 <sup>o</sup>

10	11	12
Et kaitrak ematen du	Zure borri baleki	Wort daki. 2 on.
Seiemar sameur	Kilimoni munduak	62 onak mun duan
Borri guri-gucian	Orzer biterik emen	Beti dago ehit gero
So car aibat lan ur	Lirake manduak	Zure ur-on dancan
6 bawra e bdn arte	Egitko jauragi	Udan prestko-prestko
Uu deya, mar, mun.	6 ber apainduak	Epoleko nequak
6 onca "mi banna,	6 burki ditura baba	Kilimoni en parorit
Agur, a gur. a gur.	Damak ruganduak.	6 dago munblucan
6 dago &c.	6 dago &c.	6 dago

P. M. de Urruzuno

1882. K. Urruzunoren H.

Pedro Migel Urruzunoren esku-idatzia.

## Ama Birjiñaren igoera zerura

---

*Deitzen digu egun  
onetan Mariak,  
guazen, kanta ditzagun  
beraren gloriak.*

Ama guztiz maitea,  
emen bildu gera  
zure seme-alaba  
guziok batera;  
kantatu nai genduke,  
arturikan era,  
lurretikan zerura  
zure igoera.  
*Deitzen...*

Izar ederrez daude  
beterik zeruak,  
aetatik lurrera  
orra aingeruak,  
illeran jarririkan  
bedratzi koruak,  
dardaratuaz ai zein  
ederki eguak!  
*Deitzen...*

Gorputza obian ta  
anima zeruan,  
ill ondoan Maria  
onela zeguan;  
elkartu gabe ezin  
egon luzaruan,  
ikusiko da iru  
egunen buruan.  
*Deitzen...*

Mariaren anima  
ondo egon arren,  
gloriaz beterikan  
orra non datorren  
billa illik dagoen  
bere gorputz orren,  
zeruan lagun izan  
ditezen elkarren.  
*Deitzen...*



Jesus bera're nola  
datorren begira,  
Amaren gorputz illa  
dagoen obira.  
O aingeru santuak,  
jo zazute lira!  
Zuen soñu eder ta  
katak noizko dira?  
*Deitzen...*

Jesusek arturikan  
besoetan Ama,  
aingeruen erdian  
zerura darama;  
ara kontatu ere  
eziñ ainbat palma,  
zeru-lurak kantatzen  
dute zure pama.  
*Deitzen...*

Gorputz eta anima  
elkarturik biak,  
serapiñ bat diruri  
pizturik Mariak;  
Jaunak egin dizkio  
grazi ugariak,  
poztu zaitezte, justu  
ta pekatariak.  
*Deitzen...*

Mariak egitean  
zeruan sarrera,  
an daudenak diyote:  
«Zeiñ da aiñ ederra?  
Jaunak bedeinka beza  
zure etorrera,  
gurekin bizitzeko  
emendik aurrera».  
*Deitzen...*

Zuk ainbat edertasun  
ez du illargiak,  
eguzkia diruri  
zure arpegiak  
izarrak berak beziñ  
ederrak begiak,  
Jaunak egin ditu, bai,  
zukan mirariak.  
*Deitzen...*

Begira nola diran  
zeruetan ari,  
batzuek soñu jotzen,  
bestiak kantari;  
agur egiñaz danak  
Birjiña Santari,  
jartzen dute zeruan  
ango agintari.  
*Deitzen...*

Irutasun santuak  
zaitu koroatu,  
aingeru ta santuaz  
gañetik goratu;  
zure doai guziak  
nola gogoratu?  
Zuri begira iya  
pozaz naiz zoratu..  
*Deitzen...*

Agur, Ama maitea,  
ta arren aditu,  
etsaiak gu galtzeko  
milla asmo ditu;  
anima ez dezagun  
pekatuaz loitu,  
zeruan zaitte guzaz  
sarritan oroitu.  
*Deitzen...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
1882-ko Urriaren 11-n.  
Urruzunoren esku-idatzia,  
Julio Urkijoren liburutegian  
gordetzen dana.  
*Euskal-Erria*, 1882.

Suma - Berjinarren igoera cerura.


Beitzen digu egun  
Onetan emanak  
Suacem, kanta ditragun  
Beriarren gloriant.

<p>1</p> <p>Alma guciz maita Bizen bilda gero, Lure seme-alaba Buzio batera; Kantatu nai gendite Berturikan Eva Leurretik cerura Lure igoera. Beitzen 1<sup>o</sup></p> <p>2</p> <p>gorputza obira ta Animu ceruan, Al-ondoa. Maria Bela eguan; Kantatu gabe cin Lure igoeran Kusiko da irm Egunen buruan. Beitzen 2<sup>o</sup></p> <p>3</p> <p>Ala edorrez dandi Berik ceruak, Kantatik lurrera Lure amgeruak; Berian jarririk Beratzi ceruak Lauratuar jayem Berik eguak. Beitzen...</p>	<p>4</p> <p>Mariaren anima Ondo egun arrer, Beriaz beterikan Orra non datorren; Billa illik dagoen Pere gorputz obrer, Ceruban lagun izan Beitzen elkarren... Beitzen...</p> <p>5</p> <p>Jesus betarre nota Datorren begira, Imaren gorputz illa Dagoen obira Oti amgeru santuak. Jor abute lura Lure süm eder ta Cantak notako diru. Beitzen...</p> <p>6</p> <p>Lorputz eta anima Bikarturik biak Serapiñ bat diruñ Berturik Mariak; Tamañ egin dirker Braci ugariak Berki raitetke justu Berki eguak. Beitzen...</p>	<p>7</p> <p>Zuk ambat edortasun Ber diez ilongioak, Egurkia diruñ Lure arpegioak, Barrak berak becin Ederra begiak, Tamañ egin ditu bay Lagan inorriak. Beitzen...</p> <p>8</p> <p>Jesusek berturikan Bezetan ama, Bergerren erdian Cerura daranna, Eva beriatu ere Bizi ambat palma, Beru-lurra kantatzen Bute zure pama. Beitzen...</p> <p>9</p> <p>Bianak egitean Beran barrera, Ber dandona korigote; Ber da am ederra, Tamañ bedekaba ber Lure etorrera, Berrek berkerko Bizen dik aurrua. Beitzen</p>
---	--	---

Pedro Migel Urruzunoren esku-idatzia.

<p>10          Begina nola riban          Coruetan air          Batsuet som-jotien          Betsiak Kantan          Egur eginar danak          Bepina santan,          Bartzan dute ceruon          Engo agintari          Beizen -</p>	<p>11          Inubasin santan          2 autu coruatu          Bingeru ta santan          Batsuet gorata          Zure doai geroak          Hola go goratu          Zuri bejera iya          Porar nar coratu          Beizen -</p>	<p>12          Ayur am          Fa orren          Etaruk jugata          Halia asma de          Anima ez de          Pekamar loifi          Ceruon 2 autu          Sarritan orre          Beizen -</p>
---	--	--

Pedro Miguel de Urruzuno

  
1882ko urtarraren 11<sup>a</sup>

Pedro Migel Urruzunoren esku-idatzia.

## Jesus jaio berriari

---

*Soñu ederrak joaz  
bidian astera,  
Belen aldera goaz  
Jesus ikustera.*

Oskarbi dagoala,  
izarren argian,  
artzai batzuek dira  
ageri mendian;  
gaxoak erne daude  
ardura andian,  
aingeru bat jua zaie  
gabaren erdian.  
*Soñu ederrak joaz...*

Aurtxo jaio berria  
or larru gorrian,  
aingeruak kantari  
dauzkatzu aurrian:  
«Gloria Jainkoari  
zeru ederrian,  
borondate on dunai  
pakea lurrian».  
*Soñu ederrak joaz...*

«Poztu, artzaiak, poztu!  
—aingeruak diyo—,  
Belengo estalpian  
dala Jesus jayo;  
mendietan barruna  
oju ta lekayo,  
joanik adoraziyo  
eman bear zayo».  
*Soñu ederrak joaz...*

Orra nola dituan  
Jesusen jaiotzak  
biziro alegratu  
artzaien biotzak;  
dijoaz, galtzar-pean  
arturik bildotsak,  
Belengo estalpera  
geiegizko pozak.  
*Soñu ederrak joaz...*

Estalpeko idi ta  
astoaren aska,  
orra biurturikan  
Jesusen siaska;  
lasto batzuek berriz  
koltxoetzat dauzka,  
andikan guzioi  
dagokigu otska.  
*Soñu ederrak joaz...*

Aur gaxoa sufritzen  
dago dar... dar... otzak,  
alkar joaz oñ-esku,  
papar ta okotzak;  
ala ere gugatik  
irri-parrez pozak,  
beregandu nai dizku  
guzion biotzak.  
*Soñu ederrak joaz...*

Mendaron 1882-ko Abenduaren 16-an.

**Pedro Miguel de Urruzuno**

*Euskal-Erria*, 1882.

*La Baskonia*, 1908.

## Iru Erregeen adorazioa

---

*Iru Errege Meltxor,  
Baltasar ta Gaspar,  
Belen aldera pizkor  
dijoaz ta azkar.*

Izar guziz argi bat  
ara sortaldian,  
aiñ ederrik ikusi  
ez da aspaldian;  
iru errege datoz  
jarraika bidian,  
juduen errege non  
jaio dan galdian.  
*Iru errege...*

Gauza arrigarriak  
arkitu dituzte,  
Jesus aiñ pobre zanik  
etzuten, ez, uste.  
O, zeru eta lurrak,  
arritu zaitezte!  
Iñork ez gaitu maite  
Jesussek ainbeste.  
*Iru errege...*

Izarra ezkutatu  
da Jerusalemen,  
berriz agertu andik  
atera bezin len;  
gelditurik estalpe  
gañian Belenen,  
«Zeruko Erregea  
dago –diyo– emen».  
*Iru errege...*

Seaskatzat aska bat,  
koltxoitzat lastuak,  
bere oñ-eskutxuak  
osoro oztuak;  
zerbait berotu arren  
idi ta astuak,  
nola bizi gindezke  
onezaz aztuak?  
*Iru errege...*

Intzenu, urre, mirraz  
beterik eskuak,  
Jesusi eskeñiaz  
Errege prestuak,  
ara nola lurrian  
dauden auspeztuak,  
zerutar danak berriz  
oiei poztuak.  
*Iru errege...*

Jesusek dizkitzute  
entzun erreguak,  
esan al baño garbi  
ta ederraguak;  
bedeinkatuaz zuen  
asmo ta goguak,  
agur, zorioneko  
errege maguak.  
*Iru errege...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
1882-ko Abenduan.  
*Euskal-Erria*, 1882.



**Aldareko sakramentu  
guziz santuari**  
*Pange, lingua euskeraz*

---

Kanta dezagun mingañaz  
gorputz orren gloria,  
adoratu alegiñaz  
odol aiñ ugaria,  
pekatuaren ordañaz  
Jesusek ixuria.

Guretzat zan jaio izan  
Ama zala Birjiña,  
erakusten bizitu zan  
zerurako dotriña,  
eriotzan berriz esan  
eziñ zein atsegiña!

Azkenengo afarian  
anaiekiñ jarriya,  
legea kunplitu naian,  
orra zer mirariya:  
Bera biyurtu da maian  
besteen janariya!

Jaungoiko-gizonak bere  
gorputz egiñ ogia,  
gañera ardoa ere  
odol, o zer egia!  
Sinisteko orra gure  
fedearen argia.

Andia da sakramentu  
aiñ beneragarria,  
kendurikan testamentu  
zarra, jarri berria;  
fedea da adimentu  
gureen giaria.

Sortzalle ta sortuari  
alabantz pozgarria,  
bedeinkazio ugari  
birtuteen loria,  
biyen amoriyuari  
berdiñeko gloria. *Amen.*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
1883-ko Otsaillian.  
*Euskal-Erria*, 1883.  
*Euskalzale*, 1897-VI-24

## Ama Doloretakoari

---

*Errukiturik, Zeruko Ama,  
zure dolore samiñaz,  
nere biyotza penak darama  
zuanontz negar egiñaz.*

Anima triste, biyotza penaz  
beterik nator zugana,  
nerez utsa naiz, Ama maitea,  
zugandik bear det dana;  
indazu arren grazia oso  
gogor eskatzen dedana,  
kanta ditzadan zure dolore  
zazpirak, danak bat-bana.  
*Errukiturik...*

Nolabait ere salbatutzeko  
Aurtxo Jesusen biziya,  
ikusten zaitut Ejiptorako  
oraiñ bidian asiya;  
Aurra besoan, denbora otza,  
bide txarra ta luzia,  
ai, zein samiña izan zitzaitezun  
sufritzea au guzia!  
*Errukiturik...*

Simeonek dizu aurrez agertu  
zure Jesusen eriotza,  
nola ikusi bear zenduen  
gurutze baten ill-otza;  
berri au bai da, ai, nere Ama!,  
ezpata guziz zorrotza,  
erdi-erditik penaren andiz  
zatitu dizu biyotza.  
*Errukiturik...*

Jerusalenen Jesus gelditu  
eta bazuaz etxera,  
palta zaitzunik arterañoan  
konturatutzen etzera;  
iru egun ta iru gaubetan  
billa irtenik atzera,  
penaren penaz, ai, Ama ona!,  
iya bazatoz iltzera.  
*Errukiturik...*

Amargurako kaliañ Jesus  
arantzaz koroatua,  
gurutze-pean, bi lapur eta  
etsaiez inguratua,  
ikusten dezu, Ama tristetá!,  
Seme aiñ adoratua;  
atsekabeak nola etzaitu  
uzten oso zoratua?  
*Errukiturik...*

Gurutz ondora zugana nator  
Kalbarioko mendira,  
Jesus ikustez an illik dator  
negarra nere begira;  
miñaren miñaz baldin arkaitzak  
berak puskatzen badira,  
nola zaude zu, Jesusen Ama,  
nola, zu ari begira?  
*Errukiturik...*

Ildako bat ta naiz bere amaz  
edozeñek du erruki,  
zure Semea gurutzan illaz  
kontu au ez da iduki;  
soldadu batek lantzadaz dio  
bere saietsa idiki,  
ta zuri berriz golpe berakin  
biyotza zaizu ebaki.  
*Errukiturik...*

Laztanez bete ondoan zure  
Semearen arpegia,  
obi batian sartutzen dute  
gorputz adoragarria;  
azken agur au ez da zuretzat,  
Ama, pena txit andia?  
«Bai, nere seme pekataria,  
niretzat da geiegia».  
*Errukiturik...*

Bakardadian zuri nai dizut,  
nere Ama, egin lagun,  
aldendu gabe zugandik beti  
egoteko gau ta egun;  
Jesus zurekin maitatutzea  
orra danok zer nai degun:  
zeruan beti-beti gloriya  
biyokin izan dezagun.  
*Errukiturik...*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**  
1882-ko Martxoan.  
*Euskal-Erria*, 1883.

---

<sup>1</sup> *Euskal-Erria* aldizkarian au, nere Ama dago idatzita. Gure iritzirako ai, nere Ama bear du, laugarren bertsoan irakurtzen dan bezela.

## Aita San Joserren gozuak

---

*Indazu, Jose, kontuz  
grazi ugaria,  
alabatzeko kantuz<sup>1</sup>  
zu eta Maria.*

Espiritu Santuak  
egiñik itzala,  
Mariagan Jainkoa  
gizon egin zala,  
jakiñik aingeruak  
ziyuan bezala,  
zure atsegiña zan  
esan eziñ ala.  
*Indazu...*

Jakitean ipiñi  
ziyoten izena,  
aingeruak esanik  
zala Jesusena;  
au zala salbatuko  
danok giñuzena,  
beste danen artian  
ziñan zu pozena.  
*Indazu...*

Jesus jaio berria  
segidan Belenen  
adoratzera ziran  
artzaiak juan lenen;  
ikustian zertara  
etorri ziraden,  
pozaz esan ziñien:  
«Ona Jesus emen».  
*Indazu...*

Sazerdotiak berak  
zuenian esan:  
Aurtxo orrek zer izen  
bear zuen izan,  
zure biyotza pozez  
saltoka asi zan.  
Nor zori obekorik  
lurreko bizitzan?  
*Indazu...*

---

<sup>1</sup> Lerro ontan *kontuz* irakurtzen da *Euskal-Erria* aldizkarian. Baiña dudarik ez da *kantuz* bear duala

Arkitzen ziñalarik  
iñongo errian,  
Ejipton, ikustian  
begiyen aurrian  
gezurrezko jainkoak  
boteak lurrian,  
pentsamentuaz zaude  
zeru ederrian.

*Indazu...*

Jerusalengo tenplu  
aundi ederrian,  
ara Jesus jakintsu  
guzien erdian,  
erakusten diyela  
izkuntza garbian  
bere dotriña, modu  
txit arrigarrian.

*Indazu...*

Aingeru bat zerutik  
jetxirik zugana,  
esaten dizu Jaunak  
deseo duena:  
Judeara juatea  
zala obeena;  
berri txit gozua da  
aingeru orrena.

*Indazu...*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**  
1882-ko Martxoan.  
*Euskal-Erria*, 1883.

«Jaungoiko-gizona...»

*Sacris solemnii*

bezala kantatzeko itz neurtubak

---

Jaungoiko-gizona,  
gureztat txit ona,  
aingeruben mana,  
zerutik gugana  
etorri zerana,  
zuri biyotz bana  
eskeintzera gatoz, Jauna.

Ai, Jesus laztana!  
Nor da kapaz dana  
eltzeko zugana?  
Jaungoikozko jana  
gureztat emana;  
auxe, bai, da lana:  
nai ainbat eziñ esana...

Jaungoiko ber-bera  
zerutik lurrera,  
gizonen urrera;  
zure etorrera  
oso da ederra;  
emendik aurrera  
zorionekoak gera.

Jaun gloriosua,  
Aita txit gozua,  
biyotzen lazua,  
luzatu besua,  
eltzian plazua,  
zerura jasua  
arki nadiñ doatsua.

Amoriyo fiña,  
mirari egiña,  
ai zer atsegiña!  
Ojala bagiña  
maitatzeko diña  
ongille aiñ fiña,  
berak merezi adiña!

O bildots umilla,  
aiñ ixill-ixilla,  
gurutzean illa;  
beti gure billa,  
zuri esker milla;  
zerura nadilla,  
ala gertatu dedilla. *Amen.*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**

*Euskal-Erria*, 1883.

*Euskaldunen eliz-cantac*,

Bilbon, 1906.

## Mariari

---

Agur, Birjiña,  
zeru ederren,  
baita're lurren,  
Erregiña.

Gozotasuna  
gure zauriyen,  
pekatariyen  
osasuna.

Gure bizitza  
beti negarrez,  
zuri deadarrez  
gu gabiltza.

Etzaite egiñ  
guretzat gorra,  
errukikorra  
zera berdiñ.

Zera, Maria,  
mundu onetan  
gure penetan  
pozgarria.

Ama atsegiñ,  
biyotz beraa,  
txit ondo gera  
gu zurekiñ.

Zure begiak  
dirade asko  
bendiziozko  
iturriak.

Gure biyotzak  
zuri begira  
arkitzen dira  
beti pozak.

Zaiguzu eutsi  
zuk zure eskuz,  
azkenik Jesus  
erakutsi.

Guzaz erregu,  
Ama maitea,  
zuk egitea  
bear degu.

Gaitzatzu artu  
uztean lurra,  
eta zerura  
zuzen sartu.

Zurekiñ emen  
bizi ezkeru,  
glorian gero  
beti. Amen.

**Urruzuno-ko Pedro Migel-ek**  
1883-ko Apirillian.  
*Euskal-Erria*, 1883.

## Neska-mutil zarrak

---

–Ezurretan guri ta  
mamitan igarra,  
kastuaren beldurrez  
utzirik bizarra;  
txoriak bildurtzeko  
ez litzake txarra,  
orra nolakoa dan  
gure mutil-zarra.

–Neska zarrak deitzen  
dira orain damak,  
naiz da izan ainbeste  
urte nola amak;  
zarraren zarrez iya  
egiñik eskamak,  
ala ere poztutzen  
ditu eder-pamak.

–Poltsa zerbait betia  
baña txit estua,  
zekenkerian berriz  
biziro prestua;  
beste etsairik ez du,  
bakarrik kastua,  
lagunik maiteena  
du bere astua.

–Moja juango lirake,  
ezkondu ere bai,  
baña arantzarikan  
iñola're ez nai.  
Eta egongo dira  
beti orrela gai?  
Zer uste dute bada  
damatxuak, ja-jai?

–Beñere galdu gabe  
dago esperantza,  
arkituko duela  
andre aberatsa:  
emango balitzaio  
aora beatza,  
legorretikan luke  
egingo arrantza.

–Eleizako santuaz  
norbaitek erruki,  
otzaz ill ez ditezen,  
bear du iduki;  
neska-zarrak jantziko  
dituzte ederki,  
oiek zertako diran  
orra erabaki.



–Bi aldiz porru-salda  
artu egunian,  
gañera meretzina  
konbeni danian,  
au da, odol-kolpiak  
jotzen duenian;  
bestela beti dago  
osasun onian.

–Mundu danak oiezaz  
egiten du parra,  
ez da naigabe gutxi  
sufritu bearra;  
edozein umek diyo:  
«Orra neska-zarra»,  
gauza ona bada're  
izena da txarra.

–Ekarri bear bada  
etxera jaboia,  
garesti dagoala  
mur-mur-mur sermoia;  
urtian ontz-erdi bat  
artzen du doi-doia,  
gorputz guzian dauka  
egiña erdoia.

–Inoren illiak  
palta berriz ortzak,  
alkar jo bearrian  
sudur ta okotzak;  
negua igarotzen  
dute dar-dar otzak,  
osoro beldurtzen nau  
oien ezur-otsak.

–Iru ontza lodi du  
lepo edo sama,  
tisikuen itxura  
berekin darama;  
munduan zabaldua  
dago bere pama,  
ondo biziko da au  
artzen duan dama.

–Koloriak gorritzen  
egiñ alegiña,  
ekarririk kanpotik  
pintura txit piña;  
baña ezin estali  
erdoi ta zikiña,  
neska-zarren gaitza da  
edertu eziña.

**Dama batek. Mutil-zar batek.**  
1883-ko Apirillaren 21-ean.  
*Euskal-Erria*, 1883.

Ez da esaten bertso auker Urruzunorenak diranik. Baiña dudarik ez, gure iritzirako beintzat, arenak diranik.

Bertso auker txandaka kanta bear dira, leenengoa neskezarrak eta urrengoa mutilzarrak.

Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren esku-idatzi batean ere aurkitu ditugu bertso auker.

*Urruzuno tar P. M'en ipuiak*, Lenengo idaztia, Iruña'n, 1930. Baiña mutil zarraren bertsoak 42 orrialdean; eta neska zarrarenak 122-ean.

*Bertsolariya*: 1932-III-22-an: 2, 4, 6, 8, 10 eta 12-garren bertsoak; eta 1932-VIII-21-ean: 1, 3, 5, 7, 9, eta 11-garrenak.

## Neska-mutil zarrak

---

–Adi dezala Pepak  
dana dan bezala,  
beltza eta zimurra  
daukala azala;  
a, itxusia!, zure  
ustian ez ala,  
zu maitatzetik Jaunak  
aparta nazala.

–Zulo asko dituzte  
zure galtza zarrak,  
aiñ ugariyak nola  
zeruan izarrak;  
txaratzat okotzian  
dauzkatzun bizarrak,  
ardiak larratzeko  
ez dirade txarrak.

–Enbidiaz erretzen  
auzokoen onaz,  
mututuko etzera  
ixillik egonaz;  
galtzak kendu ta jantzi  
bear zera gonaz,  
damai utzi eta  
itz egiñ amonaz.

–Nere ustian dira  
bere belarriak  
astoari kendu ta  
damari jarriak;  
egi-egiaz dira  
ain beldurgarriak,  
nun oroitze utsaz  
artzen nau larriak.

–Kopeta illunakin  
sudurra zapala,  
begi gorriak eta  
aoa zabala;  
bere mustatx beltzakiñ  
badirudi dala  
gutxienaz Mariskal  
edo Jenerala.

–Alkandora zintzilik,  
bere koloria  
pondo zuria, baña  
pintura oria;  
bandera orrek beti  
berekina loria,  
Patxi guria dabill  
mutil dotoria.

–Besteren illiakiñ  
egiñik peluka,  
gaztaia estaltzeko  
modua badauka;  
estalgarrri eder au  
baldin ezpaleuka,  
ill-betian gaudela  
eziñ iñork uka.

–Aizetsua dalako  
gizajua lotsa,  
ixildu eziñikan  
artzeko su-otsa;<sup>1</sup>  
ederki arrotzen du  
bazterretan autsa,  
berebizikoa da  
onen auspo motza.

–Ez aserratu, Pepa,  
nire esaeraz,  
ez da nai dedan dana  
esatea erraz:  
txoraturikan zuzaz  
ederren ederraz,  
arren, adi itzatzu  
itztxo bi erderaz.

–Borondatiagatik  
zuri esker milla,  
saiatuko naiz beste  
galai baten billa;  
erderaz uste dezu  
zerala mutilla,  
nor geiago geraden  
ekusi dedilla.

–*Agur mío, madama,  
si quieres iscrivir,  
yo estao Sevilla  
caile Guadalquivir;  
los dos ezkonduando  
bien puedes vivir,  
uste no compormando  
yo me vas murir.*

–*De las damas muy bapas  
si tú quieres erreir,  
a tu agüela burlar  
ya te puedes ir;  
otra ninguna cosa  
no te puedo decir,  
porque ser tú burrico  
y yo te despedir.*

**Pako- Pepita**  
*Euskal-Erria, IX, 1883.*

Ez da esaten bertso auek ere norenak diran; baiña dudarik ez, guretzat beintzat, Urruzunorenak diranik.

Tolosako Timoteo Adurriagaren esku-idatzi batean ere aurkitu ditugu.

---

<sup>1</sup>Lerro ontan, bearbada, *atzeko* bearko luke.

## Josefatxo Jesusekin

---

Josefatxo zan bost urteko nexka txikitxo bat, eta zeukan bere gelan Aur Jesusen imajiñ guziz eder bat, zeñari esaten ziozkan gauza asko, ark erantzungo ziolakoan. Ikustian etziola ezer erantzuten berak ainbeste maite zuen Aurak, oso penaturik esan zion gau batian:

Beti maitatzen, nere maitia,  
beti zauzkat zu goguan,  
zuga pentsatzen gau eta egun,  
zuga uda ta neguan;  
jakiñ nai, baña galdetzen ezin  
atrebiturik nenguan,  
esan zadazu: maite al nazu?  
Esan zadazu beinguan.

Onetan loak artu zuan eta iduritu zitzaion Jesusek esaten ziola:

Uso zuria, lore ederra,  
aur biyotzeko maitia,  
biyotz nerian zabaldurikan  
daukazu beti atia,  
amore biguñ zureganakoz  
guzia bete-betia;  
atoz, maitia, atoz, biyotza,  
atoz eta sar zaitia!

Orduko Josefatxo da gaur Sor Josefa, Jesusen esposa Erljioan.

Pedro Miguel de Urruzuno  
*Euskal-Erria*, 1884.

Zerbait esan nai nuke,  
ez dakit, ez, nola;  
mingaña lotutzen zait,  
izoztu odola;  
biotza erdiratzen  
dagokit, diola:  
«Ai, euskaldun maiteak!  
Il da Manterola!».

Il da, Euskal-Erria,  
il da zure aita,  
eziñ esan adiña  
ziñuzana maita;  
negar egizu baña  
poztu ere baita,  
bada zeruan dago  
Jaunak ala naita.

Gorde zaigu betiko  
eguzki argia,  
gau illunean zana  
gure illargia,  
egunsentiko izar  
alai ta garbia,  
euskaldunen artian  
berdiñik gabia.

Ona, Jesus laztana,  
gure eskaria:  
Zurekin bizi bedi  
On Jose maitia,  
lurrean izan danak  
gure giaria,  
zeruan artu dezan  
guzien saria.

Jose Manterola 1884-II-29-an il zan. Aren omenez bertso auek moldatu zituan Pedro Migel Urruzuno jaunak.

## Itziarko Ama Birjiñari

---

*Guazen Itziarrera  
Mariarengana,  
guazen, bai, ematera  
laztan gozo bana.*

Izar bat agertu da  
guziz pozgarria,  
ara nola dagoan  
mendiyan jarria.  
Poztu, bada, bai, poztu,  
o Euskal-Erria!  
Adi ezazu kontuz  
dakarren berria.  
*Guazen...*

Illargia zeruan  
daukanak oñian,  
drist... drist... egiten digu  
Itziar gañian;  
biotzian poza ta  
kantak mingañian,  
onra dezagun Ama  
au alegiñian.  
*Guazen...*

Ikusirik zerutik  
gure miseriak,  
kontsolatu nai gaitu  
Birjiña Mariak;  
pozturik, bada, justu  
ta pekatariak,  
Itziarrera zuzen  
ditzagun begiak.  
*Guazen...*

Itxaso aserriak  
dakizu paketzen,  
baita ere ekaitzak  
gugandik aldentzen;  
ostarkua bezala  
zerala agertzen,  
poz ematen diguzu  
ta beldurra kentzen.  
*Guazen...*

Itxas-gizonak beren  
estutasunetan,  
ai, zein gogotik deitzen  
dizuten benetan!  
Galdu gordian larri  
beren azkenetan  
zenbiltzanak dituzu  
salba geienetan.  
*Guazen...*

Ikusten dira asko  
soldadu gerrari,  
erreguz Itziarko  
Ama Birjiñari;  
eta zuk berriz konta  
eziñ adiñari  
egiñ izan ditzetzu  
mesede ugari.  
*Guazen...*

Moroen mende zeuden  
kristauak itxian,  
eta ez ala ere  
denbora gutxian;  
aien penak biotza  
zuri ukitzian,  
jarri dituzu beren  
erri ta etxian.  
*Guazen...*

Nekazariak ere  
nekeen saria  
zugandik espero du,  
Birjiña Maria;  
zure bendiziu  
da txit ugaria,  
geitzeko batez ere  
arto ta garia.  
*Guazen...*

Ezkondu aur gabeak  
dizute esaten  
erregutzeko zerbait  
iritxi dezaten;  
zure bitartez aurrak  
dituzte izaten,  
egun batez zeruan  
ikusi ditzaten.  
*Guazen...*

Gaixoa oetikan  
gogotik da ari,  
erreguz Itziarko  
Ama Birjiñari;  
osasuna biurtzen  
diozu berari,  
egiñaz esan eziñ  
adinbat mirari.  
*Guazen...*



Eriotzako ordu  
estuan arkitu  
diranak badizute  
biotzetik deitu,  
aien deiak zuk oi  
dituzu aditu;  
zure biguntasunak  
zeruratzen ditu.  
*Guazen...*

Noeren kutxatikan  
irten zan usua,  
atzera eramanaz  
berri paketsua;  
zu zera gaitz guzien  
sendagai osua,  
zu zera, bai, Maria,  
Ama txit gozua.  
*Guazen...*

Egunaz eguzki ta  
gaubean illargi,  
egunsentian berriz  
izar eder argi;  
sortzetik mantxa gabe,  
dana garbi-garbi...  
Lurrean bizitzeko  
zera ederregi.  
*Guazen...*

Ona zure aurrian,  
ona Itziarren,  
ona nun gauzkatzun, guk  
ez merezi arren;  
zure anparu-pian  
ar gaitzatzu, arren,  
zeruan sar gaitezen  
mundu onen urren.  
*Guazen ...*

Pekataria baldin  
badago asiya  
pekatuen gorrotuz  
eskatzen graziya,  
denbora guzietan  
dago ikusiya  
iristen diozula  
nai duan guziya.  
*Guazen...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1884.*

## Obispo edo apezpiku jaunari erri txiki batian

---

*Ongi etorri izan dedilla,  
Aita maitea, gugana,  
gugandik esker milla ta milla  
ondo merezi duana.*

Bataiatzian ematen zaigu  
Jesu-Kristoren grazia,  
zeña dan gure zorionean  
animarentzat bizia;  
sendotu bizi au eta dezan  
izan iraupen bizia,  
konfirmatzian zaigu ematen  
bear dan indar guzia.

*Ongi etorri...*

Krisma santuak bekokietan  
siñalatuko gu gaitu,  
ez gera bear kristau izatez  
ez lotsatu, ez gogaitu;  
baña bai etsai guziak errez  
gurutziakin garaitu,  
eta Jesusi bizi guzian  
gogoz ondoren jarraitu.

*Ongi etorri...*

Kristau maiteak, dezagun arren  
atera ondo kontua,  
konfirmatzian gugana jeisten  
da Espiritu Santua.  
O sakramentu miragarriya,  
aiñ andi eta santua;  
Alabatzeko bear bezala  
betor aingeru kantua.

*Ongi etorri...*

Konfirmatzian gera Jesusen  
soldadu leial gerrari,  
gerra egiten etsai danei  
eta infernu berari;  
izanagatik mundu onetan  
etsai gaiztoak ugari,  
beldur zaizkie konfirmaturik  
dauden edozein kristauri.

*Ongi etorri...*

Goguan degu bataiatzian  
egin zitzaigun galdia,  
erantzunikan nai genduela  
Elizagandik fedia;  
konfirmaturik ondo gordeko  
degu zeruko bidia,  
Jesusek gorde guretzat dezan  
bere eskuiko aldia.

*Ongi etorri...*

Obispo jauna, aditu bitza  
itxtxo bi gure aotik:  
nola pagatu genezakio  
egin duena gugatik?  
Aita maitea, penaz aldentzen  
gera bedorren ondotik,  
zeruan alkar ikusitzeko  
eska dezagun gogotik.

*Ongi etorri...*

Nola zerua edertzen duten  
argiro dauden odeiak,  
ala animak edertzen ditu  
zerutikako doaiak;  
aita bat duten seme guziak  
dira elkarren anaiak,  
gure biotzak egun onetan  
biziro daude alaiak.

*Ongi etorri...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1884.*

## Andre Frantziskaren alabak beren amari egun onak

---

Egun sentiko izarra dago  
goizetik galde egiten  
zeruko berri egun onetan  
munduan ote dakiten;  
sekulan baño ederragoa  
gaurko goizean da irten,  
diyoalarik: «Ara zeruan  
aingeruak zer dabilten.

Tronu goi baten beren erregiñ  
maitea egun onetan  
jarririk, ara danak kantari  
non dauden bere oñetan». Aingeru  
aiek egiten duten bezala zeru  
goietan egiteko guk jarri dezagun  
kontu guzia aietan.

Nola sarjiñ bat lore ederrez  
dagoanian betia,  
ala birtutez beterik dago  
gure ama txit maitia;  
egongo balitz gure eskuan  
dana laztanga jatia,  
uste genduke ateratzia  
bakoitzak bere zatia.

Begi ederraz, kolore gorri,  
azala leun ta zuri,  
irurogei ta amar urtekin  
oso totolo ta guri;  
Jaunak zerutik grazia asko  
onegan ditu ixuri,  
paregabeko edertasunez  
serafintxo bat diruri.

Samintasunak ta naigabeak  
sarri dizkigu arindu,  
berak lan egiñ eta besteri  
aliek gutxien agindu;  
baña ejenplo ona emanaz  
alegin dana egin du,  
alabak ondo maitatzen iñork  
ezin lezake berdindu.

Andre Frantziska, ama maitea,  
esan al baño obia,  
zuri, gorria, berde, urdiña,  
beltxaran, more, oria,  
kolore danaz apaindutako  
usai gozoko loria,  
erreguz gaude eman degizun  
Jaunak zeruan gloria.

Pedro Miguel de Urruzuno  
*Euskal-Erria*, 1884.

## Aita Agustin Kardaberaz-i kantaera

---

Zuri nai dizut, Zeruko Aita,  
biyotzetikan eskatu  
etzadazula nik bear dedan  
laguntza, arren, ukatu;  
argi zadazu adimentua,  
mingaiñ lotu au askatu,  
lan au dezadan ondo asi ta  
obeki berriz bukatu.

Aita Agustin Kardaberaz nor  
zan esatera nua ni,  
zorioneko erriya zera  
lurrean, o zu, Ernani!  
Guziyok asko zor diogula  
or jaiotako aur oni  
aditu diyot, ez bein bakarrik,  
dakiten zenbait gizoni.

Milla zazpi eun eta iruan  
Abendua zan ill ura,  
ogei ta zortzigarren eguna,  
zeñetan ziñan mundura.  
Mantxa bat gabe dana polita  
oñetatikan burura,  
negarrik ez ta parraz jaijo da  
aingeru baten modura.

Aurtxoa zala Donostiara  
gurasoakin bizitzez  
joanik, nola an bizi izan zan  
ezin esango det itzez;  
enamoratu ziran zeruak  
aurraren polit-politez,  
ai aingeruak nere ordañaz  
emen mintza al balitez!

Ondo litzake, o Donostia!,  
zu erakusten astia  
nola Agustin kastigatzen zan  
izanikan ain gatzia:  
disziplinakin bere gorputza  
odoldurikan guztia;  
biyotz gogorak bigundutzeko  
asko zan au ikustia.

Zilizioaz eta barauaz  
gaztetatikan zan oitu,  
pekatu batez ere anima  
etzualako nai loitu;  
baldin gauz auek aur onegandik  
Jaunak eskatzen baditu,  
penitentziaz beldur geranok  
oraindik kontuz oroitu.

Serafintxo bat zirudizun zuk  
aldarearen aurrean,  
belauniko an jarririk zure  
maite Jesusen urrean;  
amarezko suz pizturik zeunden  
sarturik Biyotz berean,  
orra zerua nola zenduan  
arkitu emen lurrean.

Zeru bertatik Birjiña Ama  
etorririkan zugana,  
adierazo zizun gozoro  
zugandikan nai zuana:  
jesuita zu sartzia zala  
gauzarik onen-onena;  
pozik aditu zenduan oso  
kontseju Ama onena.

Umetatikan Birjiña Ama  
maitatuzeko kontua,  
biyotz zurean jaiotzatikan  
bear du izan sortua;  
amairu urte zinduzelarik  
kastidateko botua  
egiñik, orra zure biyotza  
Amarenakin lotua.

Oso poztua arkitu ziñan  
Konpañiara sartzian,  
zure soñian jesuitaren  
sotanatxoa jartzian,  
kabitu eziñ ainbat atsegiñ  
zenduala biyotzian;  
Billagarzian ala diyote  
aipa zaituzten guzian.

Iruñen eta Balladoliden  
zure birtute argiyak  
estudioko lagun askori  
zabaldtu zizten begiyak;  
danak zeruko bidian jarri  
esanik argi egiyak,  
indartu eta pozten zituen  
zure bizitza garbiyak.

Larros ederrak ere arantzak  
beti berekin oi ditu,  
birtutetsuak mundu onetan  
zerbait bear du sufritu;  
gerra gogorra zuri egiten  
etsaia etzan gelditu,  
baña erregu zureak Jaunak  
zitian ondo aditu.

Probatu bear bazan bezala  
bokazioa obeki,  
Balladoliden sotana utzi  
eta zinduzten iduki;  
zenbat sufritu zenduan emen  
Jainkoak bestek ez daki,  
biyurtutzeko berriz zizkitzun  
berak atiak idiki.

Beste gauzatan etzenduala  
pentsatzen baizik batian,  
arkitu ziñan amorez urtzen  
Jesusen Biyotz maitian;  
lagun zaiguzu Biyotz onetan  
sarturik bizi gaitian,  
zerua emen arki dezagun  
lurrean gauden artian.

Artzai onaren gisa ardiyak  
bazkatutzeko larrian,  
zabaltzen asi ziñan Kristoren  
dotriñ ederra lurrian;  
pizturik biyotz Jesus onaren  
amorezko su-garrian,  
nai izan dezu mundu guzia  
irazekirik jarri an.

Biyotz au danak maite zezaten  
izan zenduan goguak,  
artu erazo zizkitzun laister  
aingeru baten eguak;  
asko badira lanbide ontan  
igarotako leguak,  
askoz geiago dira egiaz  
ateratako frutuak.

Pekatarriyak zebiltzanean  
Jaungoikoaren igesi,  
Jaun beragana ekar erazten  
ondo zenduan ikasi;  
aingeruren bat ez izatekotz  
ezin diteke ikusi  
mundu guzian zure parerik  
amoriyuan Jesusi.

Leku askotan oroitzen dira  
gozoro zuzaz erriyak,  
dizkigutela non-nai ematen  
ez gutxi zure berriyak;  
Kongregazio Jesusen Biyotz  
maiteari zuk jarriyak  
orra non dauden, diruditela  
jardin oraingo berriyak.

Atentziyua txoriyak dute  
deitzen kantari kaiolan,  
zenduan egin ala zaartu  
ta gelditzian Loiolan;  
jendiak ara ekar erazten  
izan zenduan asko lan,  
ejerzizio onak ematen  
salbazioko eskolan.

Gaztelu bakar San Juangan,  
Boloniako albuán,  
eriyotz santu bat egitea  
zendukan beti goguan;  
beragana zu eramateko  
Jesus deseoz zeguan;  
mundutik orain bazuaz, agur,  
deskantsa zaite zeruan!

Italiara erbesteturik  
bizitza guziz estura,  
zaartzarako zure barrunak  
ai zer pena ta tristura!  
Jasorik zure esku-begiyak  
fedebiziyaz zerura,  
enkomentatzen zifian Jesusen  
Biyotz amorez piztura.

Atozte orain, kristau maitiak,  
eta begira zerura:  
nor da gloriyaz apaindurikan  
goian ageri dan ura?  
Amoriyuaz dago erretzen  
serafin baten modura,  
Jesusen Biyotz maite-maitian  
sarturik guziz barrura.

Gorrotuz, Jesus ill arteraño  
ibilli ziran juduak,  
modu berean diszipuluak  
tratutzen ditu munduak;  
zenbait itz ondo itxasten dizte  
etsaiak bere aduak,  
ondo egiñak ordaindutzeko  
oriyek dira moduak.

Zerutar danak galdetzen dute  
arriturikan txit beraz:  
«Nor da ageri dana jantzirik  
gloria andi ederraz?». Aita Agustin Kardaberaz da,  
ezagutzen det nik erraz;  
al dedañoan bere kondaira  
esan dizutet euskeraz.

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1885.*



## Kontu bat

---

Arakindegia baten  
txakur bat zan sartu,  
eta aragi-zati  
bat ortzetan artu.  
Txakurrari deadarka  
arakiña asi,  
eta txakurra juan zan  
beraren igasi.  
Igeri bazijuan  
pasatzen ibaia,  
ortzetan zeramala  
bere aragia.  
Ixpillua beziñ zan  
ibaia argia,  
ustez ikusten zuan  
urtan aragia.

Sartu zan ur-barrura  
artzeko ustian,  
aokoa utzirik  
bien bitartian.  
Ur-barruan etzuan  
ezertxo arkitu,  
lenagokoaz berriz  
gabe zan gelditu.  
Egiñ nai zualako  
bi zatien jabe,  
gero arkitu zan bat  
bera ere gabe.  
Kontu onetan zaigu  
egi bat azaltzen:  
*guzia nai duanak*  
*guzia du galtzen.*

Pedro Miguel de Urruzuno  
*Euskal-Erria, 1885.*

**Kostarrak**  
**1886-ko Loiolarako erromeriyan**

---

**Loiolara bidean**

*Loiolara kantari  
goaz zar ta gazte,  
zuek ere gurekin  
atozte, atozte.*

Egun sentiko izar  
ederrak gaur gaitu  
goizian goizetikan  
jaikitsera deitu,  
Loiolara joateko  
gaitezen oroitu;  
ai zein pozik diogun  
guziok obeitu!  
*Loiolara...*

Aingeruak ditugu  
biderako lagun,  
gurekin ibiltzeko  
beti gau ta egun;  
nolako zoriona  
guganatu degun  
danak jakin dezaten  
kantatu dezagun.  
*Loiolara...*

San Inazio dago  
begira zerutik,  
argatikan gabiltza  
bide segurutik;  
guazen bada guziok  
kantari gogotik,  
guazen, bai, Loiolara  
Jaungoikoagatik.  
*Loiolara...*

## Loiolan sartzean

Aita San Inazio,  
orra gu etorri  
gozoro kantatzera  
aurrian zedorri;  
zeralako guretzat  
grazien iturri,  
eskerrak ematera  
gatoz zenbait erri.  
*Loiolara...*

Igaz koleragatik  
ai ura larriya!  
Baña zu izan ziñan  
gure pozgarriya;  
zugatikan libratu  
zan Euskal-Erriya,  
lengoaz gañera au  
degu zor berriya.  
*Loiolara...*

Zor au pagatutzekoi  
gera oso utsak,  
birtuteetan berriz  
gaude guziz otzak;  
ala ere zugana  
eldu gera pozak,  
artu itzatzu gure  
guzion biyotzak.  
*Loiolara...*

## Loiolatik ateratzean

*Egiñikan bisita  
Loiolan Aitari,  
bera penaz utzita  
bagoaz kantari.*

Erromeri au degu  
izango goguan,  
bizi geran denbora  
guzian munduan;  
au ikusterik iñon  
uste ez genduan,  
ez izanik Loiolan  
edo ta zeruan.

*Egiñikan...*

Agur, Inazioaren  
seme on leialak,  
apaintzen dituzute  
egiñ egiñalak;  
ara eleiza, ara  
zelai ta arbolak,  
zerua bera dala  
diruri Loiolak.

*Egiñikan...*

Loiolalo eliza  
eder ta andia,  
zure barruan dago  
pozikan jendia;  
utsa da Amerika,  
utsa da India,  
eliz onek diruri  
Taborko mendia.

*Egiñikan...*

Agur, San Inazio,  
agur gure Aita,  
ikusi degu Tabor,  
zerua're baita;  
arren bizi guzian  
zaitzagula maita,  
zeruan egoteko  
zurekin jarrita.

*Egiñikan...*

## **Etixerako bidean**

*Egiñikan bisita  
Loiolan Aitari,  
bera penaz utzita  
bagoaz kantari.*

Loiolara juateko  
asmuak arturik,  
andik etxeruntz gatoz  
amorez suturik;  
biotzak dakaizkigu  
pozetan urturik,  
arkitu degulako  
zeru biurturik.  
*Egiñikan...*

Izan etzeratenak  
Loiolan oraindik,  
juan gabe ez gelditu  
al bada iñondik;  
biurtuko zerate  
gu bezela andik,  
graziak iritxirik  
Jaungoikoagandik.  
*Egiñikan...*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**  
1886-ko Agorraren 5-an.  
*Euskal-Erria*, 1886.

Kolera-izurritea izana zan. Aldendu zanean, Loiolara erromeriak egin ziran eskerrak ematearren. Beste jartzaille batzuek ere moldatu zituzten bertsoak gai berarekin.

*Goazen, artzaiok, goazen,  
goazen al dan lenen,  
Jesus jaiorik dago  
gure zai Belenen.*

Aingeru batek digu  
berria ekarri  
Jesus Belenen dala  
mundura etorri;  
bildots bana arturik  
diyogu alkarri:  
«Goazen eramatera  
zeruko Aur orri».  
*Goazen...*

Ara aingeru-tropak  
zer kantatzen duan:  
«Gloria Jainkoari,  
gloria zeruan,  
pakea gizonari  
betiko munduan».  
Orra zeru-lurretan  
zer poza dagan.  
*Goazen...*

Ai zein kanta ederrak  
ditugun aditzen!  
Zerukoak dirala  
zaigu iduritzen!  
Millaka aingeruak  
zaizkigu argitzen,  
airietan kantari  
orra non dabilten  
*Goazen...*

Estalpe bat jauregi  
eta bertan aska,  
ona nolakoa dan  
Aur onen seaska;  
koltxoetzat lastoak  
ipiñirik dauzka,  
idi-astoak dute  
berotzen asnaska.  
*Goazen...*

Eguzkia dsiruri  
zure arpegiak,  
izar eder bi berriz  
dituzu begiak;  
laztanten zaituztela  
Jose ta Mariak,  
bete dituzu oso  
zorionez biak.  
*Goazen...*

Poztu gaitu, o Jesus!,  
gu zure jaiotzak,  
emen dakaizkitzugu  
artzaiok bildotsak;  
agur, Jesus maitea,  
bagoaz gu pozak,  
zuri utzirik emen  
guzion biyotzak  
*Goazen...*

**Pedro Migel Urruzuno-koak**  
*Euskal-Erria, 1886.*

## Iru Erregeak

---

*Erregeak dijoaz  
mendietan bera,  
berai lagunduaz  
goazen Belenera.*

Begira, bai, begira  
kontuz sortaldera,  
ara non agertu dan  
izar txit ederra;  
berri onen bat dakar  
zerutik lurrera,  
erregeen giari  
dijoa aurrera.  
*Erregeak...*

Izarra zaielarik  
Belenen gelditu,  
beren adimentuak  
dizkie argitu;  
estalpe baten Jesus  
dutela arkitu,  
bere pobrezaz dira  
osoro arritu.  
*Erregeak...*

Erregeak ondoren  
datoz izarraren,  
Baltasar, Melxor eta  
Gaspar irugarren;  
Jesus adoratzera,  
umill egon arren,  
anditasun guzia  
orra non datorren.  
*Erregeak...*

Bigungarritzat dauka  
askako lastoa,  
nola ez da egongo  
Aurtxoa oztua?  
Asnasaz berotzeko  
idi ta astoa,  
orra nola dagoan  
justuen Justua.  
*Erregeak...*



Badakigu zerala  
zeru-lurren Jabe,  
ona urre ta mirra,  
intzensua ere;  
eskeintzen dizkitzugu  
dan bezela lege,  
bada zera Jaungoiko,  
gizon ta Errege.  
*Erregeak...*

Etorri gera, Jesus,  
zu adoratzera,  
ori egiñ ondoan  
bagoaz atzera;  
zeruko aingeruak  
betoz kantatzera;  
agur, Jesus maitea,  
bagoaz etxera.  
*Erregeak...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1886.*

*Ara artzaiak mendiyen bera,  
guazen berakiñ batera,  
gaztaña, esne ta gaztanbera  
Jesusi eramatera.*

Artzaiak datoz mendiyak bera  
dakartzkitela bildotsak,  
gaberdiya da, baña ez ditu  
ikaratutzen gau otzak;  
ara saltaka nola datozen,  
poz dira beren biotzak,  
ditualako ainbesteraño  
poztu Jesusen jaiotzak.  
*Ara artzaiak...*

Lasto gañian oial batzuek  
zartxoak baña garbiak,  
jauregi ordeztalpe zar bat  
dauka zeruen Jabiak;  
ispillu ontan ondo begira  
beza ondasun gabiak,  
bere laguntzat nonbait Jesusek  
nai dituela pobriak.  
*Ara artzaiak...*

Belen ondoan estalpe baten  
dago askatxo batian,  
Aur jaio berri eder-eder bat,  
gaxoa lasto tartian;  
asto-idiyak dute berotzen  
asnasaz biyen artian,  
Zeruko Aur au adoratzeko  
belaunikatu gaitian.  
*Ara artzaiak...*

Aingeru batek artzai oiei  
ekarri diye berriya;  
Jesus jaiorik arkitzen dala  
lasto gañian jarriya;  
jaio orduko sufrutuz nai du  
salbatu bere erriya,  
o Jesus!, zure amoriyua  
da oso arrigarriya.  
*Ara artzaiak...*

Ara zerutik nola datozen  
aingeru asko kantari,  
begira kontuz, aditu ondo  
zer diran kantatzen ari;  
bada diyote: «Zeru goietan  
gloria Jaungoikoari,  
eta lurrian pakea gizon  
borondate on dunari».  
*Ara artzaiak...*

Dizdiatzen du urreak ainbat  
Aur eder orren illiak,  
zeruetatik ekarritako  
izarrak ditu begiak;  
eguzkia're illun lezake  
bere arpegi argiak,  
zeru berri bat lurrera digu  
gaurko gabeen Mariak.  
*Ara artzaiak...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1887.*

*Adoratzera Jesus dijoaz  
Belenen iru errege,  
kantari eta soñuak joaz  
goazen berakin gu ere.*

Izar ederrez berdin gabe bat  
sortaldian da ageri,  
Belen aldera bide egiten  
asitzen dala diruri;  
iru errege mago ondoren  
jarraika datoz berari,  
izar eder au dutela beti  
beren aurrean giyari.  
*Adoratzera...*

Jerusalendik irtenik dira  
Belen alderuntz abiya,  
agertzen zaie berriz aurrean  
giyari izar argiya;  
estalpe zartxo baten gañian  
jartzen da geldi-geldiya,  
adierazten an dagoala  
Aur txiki Jainko andiya.  
*Adoratzera...*

Ezkutaturik izarra dabiltz  
Jesus non jaio dan galdez,  
beldurrez dago Jerusalemen  
ango errege Erodes;  
jakin nairikan magoengandik  
Jesus jaio dan edo ez,  
esaten diye: «Onuntzakoan  
atozte berriz mesedez».  
*Adoratzera...*

Lasto tartian askan Aurtxo bat  
gaxoa larru-gorrian,  
bero dezaten asnasaz dauzka  
asto-idiak aldian;  
iru errege alare zaizka  
belaunikatzen aurrian,  
gizon, errege ta Jainko dana  
adoratzeko lurrian.  
*Adoratzera...*

Gizon bezala pozik diyote  
mirra eskeintzen aurrena,  
errege dala begiraturik  
urra berriz urrena,  
Jaungoiko danez usai gozoko  
intzensurikan onena;  
errege oen zoriona da  
eman diteken goiena.  
*Adoratzera...*

Bedeinkazioz bete zaituzte  
Jaungoiko Aur Belengoak,  
zuazte zuen erriyetara  
emanaz berri angoak;  
zuen biyotzen poz-atsegiñak  
esan bitzate aoak,  
ondo joanak izan zaitezte,  
agur, errege magoak.  
*Adoratzera...*

**Pedro Miguel de Urruzuno**  
*Euskal-Erria, 1888.*

*Artzaiakin batera  
Belenera zuzen,  
Jesus adoratzera  
goazen, goazen, goazen.*

Aingeru bat zerutik  
dator diyoala  
Jainko gizon egiña  
gaur jaioa dala;  
artzaiak aditzean  
sinisturik ala,  
badijoaz Aurraren  
billa bereala.  
*Artzaiakin...*

Artzaiak billa dira  
bereala joaten,  
Belen ondoan ara  
zer arkitzen duten:  
Jose eta Maria  
estalpe zar baten,  
eta Aur bat erruki  
duena ematen.  
*Artzaiakin...*

Millaka aingeruak  
or datoz kantari:  
«Gloria zeruetan  
gure Jainkoari;  
eta lurrean berriz  
pakea ugari  
gizon borondatea  
ona dutenari».  
*Artzaiakin...*

Estalpe ortan aska  
ta askan lastoa,  
lasto gañian Aurra,  
gaxoa oztua;  
arnasaz berotzeko  
idi ta astoa,  
ara nola dagoen  
justuen Justua.  
*Artzaiakin...*

Eguzkia diruri  
bere arpegiak,  
izar eder bi berriz  
Aur orren begiak;  
zeru txiki bat dute  
Jose ta Mariak  
Belengo estalpiak  
arkitutzen biak.  
*Artzaiakin...*

Jesus adoratzera  
aliek eta lenen,  
etorririkan gaude  
gu oraiñ Belenen;  
zurretat ar gaitzatu  
oraiñ, Jesus, emen,  
eta gero betiko  
zeruetan, amen.  
*Artzaiakin...*

**Pedro Migel Urruzuno-koa**  
*Euskal-Erria, 1888.*

## Jesusen Biotzari

(Erderazko *Altísimo Señor*-en antzera eresteko egiña).

---

Jaun guziz aundia,  
aldarean zera  
egin bat-batera  
bildots ta artzaia;  
aitor det egia:  
damu det barrundik  
iges egiña zugandik.

Aldareko jana,  
gustoz ugaria,  
o zer miraria!,  
egiako mana,  
bagatuz zugana  
anima garbiaz,  
bete gaitzatzun gloriáz.

Aingeruak zuri  
glorian begira  
txit umillik dira  
adoratzen ari,  
zu beren janari  
izan al bazindez,  
baiña iritxi eziñez.

Zu bizi-bizia,  
artzai ta bildotsa,  
zeruen biotza,  
gure nagusia,  
ogian guzia,  
Jainko ta gizona,  
o nola zeran txit ona!

Bildots zerukoa,  
Belengo ogia,  
gure janaria  
ondo jatekoa,  
gure Jaungoikoa,  
biotzak Zugana  
daramazkitzun imana.

Amorezko sua  
egiñik janari,  
anima onari  
zu ezti gozua,  
oso doatsua  
gurekin lurrian,  
gero zeruko glorian.

P. M.

*Euskal-Erria*, 1897.

*Euskalzale*, 1897-VI-10.



**Jesusen Biotzari**  
(*Sacris Solemniis*-en antzera eresteko egiña).

---

O biotz gozoa,  
txit errukitsua,  
Serafinen sua,  
bide erosoia,  
gure Paraisoa,  
zorion osoa,  
amorezko itxasoia.

Zeruen argia,  
ai zer miraria!  
Txit arrigarria,  
fedeko egia,  
au da geiegia:  
Jaungoiko aundia  
dala gure janaria.

Aingeruen Jauna,  
izanik zerana,  
zer da zakartzana  
lurrekoakgana?  
Sinisten dedana  
esango det dana:  
gu gabe ezin izana.

Zeruak daukaten  
Jauna, guri jaten  
zaigula ematen  
ogi piska baten.  
O, Jauna, zenbaten  
zai zera egoten  
noizbait ote geran joaten.

Edertasun bera  
zeru-goitik beera  
jetxia lurrera  
gizonen aldera,  
gurekiñ batera  
emen egotera,  
zugana joaten bagera.

Zure bearrian  
neke ta larrian,  
baiña zu urrian  
zauzkagun errian,  
daukagu aurrian  
zeru bat lurrian,  
gero beste bat glorian.

P. M.  
*Euskalzale*, 1897-VI-17.

## Ama Birjiña Errosariokoari

---

Adanen seme bezela nintzan  
mundura larru-gorrian,  
iru urtekin nintzan gelditu  
amarik gabe lurrian;  
izeba bati ikasi nion  
nik nere jaioterrian  
beste Ama bat baneukala, bai,  
an zero-goien erdian.

Ez nintzan iñoiz ere aspertzen  
esaten Agur-Maria,  
zeren biotza alaitzen zidan,  
argitu berriz begia;  
esan ta esan ari nintzala  
beti poz-aldi berria,  
onela ari nintzan izketan  
zurekiñ, Ama neria.

Sarri askotan jarri oi nintzan  
zeru ortara begira,  
eta negarrak igotzen ziran  
biotzetikan begira;  
umezurtzaren negar-malkoak  
perla txit ederrak dira,  
apaingarrizat dijoazenak  
zeruen erdi-erdira.

Argatik gogoz errosario  
santua nuan esaten,  
beste erregu aiñ atsegiñik  
neretzat etzan izaten;  
au esan gabe oraintxe ere  
ez naiz oera etzaten,  
zure aginduz aingeru onak  
garbiro gorde nazaten.

Aurtasunean izan zitzatan  
ikasitzea atsegiñ,  
nezakiala Zeruko Ama  
maitearekiñ itz egiñ;  
Agur-Maria sarri oi zidan  
izebak esan eragiñ,  
Zeruko Ama maiteagana  
eldu erregu au zediñ.

Amabost ditu misterioak  
errosario osoak,  
lenengo bostak beren izenez  
deitzen dira gozoak;  
urrenak dira gogoratzeko  
Jesus onaren pausoak,  
Jetsemanitik Kalbariora  
nekez emanak gaixoak.

Azkenengo bost misterioak  
dakarkigute gogora  
Jesus pizturik nola igo zan  
zerura odeiak gora,  
Espiritu Santua bialdu  
bete zanean denbora,  
eta eraman koroatzera  
Ama, beraren ondora.

Errosario santuko jaia  
zait oso oroigarria,  
egun orretan naizelako ni  
emana meza berria;  
oraiñ artian bezela zure  
anparopian jarria,  
gorde nazazu bizi guzian,  
o Ama maite Maria!

Eztakit naizen biziko labur  
ala biziko luzero,  
baiña, Maria, egingo dizut  
erregutxo bat goizero;  
errosario santua berriz  
dizut esango gozoro,  
zeren nai dedan, Ama maitea,  
izan zurea osoro.

P. M.  
*Euskalzale*, 1897-IX-29.

*Tota pulchra*  
**Ama Birjiña Kontzeziokoari**

---

*Agur zeruko lore,  
aingeruen poza,  
agur milla kolore  
dituzun larrosa.*

Zeruko aingeruak  
atozte lurrera,  
ikustera guzior  
Amaren sorrera;  
ain da atsegiña ta  
ain dago ederra,  
pozez kanta dezagun  
bere etorrera.

*Agur...*

Satanasik zugana  
ezta iñoiz sartu,  
jatorrizko errurik  
gabe zera sortu;  
Jaunak zaitualako  
alabatzat artu,  
glori au nai dizugu  
pozikan aitortu.

*Agur.*

Larrosik ederrena  
da Jerikokoa,  
baiña ura're ezta  
zu bezelakoa;  
Jaungoikoak zu zaitu  
bere gogokoa,  
Jauna bakar-bakarrik  
zure diñakoa.

*Agur...*

Siongo zipresa da  
berdiñ gabe goia,  
goragoa zeruan  
zuk dezun jargoia;  
zugandik jaioko da  
Judako legoia,  
berez izango dana  
txit erregekoia.

*Agur...*

Zedrорik mardulenak  
datoz Libanotik,  
birtutez mardulago  
zera lenengotik;  
jatorria dezuna  
Jaunaren aotik,<sup>1</sup>  
bestarik ezer egiñ  
baiño lenagotik  
*Agur...*

Eguzkia da zure  
soiñeko apaiña,  
illargia berriz oiñ  
azpirako diña;  
buruan dezu koroï  
izarrez egiña,  
zeralako zeru ta  
lurren Erregiña.  
*Agur...*

Lore danen erdian  
zauden liriua,  
usai gozoz betea  
zure ingurua;  
lur guzia alaitzen  
dezun aingerua,  
zurekin degu emen  
arkitzen zerua.  
*Agur...*

Jakindurian iñor  
ez dezu berdiñik,  
ez gizonikan ezta  
ere kerubiñik;  
zaude jakintsu danen  
mirari egiñik,  
zer esango det bada  
edo zer egin nik?  
*Agur...*

Sortu orduko dezu  
egiñ alegiña  
Jaungoikoa maitatzen  
al dezun adiña;  
elkarturik serafiñ  
danak bat egiña,  
zu zera amorezko  
birjiñen Birjiña.  
*Agur...*

Nere biotza daukat  
ipiñirik zугan,  
beti egun eta gaur,  
negu eta udan;  
esango dizut bada  
egon gabe dudан,  
badakizula, Ama,  
zeinbat nai dizudan.  
*Agur...*

Al dedanaz nai zaitut,  
Maria, goratu,  
baiña zer bidez egin  
ezin gogoratu;  
zure edertasunak  
bear nau zoratu,  
erruki zaite nizaz  
nadiñ zeruratu.  
*Agur...*

Nere Ama maitea,  
ezingo det uka:  
zure edertasunak  
arriturik nauka;  
alabantza zureak  
ona emen buka,  
zeruan dezadala  
kanta *Tota pulchra*.  
*Agur...*

**P. M.**

*Euskalzale, 1897-XII-9.*

---

<sup>1</sup> Ego ex ore Altissimi prodivi primogenitam ante omnem creaturam. (Eccli., XXIV, 5) *Euskalzale* aldizkariaren oarra.

## Jesus jaio berriari

---

*Bildotsak eta gaztai bigunak  
eramatean Jesusi,  
amteriorik geien diguna  
bera nai degu ikusi.*

Aurtxo eder bat, ederren dana  
eder guzien artean,  
askatxo baten lastotan dago  
estalpe zartxo batean;  
aingeru asko aurra gordetzen  
estalpearen atean,  
goazen aur onen aurrera eta  
belaunikatu gaitean  
*Bildotsak eta...*

Izarrak berriz diruritenak  
dira aur onen begiak,  
aiñ atsegiñak, aiñ pozgarriak,  
aiñ eder eta argiak;  
alare otzak; berotzen dute  
astoak eta idiak,  
gizonak baiño errukiago  
dutela abere biak.  
*Bildotsak eta...*

Ille ederra, diruriena  
urre gorriaz egiña,  
bekoki zabal, alaiagoa  
eztana zeru urdiña;  
azal zurian kolore gorri  
larrosaz eziñ berdiña,  
zorion dana emen genduke  
beti zureak bagiña.  
*Bildotsak eta...*

Berak egiñak dira zeruak,  
lur-itsasoak baitare,  
berak egin ta bere-beriak  
guzi-guziak goi ta be;  
alare ara nola dagoan  
izara zartxo bat gabe,  
dana utzirik egitearren  
gizonen biotzen jabe.  
*Bildotsak eta...*

Aurtxo ederra, zerori zera  
lore guzien loria,  
nere mingaiñak esan al baiño  
ederrago ta obia;  
aingeru-talde andiak datoz  
gogoz kantatzen gloria,  
zuri begira berriz txoratzen  
pozez Jose ta Maria,  
*Bildotsak...*

Mundu guzia, Jesus maitea,  
poztu du zure jaiotzak,  
orra artzaiak non dakartzkiten  
beren gaztai ta bildotsak;  
guk berriz ezer eztegulako  
garaitu ez gaitzan lotsak,  
artu itzatzu zuretzat, Jesus,  
betiko gure biotzak.  
*Bildotsak eta...*

**P. M.**

*Euskalzale*, 1897-XII-23.

*La Baskonia*, 1908-XII-20.



*Lurreko erregeak  
datoz Jesusgana,  
adoratzera beren  
Erregea dana.*

Sortaldera izar bat  
joan da albistari,  
orra onetan bertan  
naikoa mirari;  
izar guziz eder au  
dutela gidari,  
iru errege datoz  
jarraika berari.  
*Lurreko...*

Jerusaleneraiño  
diranean eltzen,  
izar gidari ura  
zaie ezkututzen;  
baiña ala ere ez  
dira ateratzen,  
Mesias non jaio dan  
an dabiltz galdetzen.  
*Lurreko...*

Sinismen illa duten  
alper ta nagiak,  
ez dituzte nai izan  
idiki begiak;  
baiña datoz, utzirik  
beren jauregiak,  
estalpetxo batera  
iru erregiak.  
*Lurreko...*

Dabiltz zerbait nairikan  
izarraren ordez,  
judioen Errege  
non jaio dan galdez;  
berri oekin dago  
beldurrez Herodes,  
jakintsuei galdez  
dakiten edo ez.  
*Lurreko...*

Jaun oien iritzia  
da Jerusalemen,  
jaiorik izan bear  
duala Belenen;  
erregeak diote:  
«Zertan gaude emen?  
Goazen Belen aldera,  
goazen, bai, len-bait-len».  
*Lurreko...*

Erregeak bidean  
ez ditezen galdu,  
ara izarra berriz  
non zaien azaldu;  
beren atsegiñ poza  
eziñez estaldu,  
ari jarraika dira  
Belenera eldu.  
*Lurreko...*

Estalpe zar batian  
Zeruko Erregia,  
orra emen lurrian  
daukan jauregia;  
lurrekoak ikasi  
bezate egia:  
digun amorioa  
dala geiegia.  
*Lurreko...*

Irurak belauniko  
Jesusen aurrian,  
zeru batean daude  
estalpe zarrarian;  
dakarzukioten mirra,  
intzentsu ta urrian,  
bere mendeko dira  
aitortzen lurrian  
*Lurreko...*

Andia izandu da  
egiaz omena,  
erregeak Jesusi  
eman diotena;  
baita ere zorion  
errege oena  
zeru-lurretan argi  
diteken onena.  
*Lurreko...*

Erregeak daudela  
arturikan loak,  
«Herodesgana ez joan  
-dio aingeruak-,  
etxerakoan bide  
egokiagoak  
arturik; orain agur,  
errege magoak».  
*Lurreko...*

P. M.  
*Euskalzale, 1898-I-6.*

*Lagun zaiguzu zuzen  
lurrean ibiltzen,  
baita ere Jesusen  
amorean iltzen.*

Birtutez apaindua,  
doatsua oso,  
maillarik goienera  
zaitu Jaunak jaso;  
bere Amaren lagun  
eta senar gozo,  
Jesusek zu nai zaitu  
beretzat guraso.  
*Lagun zaiguzu...*

Larrosarikan ezta  
arantzarik gabe,  
guzietatik izan  
dituzu zuk ere;  
zazpi atsegiñ eta  
zazpi atsekabe,  
Belen eta Ejipto  
testigu or daude.  
*Lagun zaiguzu...*

Zeruan aingeruak  
dutena erregiñ,  
emen lurrean zure  
emazte da egiñ;  
zeru ederra bera  
dan beziñ atsegiñ,  
zuretzat da Nazaret  
Ama-Semeekiñ.  
*Lagun zaiguzu...*

Zure izerdiakiñ  
jana irabazi,  
eta kontu guziaz  
dezu Jesus azi,  
mereziaz zerutik  
asko milla grazi,  
aingeruak bezela  
zeratela bizi.  
*Lagun zaiguzu...*

Kanpoz lanean eta  
barruz erregutzen,  
Jainkozko gizona da  
ontan ezagutzen;  
bizitzan Jesusi ta  
amari laguntzen,  
ildakoan zerura  
sartu zera zuzen.  
*Lagun zaiguzu...*

Gure anparatzaille  
Jaunak jarri zaitu,  
perill danen artean  
zuk gaitzatzun zaitu;  
gure bizitza emen  
dediñean aitu,  
zurekin gaitzezela  
zeruan alaitu,  
*Lagun zaiguzu...*

**P. M.**

1898-ko Epaillaren 15-an.  
*Euskalzale*, 1898-III-17.

## Abe Maria

---

Goi-aingeru bat zerutik dator  
zugana, Ama neria,  
Jaungoikoaren aginduz dizu  
esaten: *Abe, Maria.*

Aingeru onek nai dizuna da  
berri on bat ematia,  
orregatikan berak esaten  
dizu: *Graziaz betia.*

Jaungoikoaren borondatea  
guziro dezazun jakin,  
begira nola esaten ere  
dizun: *Jauna da zurekin.*

Oraindik ere goi-aingerua  
zure aurrian daukazu,  
adi zaiozu nola dioan:  
*Bedeinkatua zera Zu.*

Bedeinkatua zerala dio  
berak aoa betian,  
bedeinkatua Zu, bai, Maria,  
*andre guzien artian.*

Bedeinkatua zera Zerori  
bai *eta bedeinkatua*  
guzion zori-onerako dan  
*zure sabelko frutua.*

Jainkoa zure sabel garbian  
aragiz jantzia dezu,  
zeruratzera gizona dator,  
izena duala *Jesus.*

Premian beti Zugana dator  
pozikan pekataria,  
asten da Zuri erregututzen  
esanaz: *Santa Maria.*

Pekataria sinismen onak  
zure aurrera darama,  
zere dakien ondo zerala  
zu *Jaungoikoaren Ama.*

Adi itzatzu gure erregu  
argalak zeruetatik,  
baitare *erregutu ezazu*  
*gu pekatariokgatik.*

Ondo dakizu pekatariak  
zer laguntza bear duan,  
erruki zaite *oraiñ ta gure*  
*eriotzako orduan.*

Artu zadazu biotz guziaz  
eskeintzen dedan loria,  
goza dezadan Zu ikusiaz  
zeruetako gloria.

Zu nai zaitugu gure Amatzat  
bizitza guzian emen,  
izan zaitzagun ere betiko  
zeruko glorian *amen.*

**P. M.**

1898. Epaillaren 21-an.  
*Euskalzale*, 1898-III-24.

## Ama Doloretakoari

---

*Zugana nator, Ama Maria,  
damaturikan benetan,  
zergatik naizen pekataria,  
ona ni zure oiñetan.*

Zugana nator, Ama nerea,  
nator, bai, Ama, Zugana,  
adi zadazu kontu guziaz  
eskatutzera noana:  
kantatutzea zure dolore  
zazpirak da nai dedana,  
onetarako zure laguntza  
indazu, Ama laztana.  
*Zugana...*

Jesus Aitari eskeiñitzeko  
eldu zanean denbora,  
pekatari bat bezela zoaz  
Jerusalengo templora;  
Jesus onaren Pasio dana  
Simonek dizu gogora,  
orra anima josiko dizun  
ezpata guziz gogorra.  
*Zugana...*

Aur jaio berri Jesusganako  
Erodes dago gorrotoz,  
bere soldadu odol-zaleak  
umeak illaz or datoz;  
Ejipton Jaunak probatu zaitu  
eramankizun txit askoz,  
zazpi urteak bete dituzu  
neke, izerdi ta malkoz.  
*Zugana...*

Jerusalengo tenplo santuan  
Jesus zanean gelditu,  
ditu amabi urteko aurrak  
jakintsu danak arritu;  
ezin arkituz zure Semea  
osoro zera larritu,  
iru egunez nola etzaizu  
biotza penaz zatitu?  
*Zugana...*

Jesus dijoa gurutzeakiñ  
ta lapur biren erdian,  
Maria berriz negarrez urtzen  
Seme onaren galdian;  
Amargurako kalean ara  
Kalbariora bidian,  
Ama-Semeak penaz il bear  
dira oraingo aldian.  
*Zugana...*

Igo baziñan, Ama maitea,  
Kalbarioko mendira,  
lurreko zure atsegiñ-pozak  
biotz zuretik joan dira;  
badaramate gorputz ill zure  
Semearena obira,  
arkaitzak miñez puskatu dira,  
nola zaude Zu begira?  
*Zugana...*

Kalbarioan gurutzeari  
iltze gogorraz josia,  
dago burutik oiñetaraiño  
zauri egiñik guzia;  
Semea ilda nola diteke  
gorde Amaren bizia?  
Zuk daramazun Pasioa da  
samiña eta luzia.  
*Zugana...*

Zu naigabetzen pekatuakiñ  
bizitu banaiz luzaro,  
zure oiñetan emen naukazu  
damuturikan osoro;  
zure dolore zazpirak ditut  
gogoratuko goizero,  
zeruan gero, Ama maitea,  
laztan zaitzadan gozoro.  
*Zugana...*

Zabaldu zazu zure magala,  
zabaldu zure besoak,  
zugana nai du jetxi Semeak  
artzera laztan gozoak;  
laztanten dezun zauri egiñik  
dagoan gorputz osoak,  
adierazten ditu zer diran  
pekatarien pausoak.  
*Zugana...*

P. M.  
*Euskalzale, 1898-III-31.*



## Jesusen Biotzari

(*Sacris solemniis bezela eresten da*)

---

Biotz txit garbia,  
mantxarik gabia,  
ispillu argia,  
zerurako gia,  
Jainkozko ogia,  
nai baiño obia,  
zu zera gure gloria.

Biotz ditxosoa,  
janari gozoa,  
argi erosoia  
kentzeko lausoa,  
Zeruko Maisua,  
Jaun amorosoa,  
umezurtzen gurasoa.

Gure egunetan  
lurreko lanetan,  
neke ta penetan,  
naigabe danetan,  
gurekiñ Zu bertan  
zauzkagu benetan,  
pozzgarri mundu onetan.

Biotz bigun ori  
egiñikan zauri,  
diguzu ixuri  
doaia ugari.  
Ai zeinbat mirari!  
Ondo da agiri  
zeinbat nai diguzun guri.

Aingeruen Jauna,  
zeruetan dana,  
animaren jana,  
bear degun dana  
beragan duana  
egiazko mana,  
atoz len-bait-len gugana.

Gure izatea,  
o mundu tritea!,  
da erruz betea,  
bai, biotz maitea,  
erruki zaitea,  
zeruko atea,  
iguzu ara joatea.

P. M.

1898-ko Bagillaren 7-an  
*Euskalzale*, 1898-VI-16.

## Ama Birjiña Errosariokoari

---

Koroi eder bat, Ama nerea,  
zuri, larrosaz egiña,  
eskiñi naian nator, banazu  
artzen artarako diña;  
nik al dedana oso gutxi da,  
baño balitz nai adiña,  
egingo nuke edertasunez  
zerua beziñ apaiña.

Amarrekoak amabost ditu  
Errosario osuak,  
gogoratutzen dizkigutela  
Ama-Semeon pausuak;  
baldin biotza alaitzen badu  
larrosen usai gozuak,  
zer egingo du Errosario  
santuaren errezuak?

Jesusek berak erakutsirik  
dakigu Aita-guria,  
aingeru batek ekarri zuen  
zerutik Agur-Maria;  
zeruan berriz kantatzen daude  
Jaungoikoari gloria,  
oiekin dizut egin nai, Ama,  
aliek ederren koroia.

Jainkoa gizon egin zanian  
zure sabel txit garbian,  
bisitatzera zoaz Isabel  
urrengo egun batian;  
estalpe zartxo baten jaiorik  
Jesus gabaren erdian,  
laguntz aundirik zuretzat etzan  
arkitu Belen aldian.

Aita-gure bat esan ondoren  
berriz amar Agur-Mari,  
azken emanaz gero gloria  
beñ amarreko danari;  
Errosario bat egiteko  
badegu gaia ugari,  
baño nai zaitut, Ama maitea,  
aurretikan zu giari.

Jesus jaio ta ondorenean,  
egun batzuen buruan,  
pekatarien antzera zaude  
Jerusalengo tenploan;  
andik amabi urtera berriz,  
Semea galdu ondoan,  
iru egunen buruan tenplo  
artan arkitu zenduan.

Jetsemaniko baratz santuan  
auspez lurtean jarririk,  
erregututzen dago odola  
izerdituaz larririk;  
bost milla edo geiago azotez  
gorputz dana idirikik,  
lurtean ezta, au ikusita,  
bigunduko eztan arririk.

Buruan koroï arantzazkoa  
ta lepuan gurutzia,  
Kalbariora dioa Jesus  
odoldurikan guzia;  
mendi santuan gurutzeari  
iltze gogorraz josia,  
ikusten degu eman duela  
Jesus maiteak bizia.

Jesus piztuta aingeru danak  
baiño askoz ederrago,  
Ama maitea kontsolatutzen  
Semea pozik an dago;  
berrogeigarren egunian du  
lurretik zerura igo,  
laguntzat ditu aingeru eta  
justu zeudenak katibo.

Espiritu Santuak zuela  
bere argia ekarri,  
apostoluen adimentuak  
ipiñi zituan argi;  
Ama zerura eramatera  
Jesus bera zan etorri,  
ara igota koroï txit eder  
bat zion buruan jarri.

Aita-gure ta Abe-Mariak  
mingañarekin esanaz,  
misterioak pentsatzen goaz  
al dan modurik onenaz;  
poztuaz zure atsegiñaz ta  
errukiz zedorren penaz,  
begira, Ama gurea, nola  
maitatzen zaitugun benaz.

Ikusten badet begiraturik  
zeruan dezun jargoia,  
ezer-eza da zuri eskeintzen  
dizudan nere koroia;  
zuk badakizu borondatia  
dedala eziñ obia,  
indazu arren zure grazia  
eta zeruko gloria.

P. M.

1898-ko Iraillaren 26-an.

*Euskal-Erria*, 1898.

*Euskalzale*, 1898-IX-29.

## Ama Birjiña Kontzeziokoari gozoak

---

*Kanta nai dizut, Ama neria,  
zure sorrera garbia,  
dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Mundua nola alaitzen duen  
goiz egunsenti ederrak,  
alaxe ditu gure biotzak  
poztutzen zure sorrerak;  
edertasunez miragarria  
esango badet egia...  
*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Pozik ikusten badegu ere  
egunsentiko izarra,  
guretzat ezta, Ama maitea,  
zu zeran beziñ ederra;  
zuri begira, zeru argia,  
ezta aspertzen begia...  
*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Pozikan beti esan izan det,  
bai eta ere esango:  
lorerik ezta zure berdiñik  
ez izan ta ez izango;  
zeralako zu ederregia,  
lore guzien loria...  
*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Lurreko ondar-aleak eta  
zeruko izar guziak  
baiño geiago dira Jainkoak  
egin dizkitzun graziak;  
izanik zure apainduria  
zeru ederren gloria...  
*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Zeruan dauden aingeru eta  
santu guziaz gaiñkoa,  
zu zeran baiño ederragorik  
bakar-bakarrik Jainkoa;  
eguzki bera ezta aiñ argia  
nola zure arpegia...

*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

Zorionean sortua zera  
zeru ta lurren pozgarri,  
milla grazia dizkigutzula  
lurrera guri ekarri;  
izan dedilla kantu guria  
zeruko kantu alaia...

*Dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

*Kanta nai dizut, Ama neria,  
zure sorrera garbia,  
dana ederra zera, Maria,  
sortzetik orban gabia.*

**P. M.**

1898. Zemendiaren 25-ean.

*Euskalzale*, 1898-XII-8.

## Jesusen jaiotzan

---

*Gaur Jesus ikusteko  
daukagun gogoaz,  
len-bait-len iristeko  
Belenera goaz.*

Ara artzaiak zaitzen  
mendian ardiak,  
eta zerutik bera  
aingeru-taldiak,  
argiz edertzen mendi  
ta Belen aldiak;  
eguerdia diruri  
gaurko gaberdiak.  
*Gaur...*

Ara txabola baten  
lastoakiñ aska,  
orra Aur-Jainkoaren  
lurreko seaska;  
astoa ta idia  
berari arnaska,  
gaxoa otz da eta  
berotzeko dauzka.  
*Gaur...*

Gloria Jainkoari  
an zeru goietan,  
pakea gizonari  
lurbira onetan;  
poza ta atsegiña  
alderdi danetan  
Jesusen jaiotzak du  
banatzen benetan.  
*Gaur...*

Jaungoiko ta gizona  
txabola batean,  
Zeruko Erregea  
amaraun artean;  
zer erakusten digun  
ala egotean,  
zentzurikan badegu,  
oartu gaitean.  
*Gaur...*

Mendiak bera datoz  
lasterka artzaiak,  
Jesusi ekartzera  
esne ta gaztaiak;  
biotzean poza ta  
arpegi alaiak,  
gaurtikan geralako  
Jesusen anaiak.  
*Gaur...*

Ona, Jesus maitea,  
nun zure jaiotzak  
pozez bete dituen  
guzion biotzak;  
berez badira ere  
gaixo eta otzak,  
arren artu itzatzu  
betiko zuretzat.  
*Gaur...*

**P. M.**

1898-ko Lotazillaren 16-an.

*Euskalzale*, 1898-XII-22.

## Iru Erregeak

---

*Jesus nun jaio dan jakiteko  
gaur artu degun gogoak  
gakaraz bidean gu, sortaldeko  
iru Errege Magoak.*

Izar ederrez berdin gabe bat  
sortaldean da agiri,  
jende guziak arriturikan  
begira daude berari;  
aurrerantzean bide egiñaz  
mugitzen dala diruri,  
iru Errege ondoren datoz  
bera dutela gidari.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Erodes galdez jakintsuari  
Mesias jaio ote dan,  
erantzun dute jaioa izan  
bear duela Belenen.  
«Lagun maiteak –esaten die–,  
zuek joanik al dan lenen,  
adoratu ta atozte berriz  
nerau joan nadiñ ondoren».  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Jerusalenen sartzerakoan  
izarra zaie gordetzen,  
baiña sinismen berak dutena  
argiro dute agertzen;<sup>1</sup>  
Erodes beren aurrean dute  
baiña eztira bildurtzen,  
nun jaio ote dan judioen  
Errege ari galdetzen.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

Belenerako bidean zaie  
berriz izarra argitu,  
Errege oiek Jesusengana  
berak eraman nai ditu;  
txabola zartxo baten gañean  
zaielarikan gelditu,  
errege danen Errege Jauna  
barruan dute arkitu.  
*Jesus nun jaio dan jakiteko...*

---

<sup>1</sup> *Euskalzale-k*: argiro dotu agertzen.



Arriturikan ango pobrezaz  
daude Aurrari begira,  
dizkiotela eskeintzen gogoz  
intzentsu, urre ta mirra;  
Jaungoiko-gizon-erregeari  
dagozkion doaiak dira,  
Jesusek berriz itz egin die  
biotzen erdi-erdira.  
*Jesus nun jaiο dan jakiteko...*

Atzeruntzkoan egitearren  
aingeruaren esana,  
biurtzen dira beren errira  
joan gabe Erodesgana.  
Pozik zoazte, adoraturik  
lurrean Zeruko Jauna,  
beronek eman degizueta  
glorian koroe bana.  
*Jesus nun jaiο dan jakiteko...*

**P. M.**

1889-ko Ilbeltzaren 2-an.

*Euskalzale*, 1899-I-5.

## Justa Jesus aingerutxoari

---

Udaberriko lore  
eder atsegiña,  
paradisua ere  
etzan zure diña;  
zeruko loretegi  
osoro apaiña  
zu ara aldatzeko  
da Jaunak egiña.

Izarrik ederrena  
bezela argia,  
bataioko graziaz  
anima garbia;  
lurrean bizitzeko  
ziñan onegia,  
oraiñ zeruan dezu  
betiko gloria.

Guraso batek ai zer  
zoriona duan,  
idukitzean bere  
ume bat zeruan!  
Bitartekoa beti  
Jaunaren onduan,  
zorion berdiñikan  
gabea munduan.

Zure eskutik artu  
ditzala Jainkuak  
gurasoak ixuri  
dituzten malkuak;  
zure ondoan gorde  
oentzak lekuak,  
arkitzeko zorion  
azken gabekuak.

Iltzea ez da izan  
zure eriotza,  
baizik lurretikako  
zerura jaiotza,  
alabatzeko bertan  
Jesusen Biotza,  
beti-betiko dana  
zeru-lurren poza.

Guri agur egin ta  
zerura joatian,  
Jaunak ipiñi zaitu  
aingeru tartian,  
gure zaitzalle ortik  
zu izan zaitian,  
bertan laztan zaitzagun  
egunen batian.

Pedro Migel Urruzuno-koak

Bertso auek *Justacho-ri* izeneko liburu-moduko batean agertu ziran. Irugarren orrialdean onela esaten da: «Justa Jesus Enrile ta Arzac zeri-tzaion aingeruaren oroipenean bere familiari *Euskal-Erria*-n izkribatzen dutenak».

Oker ez bagaude, Antonio Arzak jauna (1855-1904) zan garai artan *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendaria. Itxura danez, beraren illoba izango zan Justa Jesus Enrile ta Arzak ori; eta, au ildakoan, liburu oroigarri ori eskeiñi nai izan zioten, osabari batez ere, aldizkari ortan euskeraz eta erde-raz idazten zutenak: Biktoriano Iraola, Ramon Artola, Karmelo Etxegarai, Manuel Antonio Antia, Klaudio Otaegi, Jose Inazio Arana, Marzelino Soroa, Felipe Arrese Beitia eta abar eta abar.

*Lagun zaiguzu guk bear ainbat  
gauden artean munduan,  
beti ere bai, baiña geien bat  
eriotzako orduan.*

Zuri eskeintzen dizut, Maria,  
nere lan emen asia,  
arren iritxi zadazu oraiñ  
eskatzen dedan grazia;  
bada zaitugu bitartekotzat  
Jaun Zerukoak utzia,  
zure senarra alabatzeko  
da nai nukean guzia.  
*Lagun...*

Zure biotza da lorategi  
birtute danez egiña,  
kastidateko lirio zuriz  
aingeruakin berdiña;  
bakarrik zugan arkitutzen da  
birtute bear adiña,  
izateko zu bere laguntzat  
Mariak artzeko diña.  
*Lagun...*

Orain, Josepe, zugana nator  
nai baninduzu aditu,  
zeruak bere graziak ondo  
zure gaiñ ixuri ditu;  
birtute eder zureaz beti  
emen gaitezen oroitu,  
nik nai zinduzket beti-betiko  
izarras gañetik goitu.  
*Lagun...*

Zeruko Aitak bere Semea  
lurrean jaio orduko,  
zu jarri zaitu izan zaitezen  
beraren Aita-ordeko;  
izango zera Ama ta Seme  
bien aingeru guardako,  
nork esan zuri zeru goietan  
zer tronu zaitzun gordeko?  
*Lagun...*

Iduki arren Seme-ordeko  
zeru ta lurreko Jauna,  
arotz beartsu batek bezela  
egiten zenduen lana,  
izerdi zure bekokikoaz  
irabaziaz zer jana;  
orra ejenplo gaurko munduak  
oso bearra duana.  
*Lagun...*

Gure biotza eziñ aserik  
beti da zerbaiten gose,  
bakar-bakarrik nonbait zeruko  
glorian diteke ase;  
gure bizitza laburra bada  
edo ta naiz izan luze,  
ill gaitezala gogoz esanaz:  
«Jesus, Maria ta Jose».  
*Lagun...*

**P. M.**

1899-ko Epaillean.  
*Euskalzale*, 1899-III-16.  
*Euskal-Erria*, 1900.

## Ama Doloretakoari

---

*Ama Maria, badegu ere  
askotan egiñ pekatu,  
arren zaiguzu zure dolore  
zazpiakgatik barkatu.*

Baldin banator egun onetan,  
Ama nerea, zugana,  
adi zadazu arren mesede  
eskatu nai dizudana:  
nere indarraz gañetik dago  
asi nai nukean lana,  
lagun zadazu zure onrara  
zuzendu dezadan dana.  
*Ama Maria...*

Pozik baziñan ere joan izan  
Jerusalengo tenplora,  
Simeonek an esan dizunak  
ekarri dizu gogora  
zure Semeak igaro bear  
duen Pasio gogorra.  
Nola etzera illik gelditu  
bertan, izanik ilkorra?  
*Ama Maria...*

Zure dolore aundiak oraiñ  
emen nai nituke esan,  
zeinbat sufritu izan zenduan  
munduak ikusi dezan;  
asko ezpazan mundu onetan  
bizitutzea pobrezan,  
zazpi ezpataz zure biotza  
erdibitua izan zan.  
*Ama Maria...*

Erodes jaunak gaiztakeri bat  
neurri gabea egin du:  
bi urtetikan berako ume  
danak iltzeko agindu;  
ala ere Jesus eziñ iltzea  
nai arren osoro min du,  
baiño biotza biziro dizu  
aginte onek samindu.  
*Ama Maria...*

Amabi urte zituanean  
zenduen Semea galdu,  
orduan etzan izan naigabe  
zugana etzanik eldu,  
itxasoaren bagak bezela  
zitzaizkitzula ugaldu,  
eta osoro biotz guzian  
samintasuna zabaldu.

*Ama Maria...*

Izerdi larri odolezkoa  
eman zuanak baratzen,  
gurutzetikan jetxi ta zure  
magalean du nai etzan;  
laztan ta malkoz beteko dezu,  
baiño bear dizut esan:  
begira kontuz zure biotzak  
eztanda egiñ eztezan.

*Ama Maria...*

Samintasunen kalean Jesus  
gaizkille baten modura,  
lapur birekin, ara erdian,  
semerik maiteen ura;  
zu berriz negar zoli eginta  
begiratuaz zerura,  
eztakit nola miñaren miñez  
eztezun jotzen or lurra

*Ama Maria...*

Magal zuretik gorputz ill ori  
obiratzeko dabilta,  
ori da beste pena guziaz  
gaiñetikako ekaitza;  
samintasun au bera asko da  
apurtutzeko arkaitza,  
iltzea baiño txarrago zaitzu  
bakarrikako bizitza.

*Ama Maria...*

Semea illik Amari penak  
egin diotela gaiñez,  
pekatariok bete zaitugu,  
Ama maitea, iraiñez;<sup>1</sup>  
martirioa zuretzat oraiñ  
asten da berriro ziñez,  
gurutzearen oiñean zaude  
ill nai eta ill eziñez.

*Ama Maria...*

Ama maitea, nigatik Jesus  
gurutze batean ill zan,  
baiño ala ere oraiñ artean  
kontuan erori ez nintzan;  
lagun zadazu aurrerakoan  
egingo dedan bizitzan,  
zure laguntzak ditudan asmo  
santuak indartu ditzan.

*Ama Maria...*

Mundu onetan ondo dakigu  
zeinbat naigabe dagoan,  
zure dolore zazpi oiezaz  
ez naiz aztuko beiñgoan;  
atsekabeen gozagarritzat  
izango ditut gogoan,  
onela beti burueraz naiz  
egongo zure ondoan.  
*Ama Maria...*

Nere asmoak, Ama maitea,  
ikusten dituzu oraiñ,  
bakarrik nai det zu maitatzea  
gauza guzi-guziaz gaiñ;  
ordua nuen konturatzeko  
eta asi beiñ edo beiñ  
zu ezagutu eta maitatzen,  
noizbaiten zerura nadiñ.  
*Ama Maria...*

**P. M.**

1899-ko Epaillean.

*Euskalzale*, 1899-III-23.

---

<sup>1</sup> Iraiña: *agravio*. (*Euskalzale* aldizkariaren oarra).



## Jesus gurutziltzatuari

---

*Gurutze ortan nigatik eman  
dezun ezkerro bizia,  
arren indazu nik bear dedan  
zeruratzeko grazia.*

Zugana nator, Jesus nerea,  
Kalbarioko mendira,  
gurutzearen oiñean emen  
jartzen naitzatzu begira  
gorputz danera, baiña geienbat  
saiets zureko zaurira;  
nere begiak malko ixurtzen  
gaur aspertuko eztira.  
*Gurutze ortan...*

Il ta gero're gorrotatutzen  
zaituzte, Jesus maitea,  
nonbait naikoa etzan bizia  
gugatik zuk ematea;  
oraiñ zulatzen dizute zure  
biotz amorez betea,  
ortik gelditzen zaigula zabal  
guri zeruko atea.  
*Gurutze ortan...*

Esku-oiñetan iltze gogorraz  
idikirikan lau zauri,  
iturriaren ura bezela  
dezu odola ixuri;  
pekatuz zikiñ geunden animak  
elurra bezela zuri  
jarri gaituzu, baiña garesti  
kostatzen zaizula Zuri.  
*Gurutze ortan...*

Zure buruan jarri dizuten  
koroï arantzaz egiña,  
dago esaten oso argiro,  
konturatuko bagiña,  
pentsamentuzko pekatua're  
eztala gauza ariña,  
kentzeko bear izan danean  
sendagarri aiñ samiña.  
*Gurutze ortan...*

Burutik eta oiñetaraño  
dana zauri bat egiñik,  
ezta sortu ta ez sortuko're  
zuk izan eztezun miñik;  
ez eta ere atsekaberik  
zurea beziñ samiñik,  
nere pekatu larriakgatik  
nai nuke negar egiñ nik.  
*Gurutze ortan...*

Atsekabetu izan bazaitut,  
Jesus maitea, orlaiña,  
zer da lurrean eman neikizun  
pekatuaren ordaiña?  
Baldin ordaindu ezin bazaitut  
zorra dizudan adiña,  
malkoz bustirik emen uzten det  
gaur gurutzearen oiña.  
*Gurutze ortan...*

**P. M.**

1899-ko Epaillean.

*Euskalzale*, 1899-III-30.

**Aldareko Sakramentu  
guziz done edo santuari**  
(*Sacris solemniis bezela eresteko*)

---

Zeruen Jaunari  
ematen omena  
pozik gera ari;  
o Jaunik onena,  
egiñik janari  
gure animena;  
au da gure sinismena.

Ai au miraria:  
ogi pixka baten  
bere aragia  
degula guk jaten;  
nai ala guzia  
odola edaten,  
Jaunak digula ematen.

Azken afarian  
nai izan zenduan  
ogi-idurian  
gelditu munduan;  
oraiñ aldarian  
prest nai dan orduan  
sartzeko gure barruan.

Lenago iñola  
ezteguna entzun:  
orra Jesus nola  
utzi dizkigutzun  
gorputz ta odola.  
Ai zenbat ontasun!  
Ai bageneza erantzun!

Ogia gorpuztu,  
ardoa odoldu,  
eta ezereztu,  
ala ere galdu;  
bear degu poztu,  
zeren dan ugaldu,  
danokgana dedin eldu.

Zeru eta lurren  
Jaun ta Nagusia,  
zera animaren  
lurreko bizia;  
izan zaite arren  
gure poz guzia,  
iguzu zure grazia.

P. M.  
*Euskalzale, 1899-VI-1.*

**Jesusen Biotzari**  
(*Corazón Santo*-ren doiñuan).

---

*O Biotz maite*  
*Jesusena,*  
*zerura bide*  
*txit zuzena!*

Pekatarien  
iges lekua,  
guk nola bear  
alakua.  
O amorioa  
sekulakua,<sup>1</sup>  
zeru ederren  
balakua!<sup>2</sup>  
*O Biotz...*

Biotz amorez  
irazekia,  
gugatik burniz  
irikia;  
gure atsegiñ  
ta poz bakia,<sup>3</sup>  
izazu guzaz  
errukia.  
*O Biotz...*

Gure animen  
mana gozua,  
zeruratzeko  
erosua;  
biotzen iman  
oso altsua,  
iguzu bizi  
doatsua.  
*O Biotz...*

Eman dituzu  
odol ta ura,  
zugar sartzian  
burni ura;  
sartu gaitzatu  
zure barrura,  
eramateko  
gu zerura.  
*O Biotz...*

Zauri guzien  
sendagarria,  
gure biotzen  
lokarria;  
amorioak  
erakarria,  
gure onean  
or jarria.  
*O Biotz...*

Zeruak ainbat  
balio duen  
urrutxoa<sup>4</sup> zu  
zaude emen;  
zuri millaka  
esker ta omen  
betikotasun  
danez, amen.  
*O Biotz...*

**P. M.**

1899-ko Bagillaren 5-an.  
*Euskal-Erria*, 1899.  
*Euskalzale*, 1899-VI-15.

---

<sup>1</sup> Sekulako: *por siempre*.

<sup>2</sup> Balakua: *caricia*.

<sup>3</sup> *Único*.

<sup>4</sup> Urrutxoa: *tesoro*. (*Euskalzale* aldizkariaren oarrak).

## Ama Birjiña Errosariokoari

---

Errosarioa da  
erregu onena,  
errezatu dezagun  
alik ondoena.

Aita gurea degu  
Jesusek esana,  
Abe Maria berriz  
aingeruarena.

Errosarioa nai  
bada esan oso,  
lenbiziko ditu bost  
misterio gozo.

Beste bost misterio  
osoro samiñak,  
nola diran Jesusen  
oñaze ta miñak.

Gloriazkoak ditu  
azkenik beste bost,  
orra nola guziak  
dituan amabost.

Larrosa ederra da,  
baita lirioa,  
baiño ederragoa  
Errosarioa.

Domingo Guzmangori  
Zuk erakutsia,  
Errosarioa da  
gure poz guzia.

Domingo Guzmangoak  
erakutsi digu,  
zuk naien dezun eran  
egiten erregu.

Amairugarren Leon,  
Eleizako buru,  
gidari degularik  
gabiltza seguru.

Aita Santu Leonek  
esan digu guri  
errezatzeko gogoz  
Ama Mariari.

Amarikan onena  
guretzat da bera,  
Errosarioaren  
zaleak bagera.

Otoitz au da etsaiak  
lotzeko katea,  
idikiko diguna  
zeruko atea.

Elizaren premiak  
andiak badira,  
zerutik dagokigu  
Maria begira.

Errosarioa da  
gure osasuna,  
bera lurrean gure  
zoriontasuna.

Bere etsaiak dabiltz  
egiñal guzian,  
baiño Mariak dauzka  
danak oiñ azpian.

Sarritan errezatzen  
badegu lurrean,  
bertan biziko gera  
pake ederrean.

Errosarioa da  
egiaz, bai, Ama,  
erejiak iltzeko  
onena dan arma.

Esaten degunean  
otoitz aiñ ederra,  
pozik deitzen dizugu  
goizeko izarra.

Itxas-gizonak oi du  
esan itxasoan  
erregu eder ori  
atsegiñ osoan.

Zauriak sendatzeko  
dana olioia,  
animarentzat degu  
Errosarioa.

Nekazaria gabaz  
etxera dijoa,  
pozik errezatzera  
Errosarioa.

Iturri baten nola  
ura jarioan,  
ala mesede danak  
Errosarioan.

Errosarioaren  
bitartez Mariak  
zeruratuko ditu,  
bai, pekatariak.

Errosarioaz Zu  
nai zaitugu emen  
onratu, eta gerok  
zeruratu. *Amen.*

P. M.

1899-ko Irailaren 25-ean.

*Euskalzale*, 1899-X-15.

**Aita San Frantzisko Asis-koaren  
Irugarren Ordenan**  
(*Iste confesor bezela eresteko*)

---

Aita Frantzisko  
degula gidari,  
damututako  
zenbait pekatari,  
omen emanaz  
semeok Aitari,  
gatoz kantari.

Bide txarretan  
zabiltzan gizona,  
atoz len-bait-len,  
atoz, bai, gugana;  
bada Orden au  
degu guziona,  
portu txit ona.

Zorionean  
animen egarri  
zerala, dezu  
Ordena au jarri,  
eta gaituzu  
bertara ekarri,  
danon pozgarri.

Munduko gure  
neke ta penetan.  
eta etsaien  
guda-uneetan,  
seguru gaude  
gaztelu onetan  
bene-benetan.

Illuntasunak  
kentzeko argia,  
oso argitzen  
diguna begia,  
birtutez egiñ  
dan loretegia,  
ai zer egia!

Badirau urte  
askoren buruan,  
zori aiñ on au  
guretzat zeguan;  
iraun dezala  
emen luzaruan,  
gero zeruan.

**P. M.**

1899-ko Iraillaren 25-ean.  
*Euskalzale*, 1899-X-22.



## Ama Birjiña Kontzeziokoari

---

*Guzi-guzia ederra zera,  
jatorriz orban gabia,  
Zuri begira Jainkoa bera  
pozikan dago, Maria.*

Jainkoak egiñ nai izan zaitu  
mirari danen mirari,  
sortzetik zugan ixuririkan  
grazia oso ugari;  
zeru ta lurak or dagozkitzu  
pozez beterik kantari:  
«Bedeinkazio eta gloria  
Jaungoikoaren Amari».  
*Guzi-guzia...*

Amabi izar ederrek dute  
apaintzen zure burua,  
Jainkoak egin dizu oiekiñ  
Erregiñaren korua;  
bada sortzetik diozu bete  
ainbeste bere gogua,  
nun utzi dizun zure eskuan  
oso-osorik zerua.  
*Guzi-guzia...*

Jaun Zerukoak egiñak dira  
lurrean diran loreak,  
gure larrosak ederrak dira,  
Jerikokoak obeak;  
baiña onenak dira dauzkanak  
zeru ta lurren Jabeak,  
zeru bertako lorategian  
zu apaintzeko gordeak.  
*Guzi-guzia...*

Zeru urdiña dagoenean  
oso betea izarrez,  
iduritzen zait jantzi Jainkoak  
apaindu dizuna urrez;  
baiño Zurekiñ zer berdindurik  
arkitu eziñ det errez,  
zeren zeruak berak dituzun  
gaindu ederren ederrez.  
*Guzi-guzia...*

Usai gozoa ematen digu  
lirio eder zuriak,  
gozoagoa Jainkoari Zuk  
egin diozun zuriak;  
Aren biotza dauka amorez  
zauriturikan zuriak,  
zure birtute ederrak dira  
preso daukaten sariak.  
*Guzi-guzia...*

Antziñetatik, sortu baiño len,  
zeunden Jaunaren goguan,  
sortzean berriz Zuri begira  
pozez zorutzen zeguan;  
zere ordutik alegiñ guziz  
bera maitatu zenduan,  
arren iguzu guri grazia  
zu ikusteko zeruan.  
*Guzi-guzia...*

**P. M.**

1899-ko Zemendiaren 28-an.

*Euskalzale*, 1899-XII-10.

### I

Aspalditxoan illun zijoazen egunak Irunetako barrunbean.

Etxeko seme bakarrak Kubara bear zuen joan, eta Kubatik berri txarrak zetozen. Sei milla erreal ateratzen etzan errez, eta aterata ere aiei erantzuten lanak ziran.

–Prantziara iges egitea ere– esan zuen semeak goiz batean, baiño aotik atera orduko amak erantzun zion:

–Ez, ene semea, orrelako burutaziorik artu. Zuk iges egiten badezu, baliteke beste batek zure ordaiñez joan bear izatea: eta orduan nere negarrak samiñagoak izango lirake, gogoratzean batetik zu etzaitudala geiago ikusiko, bada ni ez naiz Prantziara joango, eta bestetik iñori negar eragiten diogula, zergatik zure ordaiñez dijoanari, eta batez ere bere amari, negar eragingo gini-kion. Baldin Kubara tokatu bazaitzu, zoaz, eta Jaungoikoak lagunduko dizu. Ama Birjiña Kontzeziokoa izan det beti nere Ama, eta oraindaiñoko estutasun guzietan lagundu dit. Ziur nago aurrera ere ala egingo didala. Etzaite aztu zu ere gai onetan erakutsi izan dizudanaz, eta zerua irabazteko bear dezuna berak emango dizu. Gaiñerakoaz eztegu ainbeste ardura izan bear. Jainkoak nai badu, biurtuko zera atzera; bestela, berriz, zeruan betiko elkarganatuko gera.

Semeak au guzia ixill-ixillik aditu zuen, eta esan zion amari ala egingo zuela.

### II

1897-ko Zemendiko goiz batean, illunetan, ateratzen ziran etxetik iru lagun: Patxi ta Antoni, senar-emazteak, eta Juan Tomas, beren semea, lo andirik egin gabe aurreko gabean.

Aita-semeak Donostiara zijoazen eta ama elizara.

–Nere esanaz ez aztu, seme –esan zuen amak–, eta, lurrean ezipada, zeruan ikusiko gera.

Ala aditu zuten auzokoren batzuek, baiño etzuten aditu semeak ezer erantzun zionik.

Simon Landes zeritzan auzoko gizon zar batek bazuan ustakida mutill uraxe osasunaz Kubatik biurtuko zala, bestegatik ezpazan ere bere amaren sinismen biziagatik. Ama au goizean goiz jaiki eta elizara zijoan egunero, meza entzun eta Ama Birjiña Kontzeziokoari bere erreguak egitera, bere semearen onerako:

–Zure eskuetan uzten det, Ama ona, nere seme maitea; nere egarri bakarra da bere anima salbatzea, eta onetarako, bizitza edo eriotza, osasuna edo gaitza, ondoen dagokiona egiozu. Erruki zaite ere bere gurasoaz.

Era onetakoak oi ziran ama onen erreguak, laburrak baiño sutsuak.

Asi ziran etortzen Kubatik semearen eskutitzak:

«Ama, erregutu asko nigatik, eta au bera egin dezatela erretore jaunak, mojak eta nizaz galdetzen duten lagun eta adiskideak. Emen eztegu mezarik entzuten; izan ditugu etsaiekiñ su gogorrak, baiño ondo nabill, Jainkoari eskerrak, oraiñ arte beñepeñ. Askoroitzen naiz or egingo diran Maiatzeko loreaz eta gaiñerako eliz-puntzioaz, baiño emen eztegu ezertxo ere egiten. Ala ere uste det oraindik berriz ere erestuko ditudala meza, bezperak, salbea eta Maiatzeko loreak, orrera biurtzean, Jaungoikoak nai badu.

Bialdu zaizkidatzu iru pare eskuplaio aztu gabe, bada emen guzien bear gera».

Korrio guzietan zetozen eskutitzok eta guziak berdintsu, gutxi gora-bera. Baiño eldu zan Kubaren *blokeoa*, eta etzetorren eskutitzik. Bukatu zan blokeoa eta etzan ageri eskutitzik. Jaungoikoak bakarrik zekien zenbat negar egiten zuen ama gaixoak, bada bere erreguak igotzen ziran zerura malkotan bustirik.

### III

1898-ko Gabon eguneko goiza zan eta emakume gaztetxo bat zegoan Irunetako atarian, eskutitz bat eskuan zuala: Juan Tomas bazetorrela Kubatik; neska gaztetxo orren aizpak ikusi

zuen ontzitik ateratzean Malagan, eta itz egiñ zuen berarekiñ. Ala zioan eskutitzak.

Amaren biotza gelditu zan berri onekiñ itxasoa baiño ere zabalago, eta joan zan elizara Ama Birjiña Kontzeziokoari eskerak ematera, eta ondorean bere senarra lanean ari zan lekura, berri au ematera. Aitak, berria aditzean, txapela erantzi eta zerura begira arrendu zuen salbe bat, eta esan zuen:

–Aurtengo gabonak igazkoak baiño alaiagoak izateko itxurak daude, beraz. Ala Jainkoari nai dakiola.

–Noizko etxerako ote da gure semea?

Egun artan gutxienez ogei aldiz egiñ zuen amak galde au.

#### IV

Errosario santua eta berrogei abe-mariak arrendu ta apaltzera zijoazen Irunetako senar-emazteak. Ataritik egiñ eta sukaldean aditu zan aupada batek ukitu bear izan zion biotzaren erdi-erdian Antoniri, bada tximista baiño azkarrago jaiki zan esanaz:

–Ene! Nere semea!

–«Txakur goseak artoa amets» –erantzun zuen senarrak; baiño amaren biotza etzan engañatu.

–Juan Tomas zera? –galdetu zion, atea idikitzeke astirik gabe.

–Bai, ama –erantzun zion semeak–. Juan Tomas naiz.

Eta, idiki bezin laster, elkar laztandu zuten, baiño itzik egiteko adorerik gabe. Aita ere joan zan bi saltoan atarira; baiño berak ere eztakite beren artean zer igaro zan.

Bien bitartean, txakurrak eta katuak gabon-apari ona egin zuten, bada erdia aiek jan zuten; baiño ala ere gaiñerakoarekin oraindik geiegi zuten irurak.

Juan Tomas eziñ aspertu zan esatez, eta ezta ere gurasoak aditez semearen urte beteko ibillerak. Upela bete negar egin zuten gurasoak semearen mixeriak aditzean.

Atera zuen semeak eskuplaio bat, berri-berria, eta bestea zeukan soiñean. Muñ egiñaz eskuan zeukanari, esan zien gurasoi:

–Zer edo zerk lagun egin dit; eta zer edo zer ori ezta besterik baizik eskuplaioa.

Berriz muñ egin eta eman zion amari eskuan zeukana, ondo gorde zezan, eta lotaratu ziran amaiketerdian.

## V

Juan Tomas gaixo zetorren eta ondorengo sei illlabeteen oso bigun ibilli zan. Baiño esker lenengo Jainkoari eta gero bere amaren ardura andiari, gaur arkitzen da sendaturik; meza ta bezperak jaietan eresten ditu, maiz komulgatzen da, pelotan jokatzen du, lan egiten du gogoz, eta bere gurasoak pozez txoro egiñik daude berari begira.

Aurtengo Gabon gabeen, Jainkoak nai badu, eresi bear omen ditu, gurasoakin batean, lenago ere iñoiz eresi izan dituan itz neurtuak era onetan:

*Goazen alkarren laguntzen,  
goazen al bait lenen,  
gure Jesus dezagun  
ikusit Belenen.*

Estalpe zartxo baten  
Belendik alboan,  
aurtxo jaio berri bat  
ara non dagoan;  
Jainkoa izan arren  
beartsu dago an,  
ikasi dezagun zer  
erakusten duan.  
*Goazen...*

Ostaturik Belenen  
ezta Aur onentzat,  
eta estalpean du  
aska bat oetzat;

lasto artean *kir... kir...*  
Aur gaixoa otzak  
ai zein gogorrak diran  
gizonen biotzak!  
*Goazen...*

Nork esango zukean,  
Jainkoa izanik,  
gu zeruratzearren  
gizonduko zanik?  
Ikustean Aur ori  
lastotan etzanik,  
izango da biotzik  
biguntzen eztanik?  
*Goazen...*

Estalpe zartxo onek  
barruan du aska,  
orra Jainko-Aurraren  
lurreko seaska;  
idia ta astoa  
Aurrari arnaska,  
gaixoa otz da eta  
berotzeko dauzka  
*Goazen...*

Aingeru batek die  
esan artzaiai  
Salbatzaillea jaio  
zaiela berai;  
ara nola datozen  
bildotsekin alai,  
Belenen dutelako  
Jesus ikusi nai.  
*Goazen...*

Millaka aingeruak  
gabaren erdian  
ara nola zerutik  
datozen airian;  
danak datoz eresten  
gau aiñ ederrean:  
«Gloria zeruan ta  
pakea lurrean».  
*Goazen...*

**P. M.**

1899-ko Abenduaren 19-an.

*Euskalzale*, 1899-XII-24.



*Ordu onean, obispo jauna,  
betor bedorren errira,  
gure biotzak pozez beterik  
gaur emen arkitzen dira.*

Zorionean egun eder bat  
gaur Jaunak digu argitu,  
goiz-goizetikan galararikan  
pozez beterik arkitu.  
Obispo jaun bat datorkigula  
degunian guk aditu,  
berri aiñ onak gure biotzak  
gozoro alaitu ditu.  
*Ordu onean...*

Ongi etorri izan dedilla  
bedorren jaioterrira,  
Elgoibar dana atsegiñ andiz  
dago bedorri begira.  
Erriko seme onak osoro  
maite izaten badira,  
maitasunean ezta elduko  
besterik gure neurrira.  
*Ordu onean...*

Zorioneko egun eder au  
ezta aztuko beinguan,  
gure ustetan bizi guztian  
izango degu goguan.  
Begira nola erri guzia  
pozez beterik daguan,  
egun oberik bakar-bakarrik  
arki diteke zeruan.  
*Ordu onean...*

Bendizio bat eskatzen degu  
bedorren eskuz emana,  
baitare egiñ nai genikio  
eraztunean mun bana,  
zeru goitikan jetxi ditezen  
grazi ugari gugana,  
iritxitzeko zorion gozo  
beti iraungo duana,  
*Ordu onean...*

Santo Domingok baditu seme  
misiolari andiak,  
testigu dira erri guziak  
eta geienbat Indiak.  
Beren odolaz busti dituzte  
ango ibar ta mendiak,  
obispo jaunak ondo daki bai  
zer diran ango jendiak.  
*Ordu onean...*

Jaunak ditzala bere egunak  
emen lurrean luzatu,  
gure anima eta gorputzen  
premiak ditzan osatu.  
Leku danetan ongi egiñaz  
bere denbora pasatu,  
koroia emen irabazita  
zeruan dezan gozatu.  
*Ordu onean...*

**Pedro Migel Urruzuno ta Salegi**

«Elgoibartar seme agurgarri Frai Frantzisko Agirre, Botrya-ko Obispoa (Fou Kien, Txinan) urte asko igaro ta bere errira biurtu zanean donki-tuak».

Bertso auek Elgoibarren eskuratu nituan, makinaz idatzitako orri batean.

## Ama Doloretakoari

---

Aitortzen dizut, Ama nerea,  
egin dedala pekatu,  
atsekabetu zaitudala nik  
eziñ dezaket ukatu;  
baña nai dizut atsekabea  
atsegiñetan trukatu,  
bizitza on bat asten dedala  
ondo dezadan bukatu,  
lendabiziko nai dizut bada  
barkazioa eskatu,  
zazpi dolore zureakgatik  
arren zadazu barkatu.

**P. M.**

*Ibaizabal, 1902-III-23.*

Gurutze baten illik  
ta iltzez josirik,  
negarrez gaude, Jesus,  
Zu or ikusirik;  
miñaren miñez orra  
arkaitzak autsirik,  
eta gu nola egon  
gindezke bizirik?

**P. M.**

*Ibaizabal, 1902-III-23.*

Obe zukean Baxilik,  
egondu bazan ixilik.

### I

–Zer berri, Baxili?

–Emen nago ernegatzen aste guzian.

–Zergatik ba?

–Erretratuaren zai; erri guziak badaki bialtzeko didatela, beti galdeka daukat jente guzia, eta eskribitu egiñ bearko diot nere nagusiari egin dezala mesede bialdu eraztiaz Jose Palluri agindu zidan erretratua.

–Ondo egingo dezu.

Egia esateko, erri guzia gortuta zeukan Baxilik bere jarduna-rekiñ, bere erretratua gora eta erretratua beera.

### II

*Muy Señor mío: Un pabor de suplicación para José Pallu, para amandar a mí el retrato que me está prometerri, porque estoy ernegando con tanto tardamiento.*

Andik iru egunera Baxili zegoan beste amar lagunekiñ, eta an dator korrioa Baxilirentzako karta andi batekiñ. Idiki zuan, baña etzetorren erretratorik, baizik paper andi bat inprentatua, eta nola etzeukan aldian antiojorik, agindu zion aizpari irakurri zezala; baña sermoia bezela, guziak ondo aditu zezaten. Ala, irakurri zuan aizpak:

Baxiliren erretratoa solpan:

Ille beltz eder eta mardula  
artuko luke baleuka,  
baztartutzeko beti-betiko  
oraiñ daraman peluka;  
ederra ere izan diteke,  
iñork ezingo du uka,  
edertasuna erosten balitz  
itxustasunaren truka.

Agiñ guziak osorik dauzka  
baña betilliak urdiñ,  
arrigarria: pertsona baten  
orra bi gauza desberdiñ;  
badiote're Bilbon ipiñi  
dituala ogei agiñ,  
betille oiek belztutzen berriz  
badu naikua zeregiñ.

Kejatutzen da buruko miñaz  
daukala ille geiegi,  
agiñaz ere esaten ditu  
orrelako zenbait egi;  
al balituzke siñisterazi  
itz bakoitzean gezur bi,  
damuko luke kontzientzian  
eziñ esana bi t'erdi.

Gazeta batek baño geiago  
eguneroko berriak,  
berak asmatu eta esanak  
gutxienian erdiak;  
egun batian gezur diranak  
bestean ditu egiak,  
baña gauz ona: guziak dauzka  
prezio baten jarriak.

Egun geiena igarotzen du  
ixpilluan jai ta aste,  
luzitu naia ezta milagro  
dagoalarik aiñ gazte;  
ogei bat urte aitortzen ditu  
gorderik beste ainbeste,  
sekreto oien berririk iñork  
dakienik eztu uste.

Onen ustean mundu guzia  
dago berari begira,  
baña guziak ikuste utsaz  
beingoan aspertzen dira;  
ibilli arren erromeri ta  
plazatan jira ta bira,  
saldu ezin dan prenda bezela  
atzera dator errira.

Dantza leku ta plaza danetan  
bera da beti aurrena,  
lanik asko du disimulatu  
eziñik bere errena;  
guziakgandik aditzia nai  
bera dala ederrena,  
bere burua edertu naia  
da daukan gaitzik zarrena.

Senargaiak bi izandu ditu  
baldiñ bada're gaztia,  
barkillerua lenbizikua,  
soldadu zarra bestia;  
baña diote: «Zertako degu  
pelukadun emaztia?  
Aurrera ere obeko degu  
len bezelaxe utzia».

Apainduririk eztuala nai  
baña bai ondo jaztia,  
piper miña da onentzat iñor  
apaiñago ikustia;  
fed-esperantzak zerbait baditu  
baña arako bestia,  
apurtxoren bat badauka ere  
bera ondotxo kostia.

Pazientzia asko bear du  
gure Baxili tristiak,  
auek entzun ta ez botatzeko  
tripan dituan estiak;  
lertu eztediñ eziñ nitzake  
esan gaurkoan guztiak,  
urrengo baten bere baimenaz  
esango ditut bestiak.

Zurkaizturik gelditu zan Baxili bertso oiek aditzian. Baña noizpait ere, arnas andi bat botata, esan zuan:

–*Ka! Imposible! Es kibokasion, deskuido.* Karta bat egiñ bear diot Jose Palluri.

«*Muy Señor mío: El ertrato solpa no es así para mí, sino para Casill Mortzill Tarabilla, como a mí parecido, y digamúste si es kibocasión para ermediar deskuido*».

Baña *mirusté y qué preskura!* Jose Palluk etzion erantzun kartari.

Auzoan bizi ziran Baxiliren bi adiskide: Kaxill ta Zizili, aizpak. Pentsatu zuan Baxilik bere izena borratu bertso aietatik, onen lekuan Zizilirena ipini eta Kaxilli bialtzea, esanaz kartes-talki edo sobrean Baxiliren izena etorri zala, baña barruan Zizilirena zetorrela eta *por si akaso* begiratzeko bere aizparentzat ote zan erretrato ura.

Baxilik bialdu zuan ba bere ama karta edo solpako erretratuarekiñ. Leku onera!



Amak jo zuan atea Kaxillen etxean deadar:

–Kaxiill!

Baña:

Erantzun zuan Zizilik  
emen eztago Kaxillik;  
obe zukean Baxillik  
egondu bazan ixillik.

**P. M.**

1902-ko Bagillaren 16-an.

*Ibaizabal*, 1902-ko Bagillaren 22-an.

Errazoiagaz diardun,  
baña ez eñ alperrikan jardun.

### I

–Basili, piperra jan al dezu?

–Bai, ta... oso miña.

–Ezagun dezu.

–Zergatik, ba?

–«Mingaiñ erre, biotz erre» esan oi da ta...

–Eta zer?... Nere biotza errea al dago?

–Bai orixe esango nuke, kia dariola dago, ta... badakizu... sua dagoan lekutik ateratzen da kia, eta suak erre egiten du; Jose Pallu ibiliko da or, Jose Pallu.

–Jose Palluk artu du onuzkero karta ederra; eman bearko dit sastipasioa; bestela, an juango zaio enbargua. Esaten nion kartan: *sastipasión o embargasión*.

–Eta zer kenduko diozu Jose Palluri?

–Beste gauzarik ezpada, larrua, *pellejo*.

–*Pellejo* zaagia ezta, ba? Bizirik ere zaagitzat balio du ark. Amaika zaagi-azal egongo dira ark baño ardo gutxiago barruan iduki dutenak.

–Jainkoak gorde bearko du, ba, neri sastipasioa ematen ezpadit.

–Estutuko dala uste det urdalletik.

### II

Andik iru egunen buruan korrioak ekarri zuan Jose Palluren

## Sastipasioa

Pekatu bada fama  
norbaiti kentzia,  
atzera biurtzia  
da penitentzia;  
ala eman dirate  
oraiñ sententzia,  
Basilirekiñ bear  
da pazientzia.

Ez omen da egia  
nik lendik esana:  
señorita Basili  
neska zarra zana;  
ala izan dedilla,  
esan nai dan dana,  
baña gutxienaz da  
len gazte izana.

Oraindik ezpadago  
osoro zartua,  
urteetan dago, bai,  
aurrera sartua;  
baña iñola ere  
ez da pekatua  
izatea mundura  
antziña sortua.

Orain zar izan edo  
lenago gaztia,  
diferentiak dira  
bata ta bestia;  
baña ez da konbeni  
disputan astia,  
eta betozkoturik  
iñor ikustia.

Emakume oberik  
eztaukala lurrak,  
azal zuriagorik  
ezta ere elurrak;  
lodi eta mardulik  
bakarrik ezurrak,  
eta gañerakoak  
guziak gezurrak.

Oso gaitz izan bear  
du beltza zuritzen,  
alperrik nabillela  
zait gaur iduritzen;  
naiz tximiñua jantzi  
modara Parisen,  
tximiñua beti da  
tximiñu gelditzen.

Edertasunik saltzen  
iñun balegoke,  
kostako dana kostea,  
garesti naiz merke,  
zuretzat pozikan nik  
erosiko nuke,  
erregalatutzeko  
pelukaren truke.

Nere borondatea  
ona da izatez,  
erregiña ziñake  
nere borondatez;  
baita ere santa andi,  
biak bide batez;  
orra fama biurtu  
bertsoen bitartez.

Egiñ bearko dezu  
oraiñ esamiña  
erretratu au ondo  
dagoan egiña;  
edo egiten ote  
dizun sabel-miña,  
bada egia maiz da  
izaten samiña.

### III

*«Muy señora mía: ahí va un poco de porrusalda para templar nervios, que son guitarra-cuerdas paresidos. Si está gazi-punto, echusté agua; y si está guezacho, sal. Ahí está errestitución de pama quitao, y bersos no tienen aitzaquia; no hay que pegar illetas. Si no están de gusto, mandemusté molde; y mañana mejor.- Jose Pallu».*

Basilik etzekian ez non zegoan, ez zer esan eta ez zer egiten zuan. Alper, gaizto, lotsagabe, ordi, zikiñ, lapur, gezurti, Barra-basa... Auek ziran itzikan onenak. Aotik txinpartak eta kia botatzen zituan, eta begietatik su-garra.

Bizkaitar atso lodi eskale batek aditu zuan Basiliren errosarioa, eta galde zuan nola zuan izena emakume ark. Erantzun zioten Basili zuala, eta esan zuan ondo zetorkiola.

–Zergatik, ba?

–*Basilisco* erderaz, da euskeraz ersugea; eta Basili ere zerbait ala izango da, dirurienez; bestela, ipiñi bearko zitzaion Martinika.

–Zergatik?

–Su asko ematen dualako.

Ari zan ixilldu ere gabe Basili, aoak ekarri alian, eta esan zion bizkaitar atsoak:

–«Errazoiagaz diardun, baña ez eiñ alperrikan jardun».

P. M.

1902-ko Bagillaren 30-ean.

Ibaizabal, 1902-VII-6.

## Ama Birjiña Kontzeziokoari

---

*Mantxarik gabe sortua zera  
eder-ederrik guzia,  
ezin aspertuz Jainkoa bera  
ixurtzen zugan grazia.*

Esan al baiño geiago zera  
guzi-guzia ederra,  
ederra baiño ere geiago  
edertasuna berbera;  
ederragorik ezin diteke  
sortu begien aurrera,  
zuri begira txoro egiñik  
aspertzen ere ez gera.  
*Mantxarik gabe...*

Edertasunez zure berdiñik  
ezin diteke ikusi,  
eder guziak zure ondoan  
ematen dute itxusi;  
zure argiak deabrua ere  
bialdutzen du igesi,  
zure anparu azpian degu,  
Ama maitea, nai bizi.  
*Mantxarik gabe...*

Lurrean ezta zure antzeko  
lorerik duan jardiñik,  
ez eta ere Jaunaz ostean  
zeruan zure berdiñik;  
zure lekuan jartzeko ezin  
arki diteke ordaiñik,  
argatik zaude ango Erregiñ  
Jainkoak berak egiñik.  
*Mantxarik gabe...*

Eguzkia da zure jantzia,  
izarrak zure korua,  
oiekiñ Jaunak nai izan dizu  
apaindu zure burua;  
argitasunez ederturikan  
dago zure ingurua,  
zeruan bertan, Ama maitea,  
zera zeruen zerua.  
*Mantxarik gabe...*

Birtute danak lore dirala  
bada bat danen loria,  
kastidadeko lirio eder,  
dana birjiñen gloria;  
guk amorio dana daukagu,  
Ama, zuretzat gordia;  
izan zaite zu birtute ontan  
beti anparu guria.

*Mantxarik gabe...*

Adanen ume jaio geranok  
mundura larru gorrian,  
esperantzarik zukan bestetan  
eztegu emen lurrian;  
lagun zaiguzu maite zaitzagun  
ondo bizitza gurian,  
eta laztandu betikotasun  
guzian gero glorian.

*Mantxarik gabe...*

**P. M.**

*Ibaizabal, 1902-XII-7.*

*Baserritarra, 1907-XII-7.*

## Jesusen jaiotza

---

Aiñ otz dagoelarik  
eta gauerdian  
zer bear ote dute  
artzaiak errian?  
Egiñalean datoz  
presaka bizian,  
okerren bat gertatzen  
ote da mendian?

Odeien gañetikan  
jatxi da mendira  
aingeru bat esanaz:  
«Berri onak dira.  
Zoazte len baña len  
Dabiden errira,  
zuen Salbatzallea  
jaio dan tokira».

Artzaiak daudelarik  
ardien aldean,  
okerrikan ez dediñ  
izan artaldean,  
aingeruak zaizkate  
agertu airean,  
soñu alaiak joaz  
kantuen artean.

Zer poza ta atsegiña  
artzaitxo oiena!  
Bereala dijoaz  
lasterka Belena;  
daramate Aurrarentzat  
dutenik onena:  
arraultzak, esnea ta  
arkume gizona.

Aingeruak agertu  
zaiozkatenean,  
aditu zer dioten  
odeien gañean:  
«Gloria zeruan ta  
pakea lurrean,  
borondate oneko  
gizonen artean».

Belenen sarrerako  
estalpe batean  
arkitu dute Aurra  
askatxo batean;  
ikusi arren ere  
aiñ leku pobrean,  
belaunikatu dira  
beraren aurrean.



Lastoaren gañean  
dagoen Aurtxoa,  
mundua baña ere  
da lenagokoa,  
beste gauza guztien  
gañetikakoa,  
aragiz jantzi arren  
beti Jaungoikoa.

Amorioak dakar  
zerutik lurrera,  
zerurako bidean  
gizonak jartzera.  
Ez al degu joan bear  
artzaien antzera  
Aurtxoaren aurrean  
belaunikatzera?

*Guazen, guazen guziok  
Belengo estalpera,  
Aurtxoaren aurrean  
belaunikatzera.*

**P. M.**

*Ibaizabal, 1902-XII-21.*

Sail onek ez ditu bukaeran, besteetan bezela, *P. M.* izkiak agertzen: Pedro Migel, alegia. Baiña bertsoen joskera Urruzunorena da, dudarik gabe. Aldi ontan aztu egingo zitzaien *Ibaizabal* astekariaren arduradunei ori jartzea.

### I

Sagardotegiko atian azaldu zan igande-goizean erdarazko iragarri edo *anunzio* bat, era onetan:

«*Gran puntzion de bertsolaris mujeres. Una bieja sin kasar, soltera, y una joven sin biejar, casara, Materia sakatrapus. En las kuartropunto tarde. Entrada de konpiantza, sin pagar*».

–Krixan<sup>1</sup>, zer esan nai du iragarri orrek?

–Eztezu ulertzen edo entenditzen, Uxabi?

–Ez nik.

–Ba, esan nai du, gaur arratsaldeko lauretan bertsoetan jokatzera dijoazela.

–Nor ote dira?

–Bi emakume: bat andre ezkondua, eta bestea neska zarra.

–Izenik eztu jartzen?

–Ez; baña omen dira andre ezkondua basakatua; eta neska zarra zirauna.

–Ai zer pariak muserako!

–Ederrak.

–Nor dute juez?

–Don Braulio.

–Ara bestia!

–Bestia al da ura?

–Diot ba...

–Kontu gero! Um! Erdalzaletua dago, aberastu zan ezkerokoan; ta *bestia* deitzen badiozu, eta berak erderazkotzat artzen badizu...

–*Bestia* esanta're, ba, eztakit gezur andi-andirik esango ote diodan; anka biko *bestiak* ere izan oi dira ta...

–Ba, kontuz ibilli zindezke.

---

<sup>1</sup> Krisanto. (*Euskalzale* aldizkariaren oarra).

- Eta nork ipini du iragarri ori?
- Don Brauliok.
- Eta nork pagatuko die bertsolariai?
- Don Brauliok.
- Ba, ba, beraz, izena jarria dauka: anka biko *bestia*.

## II

Arratsaldean an zeuden sagardotegian, upelaren ondoan, Don Braulio, *Basakatua* (andre ezkondua) eta neska zarra (*Zirauna*). Iruren artian bazeramaten upela maria-beran. *Sinpa-garreko entradarekiñ* ere jende asko sartu zan. Lauren trangan-dan, asi ziran bertsolariak.

*Andre ezkonduak neska zarrari:*

-Enpleatzen ezpada  
gazterikan neska  
pasa bearko ditu  
makiña bat kezka;  
burua txoraturik  
senargairik ezta,  
eziñ eramanik;  
neska zarren festa.

*Neska zarrak andre ezkonduari:*

-Gazterik ezkonduak  
ikusten ditut nik  
beren bizimoduaz  
ondo asperturik,  
senarraren maleta  
eziñ eramanik;  
neska zarrak ez dute  
orrelako lanik.

–Estimazio gabe  
dago neska zarra,  
askok egiten dio  
burla eta farra;  
bera ona bada're  
izena du txarra,  
kontsolatzeko badu  
zerbaiten bearra.

–Ardurarikan eztit  
ematen izenak,  
kontua daukakigu  
gauzaren izanak;  
ezkonduak sarritan  
dituzte zezenak,  
kontsolatutzen naute  
orla dabiltzanak.

–Beti ezkondu naian  
ta beti alperrik,  
emaztetzat eztu nai  
iñork neska zarririk;  
zergatik eztan bear  
etxean alperrik,  
bizi bearko dute  
gaixoak bakarrik.

–Ezkondu eta ondo  
izanik lenengo,  
osoro aspertua  
urte bigarrenko:  
«Or konpon zaite, gizon,  
igesi naiz juango,  
ai, Jaungoiko maitea,  
neska zar banengo!».

–Libertadian dabiltz  
aizia bezala,  
baña beti argal ta  
zimurra azala;  
oso beltza da neska  
zarraren itzala,  
argandik Jaungoikoak  
libratu gaitzala.

–Libratu naita ere  
uztarria gogor,  
nai ta nai ez dezu zuk  
egon bearko or;  
andrea ai-ai-ai-ka  
eta gizona gor,  
neska zarrik orrela  
eztaukazu iñor.

–Gauza danetan berak  
nai luke nagusi,  
besteren onik berriz  
eziñ du ikusi;  
beti beria eta  
al bezela bizi,  
oraindik eztu iñork  
neska zarrik ezi.

–Emazte gazte asko  
daude ikasiak  
artzen jipoi eder ta  
ondo mereziak;  
neska zarrak ez gaude,  
Jaunari graziak,  
ezkondu oiek beziñ  
ederki eziak.

–Apaintzeko egingo  
ditu alegiñak,  
ondo orraztu eta  
garbitu agiñak,  
beztuak betilliak  
ta ille urdiñak;  
lanak ematen dizka  
edertu eziñak.

–Senar alporja baten  
zera emaztia,  
txima arroak eta  
arpegi tristia;  
soñeko oso zar bat  
doi-doian jaztia,  
zure apainduria  
ori da guztia.

–Inbidiaz erretzen  
dauzkatzu erraiak,  
ia urtuan berriz  
zauzka errabiak;  
dote ta arrioa  
dira oiek biak,  
usai txarra dizute  
sumatzen galaiak.

–Ezkonduen inbidiz  
dauden neska zarrak,  
eztakizkite ondo  
oien sasi-larrak;  
zelo ta aserreak,  
suak eta garrak,  
pagatzen dute andre  
gaixoen bizkarrak.

–Jakiñ-miñez dauzkate  
biotzak erriak,  
ibiltzeko mingañez  
auzoko berriak;  
batzuetan gezurrak,  
bestetan egiak,  
neska zarrak onetan  
dira geiegiak.

–Gizona zurrutian  
trabenan zorretan,  
ura etxera nairik  
andrea lorretan;  
eta gero makilla  
onen ezurretan,  
ezta ikusten neska  
zarrik lan orretan.

–Zure bizimoduaz  
kontentu bazera,  
naikua edan degu  
ta guazen etxera,  
biurtutzeko bigar  
goizian atzera,  
beste dozen erdi bat  
bertso botatzera.

–Puntzio au izan da  
osoro luzia,  
baña gure autua  
dago ikusia;  
nola nik irabazi  
dizudan auzia,  
biba Don Braulio ta  
lagundi guzia!

### III

Neska zarrak «*biba Don Braulio!*» esatean, jo zuan goitik bera jaun au, eta sartu zion sorbaldatarafio bere kapela, tximiñia zirudiena, eta gizajoak, argia itzali zalakoan, esan zuan:

–Gabon, jaunak.

Uxabik bazter batetik erantzun zion:

–A, gizajo-gizajoa!... Anka biko *bestia!*

Krixanek, berriz, kantatu zuan:

Bata basakatua,  
bestea zirauna,  
oien jueza berriz  
don Braulio jauna.

Uxabik:

Bi bertsolari egiñ  
dutenak batzarra,  
dira andre gazte bat  
eta neska zarra.

P. M.

1902-ko Abenduaren 14-an.

*Ibaizabal*, 1902-XII-21.



# Bertzio Berriyak

Andre eskonduek neska zarrak eta neska zarrak andre eskonduari eklin aldi bat

1  
Enpleatsen ez bada  
gezurik aneska,  
pasa biarko ditu  
makilabai keeka;  
burua txoraturik  
aenar gabrik ezia,  
orra azkenereko  
neska zarren featu.

2  
Gazterik ezkonduek  
ikusten ditut nik,  
beren bizil moduaz  
ondo asperturik;  
senarraren maleta  
ezlit eremenik,  
neska zarrak ezdute  
orrelako lenik.

3  
Baitnaslyo graba  
dago neska zarra,  
askok ugien diyo  
burit eta farra;  
bera ona badare  
izena du txarra,  
konsolatzeo bada  
zerbaiten bearra.

4  
Ardurarik ezlit  
ematen izanak,  
kontu dantakigu  
gaztaren izanak;  
ezkonduek aarritan  
dituzte zexanak,  
kentsolatuzen neute  
oria dabilzanek.

5  
Beti ezkondue non  
ta beil alperrik,  
emaitzat ezlit nai  
ifork neska zarrak;  
zergatik eztan bier  
etxian alperrik,  
bizil biarko dute  
galxuak bekarrik.

6  
Ezkonda eta ondo  
izanik lehenko,  
oso asperturik kan  
urte bigerrango;  
or konpon zaitie gizon  
lgesi naitz loango,  
¡Al Jaungoiko mailla  
neskezar banango!

7  
Libertarian dabiliz  
zizia berale,  
bafia beil argal ta  
zimurra azala;  
oso beiza da neska  
zarraren izala,  
argandik jaungoikuak  
libretu galizala.

8  
Libratu naita ere  
uzterriya gogor,  
naita nayez dezu zuk  
egon biarko or;  
andrat' ai ai ka  
eta gizona gor,  
neska zarrak orrale  
eztaukazu itor.

9  
Onuzta danielan berak  
nai inke ngusi,  
bea beren onik berriz  
ezindu ikusi;  
beil berie eta  
nai bezela bizil,  
oraindik ezta ifork  
neska zarrak ezi.

10  
Emazte gazte esko  
daude ikasiyak,  
aritzen lipol eder ta  
ondo mareziyak;  
neska zarrak ez gande  
lauari graziyak,  
ezkonda oyeq bezin  
ederki biyak.

11  
Inbriyaz erreizen  
zaudele jarriyak,  
lye urtean berriz  
zauzka errebiyak;  
dote ta arluia  
dira oyeq biyak,  
usal txarra dizute  
sumaitzen galaiyak.

12  
Ezkonduen inbriiz  
dauden neska zarrak,  
eztakizkie ondo  
oyen saasi-larrak;  
zeio ta aserriak  
suek eta garrik,  
pazetzan dute andre  
gaxuen bitzarrak.

13  
Jakin-nitez daukate  
biyotzak erriak,  
libitzeko mingaitez  
zuzoko berriyak;  
baitzetan gazurrak  
guitxitan egiyak,  
neska zarrak onetan  
dira geyegiyak.

14  
Gizona zarrutlan  
irabeanan zortetan,  
ura etxera narik,  
andria lorretan;  
eta gero makilla  
onen ezurretan,  
ezie ikusien neska  
zarrak lan orretan.

15  
Zare bizil moduaz  
kuntenttu bezera,  
naita edan degu  
ta guzen elxera;  
biurtuzeko biger  
goiztan aizera,  
beste dozentzi bat  
bertzo botatara.

Elakondak. Zorrua

Aurreko bertsoen kanta-papera.

## Iru Erregeak

---

Izar txit eder bat da  
zeruan ageri,  
arriturikan gaude  
begira berari,  
datorrelako iru  
Erregen giari,  
egiñik aingeru ta  
gizonen mirari.

–Nork egin zaitu izar  
aiñ alai ederra?  
–Nere egillea da  
Jaungoikoa bera.  
–Jetxia al da gizon  
egiñik lurrera?  
–Jetxia da, ta guazen  
beraren aurrera.

Txabola bat an dago  
txikia ta zarra,  
eta bere gañian  
geldirik izarra;  
Erregeak ondoren  
dijoaz bertara,  
guazen ba guziok  
txabola artara.

Jaungoiko ta gizona  
eta Erregea,  
eskeintzen dizkitzugu  
mirra ta urrea;  
gañera intzentsua,  
izanik ohea,  
zeralako zeru ta  
lurren Jaun-Jabea.

–Zertara, Erregeak,  
zerate etorri?  
–Adoratzera, Jesus  
maitea, zedorri.  
–Zer derizkiotzute  
izar eder orri?  
–Gu etorri gerala  
jarraika bedorri.

–Jesus, ditugu gorde  
nai zure legeak.  
–Bai, o gizon guziz on  
errurik gabeak!  
–Nai degu izan geran  
baiño're obeak.  
–Agur, nere biotzeko  
iru Erregeak.

P. M.

1902-ko Abenduaren 28-an.

*Ibaizabal*, 1903-I-4.

## Mariari Maiatzaren azkenian

---

Orra bukatu, Ama,  
illik ederrena,  
baña ezta aztuko  
bere oroipena;  
artzen badegu ere  
biotzean pena,  
pentsatzean duala  
Maiatzak azkena,  
guk eman nai dizugu  
zor zaizun omena.

Jaunak gorde zaitzala,  
Dabiden torrea,  
aingeruen Erregiñ,  
atsegiñ gurea;  
Ama maite esan al  
baño're obea,  
iguzu arren guri  
zure amorea,  
o usai gozo danak  
dituzun lorea!

Ama, oraiñ bagoaz  
zedorren baimenaz,  
agur, Ama maitea,  
baña goaz penaz.  
Nola aztu gindezke  
amarik onenaz?  
Bada zaitugu maite  
biotzetik benaz,  
agur, baña ez aztu  
maite zaituztenaz.

P. M.

*Ibaizabal, 1903-V-31.*

## San Luis Gonzagatarrari

---

Aragiz jantzitako  
aingeru ederra,  
dirurizu zerutik  
jexia lurrera;  
pozik gatoz kantari  
gaur zure aurrera,  
ontzat artu zaiguzu  
gure etorrera.

Lurreko jardiñ lore  
ederrez betiak,  
askoz ederragoak  
zure birtutiak;  
bada emen igaro  
ziñuzan urtiak,  
aingeruzko bizitzan  
juan ziran guztiak.

Zeruko zure Ama  
Birjiña Maria,  
bera izan zan emen  
zure giaria;  
zure biotz mantxarrik  
batere gabia  
zan lirioa beziñ  
eder ta garbia.

Komunio santuan  
Jesus artutzian,  
zerua arkitzen zan  
zure biotzian;  
bizitzan aingeru ta  
serafiñ iltzian,  
nola poztuko ez gera  
zuzaz oroitzian?

Jesusen Lagundian  
ziñanian sartu,  
bere amorioan  
oso ziñan sutu;  
ogeitiru urtekiñ  
gazte eta santu,  
Elizak altaretan  
pozik jarri zaitu.

Agur, santu maitea,  
urrengo artian,  
baña etzaite aztu  
bien bitartian;  
erregutu gugatik  
zerura gaitian,  
gloria gozatzeko  
zurekiñ batian.

P. M.

*Ibaizabal, 1903-VI-21.*

**Ama Birjiña Kontzeziokoari**  
**«Tota pulchra est Maria».**

---

Goizeko izar eder, alai ta argia,  
zeru eta lurrean berdiñik gabia,  
sortzetik zatozena guztiro garbia;  
zeruen eguzki da zure arpegia,  
zure biotza berriz da loretegia,  
zeruko edertasun eta alegria;  
gizona maite dezun Ama onegia,  
pozez beterik dizut esaten egia:  
bakarrik zuk didazu betetzen begia,  
bada guzia zera ederra, Maria.

**P. M.**

1903-ko Zemendiaren 30-ean.  
*Ibaizabal*, 1903-XII-6.

*Goazen al degun lenen  
bidean astera,  
goazen, goazen Belenen  
Jesus ikustera.*

Ara Aurtxo eder bat  
jaino berri dana,  
eta txabol txiki bat  
etxetzat daukana;  
eta bera izanik  
zeru-lurren Jauna,  
etorri nai izan du  
zerutik gugana.  
*Goazen...*

Txabolan bertan daude  
Jose ta Maria,  
oialetan bilduta  
Aur zoragarria;  
beren egonlekua  
bada're pobria,  
Aur zorioneko au  
da beren gloria.  
*Goazen...*

Txabola orretan da  
aska bat ageri,  
eta askan lastoa,  
bera ez ugari;  
lasto artian dago  
Aur aiñ eder ori,  
astoa ta idia  
arnaska berari.  
*Goazen...*

Artzaiak pozez datoz  
mendietan bera,  
len-bait-len eldu naian  
Jesusen aurrera;  
ara non egiñ duten  
txabolan sarrera,  
eramanaz bildotsak  
eta gaztanbera.  
*Goazen...*

Begira aingeruak  
nola diran ari  
soñu ederrak jotzen,  
baitare kantari:  
«Gloria zeruetan  
gure Jainkoari,  
gizonari lurrean  
pakea ugari».  
*Goazen...*

–Agur, Jesus maitea.  
–Ario, artzaiak.  
–Bagoaz oraiñ eta...  
–Bai; zaitu ardiak.  
–Zu nork zaituko zaitu?  
–Jose ta Mariak.  
–Agur, ba, eta ondo...  
–Pasa Gabon-jaiak.  
*Goazen...*

**P. M.**

1903-ko Abenduaren 14-an.

*Ibaizabal*, 1903-XII-20.

## Akinotar Tomas Santuari

---

Juan dan illeko 7'g. egunean, Akinotar Tomas Santuari eskeñitako jai eder bat egin zuten Bergarako Ikastegi nagusiko irakasle ta ikasliak. Jai artan, ikasle gazte batek, Migel Ubillos-ek, neurtitz oek irakurri zituan.

Nundik sortu zaigu gaur  
egun aiñ ederra,  
diruriana zeru  
jetxia lurrera?  
Antziñako ikasle  
zarren etorrera  
ospatzera, gurekiñ  
dator Tomas bera.

Oituraz aingerua,  
amorez serafiñ,  
eta jakindurian  
kerubiñen berdiñ;  
ezkutapen andiak  
dituzuna jakiñ,  
apaindurik zaudela  
birtute danekiñ.

Aurrengo nua lengo  
ikaslietara,  
berai esker onak  
pozik ematera,  
etorri diralako  
gaur gure artera,  
omentzera santua  
gurekiñ batera.

Elizaren etsaien  
garalle bikaña,  
santu ta jakinduri  
guziaren gaña.  
Ai, izan al baneza  
zedorren mingaña,  
alabatu zaitzadan  
zuk merezi aña!

Zeru goietatiko  
eguzki argia,  
iñundik ere illun  
unerik gabia,  
egunaz eguzki ta  
gabaz illargia.  
jakintsu eta santu  
danen miraria.

Nola izar argiak  
dauden zeru-goian,  
ala perla ederrak  
zuk dezun koroian;  
apaiñ ederrik zaude  
jarririk jargoian,  
izan zaite doatsu  
betiko glorian!

Urruzuno'tar P. M.  
*Euskal-Esnalea*, 1912-IV-15.



## Maiatzeko Loreetan Iñes eta Errosa

---

–Ai au egualdiaren  
eder eta alaia!

–Eta lurbira dana  
lorez estalia.

–Goiz-goizetikan berriz  
txoriak kantari.

–Maria alabatzen  
pozik dira ari.

–Errekatxoak ere  
dijuaz *mur, mur, mur...*

–Esanaz guzioi  
agur, agur, agur...

–Eta oiek danak zer  
nai digute esan?

–Maria onratzeko  
lurreko bizitzan.

–Eta guk zer diogu  
berari esango?

–Dala guzi-guziak  
baño ederrago.

–Eta maite degula  
biotz guzitikan?

–Egi ori eztago  
esan bearrikan.

–Nola maitetasun au  
berari agertu?

–Egonaz bera beti  
serbitzeko gertu.

–Baña zer serbizio  
egiñ guk berari?

–Lorerik ederrenak  
bildu ta ekarri.

–Goizian goiz jaiki ta  
lenbiziko lana...

–Loreak biltzea da  
egiñ bear dana.

–Uste orretantxe gaur  
atera naiz billa.

–Baita ekarri ere  
lore eder pilla.

–Egiaz ederra da  
erramilletia.

–Baña kosta're bazait  
bera egitia.

–Gañengo lore ori  
zer dezu, Errosa?

–Ori da bada eun  
orriko larrosa.

–Begira nagokio  
aspertu eziñez.  
–Zuk ere badituzu  
aiñ ederrak, Iñes.

–Guziak poz-pozikan  
gure Amarentzat.  
–Baita Ama're pozik  
iduritutzen zat.

–Ama pozikan eta  
alaba pozago...  
–Zorion oberikan  
iñun ote dago?

–Maria degu gure  
Ama maite ona.  
–Bera dagon lekuan  
dago zoriona.

–Beti-beti dedilla  
arkitu gurekiñ.  
–Eskatu degiogun  
biok alkarrekiñ.

Eskari bat egiñaz  
gatoz gu zugana,  
izan zaitezela Zu  
beti gure Ama;  
eta onla ematen  
dizugun omena,  
izan bedi lorerik  
eder-ederrena.

**Urruzuno'tar Pedro Miguel-ek**  
*Euskal-Esnalea, 1917-V-30.*

## Asto polit bat

---

Asto baten tratua  
emen nai det esan  
nola egin genduan  
merkatuko plazan;  
ijito bat saltzalle,  
erosle ni nintzan,  
ara gure tratua  
zer moduz egiñ zan.

Oso nekez ematen  
baditu bi pauso,  
lurrera erori ta  
eziñ degu jaso;  
berdiñ da esatea  
naiz *arre* ta naiz *so*,  
eziñ dio beñere  
lanari eraso.

Amar duro eskatu  
eta biyan eman,  
etzalako onore  
ibiltzia teman;  
ondo jaten du baña  
egunero merman,  
petardo txarra ez tet  
onekiñ eraman.

Bere palten artian  
gauza bat du ona:  
aitzaki gabe jaten  
ematen zaiona,  
garagarra, lastoa  
ta naiz baberruna;  
ortan ez da batere  
kunplimentuduna.

Lurrean etzan eta  
ezin degu jaiki,  
naiz ta ezur ta mamiñ  
makillaz ebaki;  
ala ta guziz ere  
jaten du ederki,  
zer jenerazio dan  
Jaungoikoak daki.

Askotan zaio aizez  
betetzen barruna,  
atzetikan boteaz  
kia ta lurruna;  
baita ere jotzen du  
zoli zinburruna,  
gor badago zurtzeko  
alboko laguna.

Nik nai nikio oraiñ  
berez iltzen utzi,  
ez dezadala dio  
saltzalleak etsi,  
damutu eztakidan  
bigar edo etzi;  
gaixoak ez omen du  
orixe merezi.

Nerez jenioa det  
osoro estua,  
saltzalleak du berriz  
lasai ta bastua;  
baña berak dionez  
da gizon prestua,  
ala eman omen dit  
aiñ merke astua.

Erantzuten badiot  
daukadala salgai,  
amalau errialen  
badit erosi nai,  
berealaxe dio:  
«Ondo da, jauna, bai;  
artuko diot bigar,  
egon bedi alai».

Ardien kulpak ditu  
pagatzen bildotsak,  
asto gaixoak ditu  
maiz artzen otsak;  
kanpotikan bero ta  
barrutikan otzak,  
akabatuko dute  
aurtengo izotzak.

Saltzalleari gero  
eman diot auzi,  
baña kondenatu nau  
kostu eta guzi;  
zuzenbidean bear  
nuan irabazi,  
baña kontuan nonbait  
belutxo naiz jausi.

Bentaja geiago're  
astoak baditu,  
sekulan eztiranak  
munduan aditu;  
baña eztet nai iñor  
geiegi arritu,  
gezurtizat ez nadiñ  
munduan gelditu.

P. M.

*Baserritarra, 1906-II-17.*

### I

*Tan... tan... tan... taparra tan tan...*

–Nor da ate ondoan?

–Ni, Santi; egiñ beza mesede atea idikitzeaz, On Juan.

–Ator, Santi, eta eseri adi, mutill; baña zer gertatzen zaik gabeko amarterdietan etxe onetara etortzeko?

–Arriturik nator, gizona, bedorri esatera oraindaño sinistu eztedan gauza bat, baña gaur sinistu dedana.

–Esan zak, bada, zerbait.

–Eziñ, ordea, oroitu izenaz: antziñako Gariabe edo Galale edo Gallegio edo... eziñ oroitu naiz. Eztaki bedorrek nola esaten zuan gizon jakintsua zala lurra zebillela erakusten zualako, eta nola guk barre egiten genduan?

–Ai arrayia! Ik esan nai diana Galileo dek.

–Juxtu, On Juan, orixe ta bera. Nik baño buru ohea du bedorrek, eta bear ere bai.

–Eta zer dakarrek, ba, gaur Galileo-rekin?

Ark arrazoia zuala uste det, bada, lurra dabillega, nola dabilen ezpadakit ere; sinisten det gaur eta ara zergatik: goizean periarra Tolosara jua ta...

–Eta zer? Tolosa etzegoan betiko lekuan?

–Bai, jauna, bai: eta gelditu ere bertan egin da, baña beste gauza batek oso arriturik utzi nau.

–Zerk arritu au, ba, orrela?

–Ara, jauna: aruntzakoan eskuitik zeuden etxe guziak, onuntzakoan ezkerretik zeuden, eta nunbait ni Tolosan naizen bitartian egiñ da aldaera ori. Esan det, bada, gaur: «Oraintxe sinisten diat lurra dabillega eta antziñako Galaliok arrazoia zubela».

–Ai, astaputza! Okerbidetik ibilliko intzan.

–Ez, jauna, ez, goiko bidetik jua ta goiko bidetik etorri, aurrera begira beti ibilli eta beti zuzen ni, baña lurra ez.

- Beraz, paperetan ipintzeko kontua dek ori.
- Bai, jauna, eta ipiñi beza gazetan.
- Ipiñiko diat gazetan, gizonik eztagoala ire galtzetan.
- On Juan, ez beza barrerik egiñ; bestela kontu, bada gizon baten lekuan bi ere bagaude ta. Baña ezagutzen det Galaliok buru ona zuala.
- Bai; Santik baño obia.
- Ai beza: Galalio eguzkia bazan, ni naiz illargia.
- Buru utsean agoanian.
- Ori da gauzak ondo entenditzea; bekar bosteku ori!

## II

- Goiz dabill, On Juan. Ondo lo egiñ du?
- Zer lo egingo nuan! Zuen Santi etorri zitzaidan bart amardietan, eta goiz arte an egondu da itz-ontzi bat bezela, ixildu gabe, gaberdi aldean loak artu zuan arte, sukaldeko aulkian eserita.
- Ainbeste esakizun zeukan?
- Bai, emakumea; pillosopo egiñik dago.
- Pillosopo? *Milla sopa* esan beza. Gaur goizean sartu da etxean, dana bustia, zapata gabe eta buru utsean, «gabon» esanaz.
- Bart amar aldiz atera zuan bere erlojua, eta beti iya zazpirak ziran. Goizean esnatzean bost-bostetan atera du berriz; eta, nola geldi zeukan, orduan ere iya zazpirak ziran, eta esan digu: «Apal-ordua degu eta banua, atsua zai egon eztediñ».
- Bai, jauna. Gure etxean gizonaren antzik geiena duana badaki zer dan? Galtzak, bada galtzetan dabillenak antzik ere ez du gizonarenik. Gosaria aparizat janta, eguna zabaltzean, illuntzia dalakoan, juan zaigu oera Santi gurea.

## III

Igande eguerdi-ostean esnatzen da Santi gurea, eta sumatzean eguzkiaren argia leioaren zirrikitutik, «illargi ederra zio»

esanik, berriz ere lotaratu zan. Astelen goizean, igandea zala-koan, jaikitzen da lo gutxi egiñ eta gaba luze joan zaiola esanaz.

–Jesusa, zapatak ekar itzatzu, mezatara juan nadiñ.

–Gizona! Mezatara gaur? Zer Jaungoikoaren bendizio degu?

–Emakumea! Meza osoa jaian entzutea kristauaren egitekoa ez da?

–Bai, gizona; eta jai osoa oian igarotzea, meza osoa elizan utzita, izan bear du ordiyarena; eta zapatak lokatz artean eta txapela sagar-adarrean galdurik etxeratzea, mozkorrarena. Entenditzen?

Konturatu zan Santi bere utsegiteaz; baña, disimulatuaz, esan zuan:

–Bai, emakumea! Aurten bisestu urtia da, eta nik esaten dedana ez da besterik, baizik zertarako bear duan urte orrek besteak baño egun bat geiago. Beragatik, nik, urte au besteakiñ berdintzeko, egun bat kendu diot lotan.

–Bai, pillosopo egiñ ziñan eta Galaliokiñ berdindu zera noski.

Emen beldurtu zan Santi, emazteak trapuren batzuek aterako ote zizkan, eta ixillerazo zuan esanaz:

–Nere pekatuak konpesatzen badituzu, aien penitentzia ere egiñ bearko dezu. Ikusten au? Ezagutzen? –korosti-makilla bat erakutsiaz.

#### IV

Zortzi egunez itzik egiñ gabe egon ziran senar-emazteak, eta pozik zegoan Santi iñork bere pekaturik arpegira ematen etzionean; baña sartzen da illuntzi batean trabenan eta, zerrepeldurik, asi zan arrokeriak botatzen eta Korkoxarekiñ bertsoetan era onetan:

Santik:

Batzuek ikasleak,  
besteak maisuak,  
munduban bagaude, bai,  
gizon jakintsuak;

sinistu ezagatik  
egiak auzuak,  
argituko dizkiet  
.....<sup>1</sup>

Korkoxak:

Guk ere nai genduke  
zerbait ikastia,  
baña ez iñola're  
zuk erakustia;  
zure jakinduria  
ezta garestia,  
pitxar bat ardorekiñ  
egiña guztia.

Santik:

Beti bizi aiz iñor  
ikusi eziñaz,  
eta nizaz mintzaten  
itzkuntza samiñaz;  
jakindurizko gauzak  
nik oraiñ egiñaz,  
mundua juango dek  
nor naizen jakiñaz.

Korkoxak:

Zapatak ta txapela  
bideetan galdu,  
gaba dalako ustez  
goizean apaldu;  
orlako jakintsuak  
nunbait bear al du  
bere jakinduria  
munduan azaldu?

---

<sup>1</sup> Azken lerroa falta du *Baserritarra* aldizkariak, moldiztegiaren utsegitez, dudarik gabe. *Begien lausuak* edo orrelako zerbait bearko luke, gure iritzirako.



Santik:

Korkoxa beti korkox,  
sekula gizon ez,  
mintzatutzen eztakik  
beñere itz onez;  
iñun eztek arkitzen,  
jentiak dionez,  
i berdintzekorikan  
gizatxartasunez.

Korkoxak:

Zugan bi gizon zaizkit  
iñoiz iduritzen,  
zure jakinduriak  
oso nau arritzen;  
orain mundua dala  
diozu ibiltzen,  
ez da galtza danetan  
gizona arkitzen.

–Aizak, Korkoxa: kontu egiok bizkarreko malet orri, galdu gabe.

–Aizazu, Santi: txapela galdugatik biziko zera, bada bururik eztuanak eztu bear txapelik; baña kontu galtzai, bada oiek galtzen badituzu, ezta geldituko gizonaren antzik ere zure etxean; eta Jesusa gaixoak, alargundurik, zer egingo du?

–Bai, bai; gizatxarrak beti gizatxarkeriak. Agur, Korkox.

–Ankak bai ta bururik ez, galtzak bat ta gizonik ez. Agur, Santi. Noiz arte?

P. M.

*Baserritarra, 1906-III-17.*

## Iru Erregeak Jesusekiñ izketan

---

–Adoratzten zaitugu,  
zeru-lurren Jauna.  
–Iru Errege aundi  
zatozte nigana.  
–Bai, jakin degulako  
jaioa zerana.  
–Nundik jakin dezute?  
Zer da gerta dana?

–Izar bat agertu da  
biziro ederra.  
–Nik bialdu dizuet  
bera sortaldera.  
–Ura giari dala  
gu etorri gera.  
–Estimatzen det asko  
zuen etorrera.

–Jerusalenen gorde  
zaigu izar ori.  
–Etzaitzute berriro  
agertu bedori?  
–Agertu zaigu baña  
lenago diruri...  
–Herodes ere dala  
kontuan erori?

–Herodes erregeak  
galde digu egiñ...  
–Ni jaio ote naizen  
nai al luke jakiñ?  
–Aruntzakoan nai du  
itz egiñ gurekiñ.  
–Ez juan; ezteion bere  
barruak irakiñ.

–Ona urrea, mirra  
eta intzentsua.  
–Amorio ori da  
andi ta osua.  
–Eta gureztat berriz  
osoro gozua.  
–Ni izango naiz beti  
zuen gurasua.

–Jaungoiko, gizon eta  
errege zerala...  
–Adoratu nazute  
bear dan bezela.  
–Agur, Jesus, bagoaz  
orain bereala.  
–Agur bada ta ondo  
bizi zaitzela.

P. M.  
*Baserritarra, 1907-I-5.*

## Artzaiak Jesusekin itzketan

---

–Nola, Jesus maitea,  
zeruak utzirik  
zaude askatxo ortan  
lurrera jetxirik?  
Etzegoan Belenen  
zuretzat etxerik?  
Eztakit nola zauden,  
aurtxoa, bizirik.

–Belenen ezta iñor  
nizaz errukitu,  
ostaturikan eziñ  
izan det arkitu.  
Orain zuek, artzaiok,  
zerate kupitu,  
bañan zuen biotzak  
zerk mugitu ditu?

–Aingeru bat zaigula  
etorri mendira,  
arriturikan geunden  
berari begira.  
Taldi andiak berriz  
an agertu dira,  
kantaz ta soñu gozoz  
beteaz lurbira.

–Zerutikan lurrera  
nola jetxi naizan  
aingeru onek nunbait  
dizuete esan.  
Berri au pozgarria  
zuentzat da izan,  
baña bazenekiten  
nun arkitzen nintzan?

–Oialetan bildurik  
lastotan jarria  
arrituko degula  
Aur jaio berria  
da aingeruak eman  
diguten berria,  
mundu guziarentzat  
oso pozgarria.

–Bisita au izango  
det beti goguan,  
nere bendizioaz  
orain zaitezte juan.  
Lagunduko dizutet  
bizitzen munduan,  
zoriontzeko gero  
betiko zeruan.

P. M.

*Baserritarra, 1907-XII-21.*

## Erregeak Jesusekiñ itzketan

---

–Nundik zatozte, nere  
errege maiteak?

Alaituko nau zuen  
berri jakiteak.

–Sortaldetikan gatoz,  
Jesus, zure billa,  
igaroaz arrisku  
eta neke milla.

–Nola jakin dezute  
jaioa naizela,  
etortzeko errege  
leialak bezela?

–Izar ederrak digu  
berria ekarri,  
berari jarraituaz  
gatoz erriz erri.

–Jerusalenen ezer  
zaratarik etzan?

Eztizute Erodes  
jaunak ezer esan?

–Bisita dezagula  
juatean atzera,  
bera're etortzeko  
zu bisitatzera.

–Baña esan zazute,  
errege maiteak:

etzaituzte izutu  
bideko nekeak?

–Bide guziak pozik  
ditugu igaro,  
zu arkitzeagatik  
ondorean gero.

Erodes erregeak  
nai zaituzte galdu,  
etzaitezte geiago  
argana azaldu.

–Ondo da, ta ar zazu  
dakartzugun prenda:  
intzentsu, mirra eta  
urrezko ofrenda,

–Nere bendizioaz  
zuen etxetara  
zuazte orain, berri  
onak ematera.

–Batetik penaz eta  
bestetikan pozak,  
bagoaz zuri emen  
utzirik biotzak.

P. M.

*Baserritarra, 1908-I-4*

Bearbada, irugarren eta laugarren bertsoak alkarrekin tokiz aldatuta daude.

## Arritokiko Ama Birjiñari Zumaian

---

*Zugana gatoz, Ama maitea,  
gure neke ta penetan,  
laguntza eske belaunikatzen  
gerade zure oñetan.*

Zeru goietan Erregiñ zauden  
zorioneko Birjiña,  
zeru ederren apaingarriztat  
Jaungoiko berak egiña;  
guk naiagatik ezin zaitugu  
goitu merezi adiña,  
barka zaiguzu gure ezerrez  
eta geiago eziña.  
*Zugana gatoz...*

Pekatuaren kutsu gabea  
izan da zure sorrera,  
guzia garbi agertzen zera  
Egillearen aurrera;  
edertasuna ixuritzen dezu  
zeru goitikan lurrera,  
ai zein pozikan gatozen danok  
kantari zure aurrera.  
*Zugana gatoz...*

Izar ederrez apaindurikan  
dagoan zeru urdiña,  
ezta izango ederrez zuri  
urrik emateko diña;  
zure graziak adirazi naiz  
emen asiko bagiña,  
onetarako bear genduke  
aingeru baten mingaiña.  
*Zugana gatoz...*

Egunsentiko argi alaia  
atsegin eta gozoa  
azaltzeaz bat kentzen dezuna  
goizeko lañu-lausoia;  
Noeren arka andi artatik  
atera ziñan usoa,  
zu zera gure premi guzien  
sendagai oso-osoa.  
*Zugana gatoz...*

Lore guziak al bagenitza  
bildu txort eder batian,  
arku bat jarri nai genizuke  
Arritokiko atian;  
lore oietan beti zureak  
guziok izan gaitian,  
ala biziko giñake beti  
atsegin bete-betian.  
*Zugana gatoz...*

Gure gorputzak eta animak,  
baitare gure bizia,  
zure eskura daukagu dana  
oso pozikan utzia;  
bada bakarrik nai degu izan  
zuretzat geran guzia,  
iguzu arren, Ama maitea,  
zeruratzeko grazia.  
*Zugana gatoz...*

**Pedro Migel Urruzuno ta Salegi**  
*Argia* astekaria

## Ama Birjiña Kandelariokoarekin itzalditxo bat

---

–Garbi denen artian  
garbien bazera,  
nola zoaz geiago  
oraiñ garbitzera?

–Eziñta garbiago  
banaiz ere bizi,  
umilltasuna nuke  
nai adierazi.

–Zurekiñ daramazun  
Aurtxo aiñ ederra  
ezta gizon egiñik  
Jaungoiko berbera?

–Ala da egiaz ta  
bere Ama naiz ni,  
zuekgatik Aitari  
nai diot eskeñi.

–Usakume birekiñ  
or zoaz poz-pozik;  
etzegoan lurrean  
zuretzat bildotsik?

–Nai duanak ikasi  
emen jakiñ beza  
Jainkoari atsegiñ  
zaiola pobreza.

–Aurtxo ori izanik  
Jaungoikoa bera,  
nola sujetatzen da  
Moisesen legera?

–Ikasi dezagula  
emen zaigu deitzen,  
aitzaki gabe lege  
danai obeitzen.

–Andia bada ere  
zure gaurko poza,  
Simeonek bear dizu  
samindu biotza.

–Ikaraz aditzen det  
gizon orren boza,  
nere biotzarentzat  
ezpata zorrotza.

–Begiratu zaiguzu  
errukiz besterik,  
bada anparurikan  
eztegu besterik.

–Idukiko zaituztet  
nere biotzean,  
oraiñ bizitzan eta  
azkenik illtzean.

P. M.

*Baserritarra*, 1908-II-1.

*Argia*, 1923-I-28.

## Jesus gurutziltzatuari

---

Gurutze ortan zaude  
nigmatik josirik,  
nola daukat biotza  
oraindik osorik?  
Nigmatikan zu, Jesus,  
illik ikusirik,  
nola nindeke nerau  
arkitu bizirik?

Zure esku santu ta  
oiñ bedeinkatuak  
izan dira nigatik  
iltzez zulatuak;  
iltze oriek dira  
nere pekatuak,  
zori gaiztoko erru  
madarikatuak!

Naita're eziñ egon  
naitzatzu begira,  
nere begiak malkoz  
lausotutzen dira;  
atsekabez bear zait  
biotza erdira,  
nork begiratu gorputz  
aiñ negargarrira!

Zauri bat egiñikan  
zaudela guztia,  
burutik oñetara  
odolez bustia;  
zure gorputz zatitu  
ori ikustia,  
pekatariarentzat  
oso da tristia.

Azotez gorputz dana  
dizute idiki,  
nork etzaitu izango  
bizirotu erruki!  
Nere gogoan beti  
nai zaitut iduki,  
a, Jesus, nai ainbat zu  
maitatzen baneki!

Gorde nazazu saiets,  
esku ta oñetan,  
idikirik daukatzun  
zure zaurietan,  
lurrean bizi nadiñ  
sarturik oietan,  
laztandutzeko gero  
zu zeru-goietan.

P. M.

Baserritarra, 1908-IV-11.



## Ama Birjiña Kontzeziokoari

---

Zuri begira, Ama maitea,  
gaude lurretik zerura,  
zu zeralako pekatarien  
salbazioko aiñgura;  
zeruko iturri garbietatik  
garbirik zatozen ura,  
bedeinkatua izan dedilla  
sortu ziñan egun ura.

Pozez beterik geranian gu  
zeruruntz begira jartzen,  
zeru goi-goian Jaungoikoaren  
urrena zera agertzen;  
an zaude jargoï eder batean  
zeru guzia edertzen,  
zuri begira gure begirik  
ezta beñere aspertzen.

Izar ederrez oso jantzirik  
dagoen zeru urdiña,  
ederrez ezta oraindik zuri  
urrik emateko diña;  
eder guzien edergarriztat  
Jainkoak berak egiña,  
zeruan ere berdiñik gabe  
zauden birjiñen Birjiña.

Sortzetik zera eder-ederra,  
guzia garbi-garbia,  
jatorriz degun pekatuaren  
kutsurik ere gabia;  
eguzkia're eziñ diteke  
izan zu beziñ argia,  
gure artean bizitutzeko  
ziñake ederregia.

Usai gozoa banatzen dezun  
udaberriko larrosa,  
Jainko beraren Alaba zera  
eta Ama ta Esposa;  
bizitz onetan zu gabe eziñ  
gindezke bizi, ez goza,  
zu bakarrikan zeradelako  
Ebaren umeen poza.

Gure biotzak nai dizkitzugu  
zuri osoro idiki,  
oien barruan ondo gorderik  
beti zaitzagun iduki;  
zure biotzak gure mixeri  
aundien berri badaki,  
izan ezazu, Ama maitea,  
pekatariatz erruki.

P. M.

*Baserritarra, 1908-XII-5.*

## Belengo estalpean

---

–Nundik etorri zera,  
Aurtxo aiñ polita,  
eta lasto gañean  
zaude or jarrita?  
–Zuri beti dizudan  
ongi-naiak nakar,  
maitatzen bizitzeko  
beti biok alkar.

–Etxe ontxo bat etzan  
zuretzat lurrean,  
egon gabe aiñ pobre  
estalpe zarrean?  
–Pobreza da txit maite  
dedan birtutia,  
idikitzen duana  
zeruko atia.

–Izarrak beziñ eder  
dituzu begiak,  
bata baño bestea  
ederrago biak.  
–Eder guziak baño  
ederragoa naiz,  
edertu nai badezu  
atoz nigana maiz.

–Nundik datoz kantu ta  
soñu aiñ alaiak?  
Atzera ote datoz  
onera artzaiak?  
–Artzaiak juañ ziran da  
datoz aingeruak,  
Gloria kantatuaz  
bedratzi korañ.

–Or agirian dauden  
bildots ta gaztaiak  
benturaz dizkitzute  
ekarri artzaiak?  
–Gaixoak nautenian  
aiñ pobre ikusi,  
errukiturik oiek  
dizkirate utzi.

–Zure bendizioa  
nai nuke iritxi,  
ez nazazula arren  
eman gabe utzi.  
–Ar zazu bendizio  
oso ugaria,  
lurrean pakea ta  
zeruan gloria.

P. M.

Baserritarra, 1908-XII-19.

## Erregeak Jesusekiñ

---

–Zerk ekarri zaituzte,  
Errege Magoak?

–Zu adoratutzeko  
daukagun gogoak.

–Nundik jakin dezute  
onera bidia?

–Izar eder bat izan  
degu gidaria.

–Etzaizute bidean  
okerrik gertatu?

–Izarra ezkutatu  
ta berriz agertu.

–Ikusi al dezute  
lenik Jerusalem?

–Bai; an egondu gera  
onera baño len.

–Erodesek zer dion  
badezute jakiñ?

–Izketan egon gera  
errege orrekiñ.

–Ezer esan dizute  
bere mesedeak?

–Badatozela bera  
ta adiskideak.

–Erodes datorrela  
ni adoratzeraz?

–Bai, uste dan bezela  
jaioa bazera.

–Beraz eztaki ziur  
jaio ote naizen?

–Aruntzakoan goaz  
esatera zuzen.

–Argana gabe zoazte  
zuen etxietara.

–Lenik nai degu zerbait  
kajatik atera.

–Kaja orretan dauden  
gauz oiek zer dira?

–Dakartzkitzugin urre,  
intzentsu ta mirra.

–Eta zuek zatozte  
ni adoratzeraz?

–Bai, bada Jainko, gizon  
ta Errege zera.

–Bedeinkatzen zaituztet  
beti-betiko gaur.

–Esker milla oraiñ ta  
agur, Jesus, agur.

P. M.

Baserritarra, 1909-I-2.

## Gonzagatar Luis Santuari gozoak

---

*Iguzu, Luis Santua  
zerutikan argi,  
lurrean bizitzeko  
umill eta garbi.*

Aragiz jantzitako  
aingeru ederra,  
lore guziak baño  
ederrago zera;  
usai gozoz betetzen  
dezu zeru bera,  
zutaz oroitzean  
oso pozten gera.  
*Iguzu...*

Lurrian bizi izan  
ziñan egunetan,  
aingerutxo bat ziñan  
izandu benetan;  
Jaungoikoa gogoan  
zure lan danetan,  
zerua arkituaz  
lurbira onetan.  
*Iguzu...*

Lirioa baño're  
ederrago dana,  
kastidade jetxia  
zerutik zugana;  
biotzak beregantzen  
dituan imana,  
ori da zu aiñ eder  
egiñ zaituana.  
*Iguzu...*

Komulgatutzen ziñan  
aldi bakoitzian,  
Jesus pozik zenduan  
artzen biotzian;  
eta ordu osoak  
gero otoitzian,  
eta beti gozatzen  
beraz oroitzian.  
*Iguzu...*

Zure Ama Maria,  
Zeruko Erregiña,  
bera maitatzen zeunden  
Serafiñ egiña;  
Ama Erregiñ eta  
seme Serafiña,  
zorionekoak gu  
orrela bagiña!  
*Iguzu...*

Gaztea ziñalarik  
egiñ ziñan santu,  
argatik gazteriak  
gidari nai zaitu,  
gure pauso guziak  
zuk ditzatzun zaitu,  
ala Jaunak zeruan  
elkartuko gaitu.  
*Iguzu...*

**P. M.**

*Baserritarra, 1909-VI-9.*

## Ama Birjiña Kontzeziokoarekiñ itz-alditxo bat

---

–Nork egin zaitu, Ama,  
aiñ eder-ederra?

–Nere Egillea da  
Jaungoiko ber-bera,

–Eder danen artian  
ederrena zera.

–Eta nigan ederren  
da nere sorrera.

–Izarrik al da zure  
begien berdiñik?

–Oraindaño beñepeñ  
eztago egiñik.

–Eta Jaunaz ostian  
zu beziñ apaiñik?

–Ezta urrikan ere  
emango didanik.

–Eguzkiaz jantzirik  
zaude aiñ apaiña.

–Eta buruan koroi  
izarrez egiña.

–Zu bakarrikan zera  
Jainkoaren diña.

–Baita're ni bakarrik  
Ama ta Birjiña.

–Zu zera eguzki ta  
izarren argia.

–Nere oñen azpian  
dago illargia.

–Sortzetik pekaturik  
kutsurik gabia.

–Guzia ederra ta  
guzia garbia.

–Poztutzen gera, Ama,  
zutzaz oroitzean,  
beti bizi nai degu  
zure biotzean.

Esan nai genizuke  
arnas bakoitzean:

«Zuretzat bizitzan ta  
zuretzat illtzean».

–Guziro nereak nai  
badezute izan,  
bizi zaitezte oraiñ  
aingeruen gisan;  
ejenplo ona eman  
lurreko bizitzan,  
gero Jaunak zeruan  
danok bildu gaitzan.

P. M

Baserritarra, 1909-XII-4.

## Aurtxo Jesusi

---

*Belenera goaz gaur  
alai eta pozak,  
Jesusi eramanaz  
gatzai ta bildotsak.*

Aingeru batek die  
artzaiari esan  
Jainkoa jaio dala  
Aurtxo baten gisan;  
ara artzai gaixoak  
galdez nun dabilzan  
Aur orren jaiotz ori  
nun ote dan izan.  
*Belenera...*

Aska zartxo bat eta  
lastua barruan,  
ara lasto artian  
Aurra nun dagan.  
Zeru-lurren Errege  
aiñ pobre munduan?  
Orra gugatik zenbat  
sufritutzen duan.  
*Belenera...*

Artzaiak billa datoz  
mendian barrena,  
ara txabola baten  
arkitu dutena:  
Aurtxo bat, jaio izan  
danik ederrena,  
gizona salbatzera  
oraiñ datorrena.  
*Belenera...*

Aska ondoan daude  
asto ta idia,  
arnasaz berotuaz  
Aur jaio berria;  
baita're Aurra zaitzen  
Jose ta Maria,  
guri erakusteko  
zerura bidia.  
*Belenera...*

Aiñgeruak zerutik  
or datoz kantari:  
«Gloria zeru goian  
gure Jainkoari,  
ta borondate ona  
duan gizonari  
pake santu bat eta  
ondasun ugari.  
*Belenera...*

Aurtxo eder zeruko  
loreen loria,  
zerutikan lurrera  
zera etorria;  
on guziak baño're  
zera zu obia,  
iguzu pakea ta  
zeruko gloria.  
*Belenera...*

**P. M.**

*Baserritarra, 1909-XII-18.*



## Ama Doloretakoari

---

Gogoratzean, Ama maitea,  
zure dolore samiñak,  
dirala zazpi ezpata zorrotz  
nere pekatuz egiñak,  
ai zeñ andi ta gogorak diran  
nere oñaze ta miñak!  
Lertzen nau oien damua zuri  
agertu nai ta eziñak.

Zugana nator, Ama nerea,  
zugana nator negarrez,  
kontzientzia dagokit beti  
ixildu gabe deadarrez;  
nere bizitzan estu ta larri  
nabill penaren indarrez,  
atsekabeen samintasunaz  
biotza lertu bearrez.

Banintzan ere pekatuan ni  
errez ta sarritan jausten,  
sekulan ere eninduzula  
badakit eskutik uzten;  
asko alditan ez erortzeko  
zedorrek zenidan eusten,  
zenbateraño maite ninduzun  
oraiñ det ondo ikusten.

Pekatarien Ama da zuri  
deitzen zaitzun izena,  
ondo dakizu pekatari bat  
gaiztoa izan naizena;  
ikusten dezu damu dedala  
lenago ala izana,  
lagun zadazu jarrai dezadan  
zeruko bide zuzena.

Pekatua da zorigaiztoan  
anima gaixoen gaitza,  
asko ta asko beti-betiko  
galtzen dituan ekaitza;  
lagun zadazu aurrerakoan  
ondutzen nere bizitza,  
adi zadazu biotz guzitik  
egiten dedan otoitza.

Belu bada're nere begiak  
diran ezkerro idiki,  
aurrerakuan bizi nai nuke  
lenago baño obeki;  
baña konfiantz andirik nigan  
eziñ nezake iduki,  
Ama zera ta izan ezazu  
seme onezaz erruki.

P. M.

*Baserritarra, 1910-III-12.*

## Jesus gurutziltzatuari

---

Nora begiratu  
diot nik Jesusi,  
egiñ ondoan asko  
pekatu itxusi?  
Oiekiñ baldiñ badet  
gurutzian josi,  
nola nindeke negar  
egin gabe bizi?

Gorputz guzia dezu  
zauri bat egiña,  
errukiz arria're  
biguntzeko diña;  
edaritzat dizute  
ematen ozpiña,  
eta arekiñ naste  
beaztun samiña.

Nere Jesus maitea,  
zuzaz oroitzian,  
nigatik zaituztela  
josi gurutzian,  
or ikusten zaitudan  
aldi bakoitzian,  
eztakit zer sentitzen  
dedan biotzian.

Alare erregutzen  
diozu Aitari,  
barkatuzeko zure  
etsai taldeari,  
ejenploz mugitzeko  
asko pekatari,  
ikastera zугandik  
barkatzen alkarrri.

Buru ori arantzaz  
oso koroatu,  
gañera iltzez esku  
ta oñak zulatu,  
saietsa berriz burni  
zorrotzaz urratu,  
egiñ ditudalako  
ainbeste pekatu.

Egiñ badegu ere  
bizitzan pekatu,  
federikan beñepeñ  
eztegu ukatu;  
lapur onaren gisa  
dezagun bukatu,  
arren, Jesus maitea,  
barkatu, barkatu!

P. M.

Baserritarra, 1910-III-26.

*Gazterik santu egiñ  
zeran aingerua,  
lagun zaiguzu orain  
iristen zerua.*

Aingeruzko bizona  
lurrean egiña,  
Jesus maitatzen urtu  
zeran serafiña,  
oni izan diozun  
amorio fiña,  
bera da zeru-lurrak  
arritzeko diña.  
*Gazterik...*

Zure gorputz gaixoa  
dago dariola,  
azotez zauriturik,  
irrian odola;  
santuak zerura jua  
bear badu orla,  
nola jua gindezke gu?  
Nola? Nola? Nola?  
*Gazterik...*

Gaztetatikan zure  
gurasoak utzi,  
etxea, tituloak,  
ondasun da guzi;  
erlijiora zuaz  
mundutik igesi,  
Jesusen Lagundian  
nai dezula bizi.  
*Gazterik...*

Komunioan Jesus  
gozoro artzia  
izan zan beti zure  
egarri bizia;  
eta zure barrua  
zeru biurtzia,  
ona lurreko zure  
atsegiñ guzia.  
*Gazterik...*

Guziz maite zenduan  
Maria Birjiña,  
pekatarien Ama,  
Zeruko Erregiña;  
kastidadeko boto  
zedorrek egiña,  
zure Amari zaio  
guziz atsegiña.  
*Gazterik...*

Jesus eta Maria  
zuk beti goguan.  
zure biotza beti  
arekiñ zeguan;  
aingeruzko bizitza  
egiten zenduan,  
agur lirio eder  
zaudena zeruan.  
*Gazterik...*

**P. M.**

*Baserritarra, 1910-VI-18.*

## Nuñez-tar Iñazio zanari

---

Lorea goizetikan  
nola dan zabaltzen,  
eguerdiko marduldu,  
gaberako biltzen,  
ala gizona're da  
lurrean ibiltzen:  
atzo jaio, gaur bizi  
eta bigar iltzen.

Nuñez-tar Iñazio  
atzo gurekin zan,  
gazte mardul ta guri,  
lurreko bizitzan;  
gaur galdetzen badegu  
beraz zer dan izan,  
erantzungo digute:  
«Ill zan, ill zan, ill zan».

Kristaurikan arkitu  
ziteken onena,  
euskaldun zintzo, leial,  
jator eta mena,<sup>1</sup>  
ondo irabazia  
zeukana omena;<sup>2</sup>  
utzi digu betiko  
bere oroipena.

Ikusten degu berak  
egiñ duan lana,  
Jainkoak sariatu  
degiola dana;  
eta arkitu dezan  
betiko atsedena,  
errezatu dezagun  
aita gure bana.

P. M.

*Baserritarra*, 1910-IX-24.

---

<sup>1</sup> *Formal, serio.* (*Baserritarra* aldizkariaren oarra).

<sup>2</sup> *Fama, gloria.* (Id.)

## Ama Birjiña Kontzeziokoari

---

Eder danen artian  
zera ederrena,  
zeru guzi-guzia  
edertzen zaudena;  
jargoirik goienian  
Jaunaren urrena,  
zeruak kantatutzen  
dizute omena.

Sekulan ezta izan,  
izango ere ez,  
zuri urrik emango  
dizunik ederrez;  
gau oskarbian zeru  
josia izarrez,  
zure ondoan ori  
guzia ezer ez.

Jatorriz pekatuaren  
kutsurik gabia,  
guzia ederra ta  
guzia garbia;  
Jaunak egiñ zaituan  
zeruen argia,  
lurra pozez betetzen  
dezun uztargia.

Zeruen apaingarri  
Jainkoak egiña,  
Bera maitatzen urtzen  
zauden serafiña;  
zu bakarrikan zera  
Ama ta Birjiña,  
bakarrik zeralako  
Jainkoaren diña.

Eguzkiaz jantzirik  
zeruan agertu,  
izarrak koroiturik  
guzia edertu;  
illargia oiñalki  
daukazula gertu,  
zuri begira eziñ  
gindezke aspertu.

Jaunaren Ama zeran  
bezela, Maria,  
oroitu zaitte ere  
zerala guria;  
izan zaitte lurrian  
gure gidaria,  
eta gero iguzu  
zeruan gloria.

P. M.

*Baserritarra, 1910-XII-3.*

*Jesus etorri zaigu  
zerutikan lagun,  
goazen Belenera ta  
adora dezagun;  
goazen, goazen, goazen  
adora dezagun.*

Aingeru batek digu  
artzaioi esan  
nola aurtxo eder bat  
jaio dan pobrezan;  
ederragorik eziñ  
ditekela izan,  
zerbait eramateko  
gaixoak jan dezan.  
*Jesus etorri...*

Oial zartxo batzuek  
dauzkala soñian,  
ara nola dagoan  
lo lasto gañian;  
Jose eta Maria  
askaren oñian,  
lo lotxo kantatzeko  
esnatzen danian.  
*Jesus etorri...*

Aska batean dago  
Aur gaixoa otzak,  
su egiteko Josek  
biltzen ditu zotzak;  
errukitu zaitzte,  
kristauen biotzak,  
arren limosnatxo bat  
Aur gaixoarentzat!  
*Jesus etorri...*

Astoa ta idia  
askaren atzian,  
arnasaz berotzeko  
Aurra oztutzian;  
nola eztegun jua nai  
ara esku-utsian,  
limosna biltzen gabiltz  
egiñal guzian.  
*Jesus etorri...*

Zerutikan etorri  
dira aingeruak,  
soñu jo ta kantari  
bedratzi koruak;  
argi ta alai daude  
Belen inguruak,  
idiki diralako  
guretzat zeruak.  
*Jesus etorri...*

Atez ate gabiltza  
limosnaren billa,  
eman diguzute ta  
orain esker milla;  
ikusi nai duanak  
Aur eder umilla,  
Belenera gurekiñ  
etorri dedilla.  
*Jesus etorri...*

**P. M.**

*Baserritarra, 1910-XII-17.*



## Iru Erregeak Jesusekin izketan

---

–Nundik nora zatozte,  
nere Erregeak?

–Sortaldetik zugana  
gakarzuki fedeak.

–Eta nork erakutsi  
dizute bidia?

–Izar eder bat izan  
degu gidaria.

–Eta nork eman nere  
jaiotzaren berri?

–Izarra ikusita  
diogu igerri.

–Eztezute bidian  
izan luzapenik?

–Jerusalenen puxkat  
zuzendu eziñik.

–Eziñ zendutelako  
arkitu ostatu?

–Ez; baizik zaigulako  
izarra ezkutatu.

Eta nola zerate  
azkenik zuzendu?

–Erodesek Belenen  
zaudela esan du.

–Erodesek badaki  
emen nagoala?

–Bai, ta dio bera're  
etorriko dala.

–Or ikusten ditudan  
gauz oiek zer dira?

–Dakartzkitzugun urre,  
intzentsu ta mirra.

–Erregalo oiekin  
zatozte nigana?

–Baitare beste zerbait  
obeago dana.

–Zer da oriek baño  
obeago dana?

–Emen uzten dizugun  
biotz eder bana.

–Bedinkatzen zaituztet,  
Errege maitiak.

–Idiki zaizkigutzu  
zeruko atiak.

–Ara idikirikan,  
zuazte pakian.

–Agur, Aurtxo ederra,  
zerura artian.

P. M.

*Baserritarra, 1910-XII-31.*

## Asuna ta larrosa

(Azkeneko indar-neurtzeetan *aipamen onragarria* irabazia.)

---

Asuna ta larrosa  
baratza batian  
itzketan ari ziran  
alkarren artian;  
larrosa beti umill  
zerbait esatian,  
baña asuna arro  
beretzat kaltian.

### *Asunak:*

Egonagatik i or  
ni baiño gorago,  
beti-beti bezela  
oraiñ ere arro,  
lurreruntz makurtua  
zergatikan ago?  
Uste al den aizela  
ni baiño geiago?

### *Asunak:*

Kargarik lepuan ik  
zer izan bear den?  
Obe uke baengo  
ni bezela lerden;  
lurrera makurtzen baaiz  
bareren bat or den,  
eta zatituko au  
egiñaz lau laurden.

### *Larrosak:*

Ez zu baiño geiago  
ni naizelakuan,  
baizik Jaunak ipiñi  
ninduan lekuan;  
nola karga aundiak  
dauzkadan lepuan,  
nago makur, ez modu  
zu bezelakuan.

### *Larrosak:*

Nere lepoko kargak  
dira eun orri,  
guziak eder-eder  
zuri eta gorri;  
ikustatzalle asko  
oi zaizkit etorri,  
on-damurik eztizut  
ematen zedorri?

*Asunak:*

Eztiñat izaten nik  
ikusle bearrik,  
eztiñat nai're iñork  
ematea urrik;  
beste moduz bizi naun  
neroni bakarrik,  
ekarri gabe nere  
buruari larrik.

*Larrosak:*

Etzaizte, asun jauna,  
arren, asarratu,  
barka zadazu, bada  
nai zaitut onratu;  
nere esanak bitez  
guziro borratu,  
beñere eztitzala  
iñork gogoratu.

*Larrosak:*

Errez al da zugana  
iñor urreratzen,  
ukitzen dizun dana  
badezu erretzen?  
Adiskidiak juango  
zaizkitzu urritzen,  
obeki ez artzekoz  
baita're urrintzen.

*Ume batek:*

Ume txit eder batek  
zion larrosari  
andikan bereala  
eskua ezarri;  
laztandu eta zuan  
paparrian jarri,  
betiko izan zediñ  
bere apaingarri.

*Asunak:*

Arrotxo asten aiz gaur  
neri erakusten,  
ez al den ba uste nik  
dedala ikusten?  
Ezpadidan oraindik  
ixillikan uzten,  
astera nijoakiñ  
makillaz erausten.

*Atso batek:*

Atso zar bat ere zan  
nunbaitikan sortu,  
eta asuna zuan  
sustraitik artu;  
irakiten zegoan  
ur berotan sartu,  
txerrien jatekoa  
ipintzeko gertu.

*Asunak, larrosak eta juez batek:*

Asunak esan zuan:  
«Ai au nere lotsa!».  
Larrosak berriz zion:  
«Auxe baida poza!».  
Ondoren aditu zan  
juez baten boza:  
asuna baño zala  
obia larrosa.

*Apaiz batek:*

Gauzen bat ondo egiñ  
nai dezutenian,  
begiratu larrosa  
eta asunian;  
ibilli nai duanak  
bide zuzenian,  
ispillua or dauka  
umilltasunian.

*Euskal-Erria, 72, 1915.*

*Pan-pin, 1960.*

## Bertso berriak

---

Kantatutzera nua  
Patxi Motzen gaitza,  
bere tripak aspaldi  
aserre dabilta;  
sarritan sortzen zaio  
barruan ekaitza,  
apurtuko lukena  
Anbotoko aitza.

Galtzak urraturikan  
dabilzki atzian,  
lurra dardaratzen du  
uzkar bakoitzian;  
artillero jartzeko  
gerrako ontzian,  
beste orrelako bat  
ez da probintzian.

Su onduan jarrita  
tirri eta tarra,  
alde guzietara  
dariyo uzkarra;  
aspo bearrik ez da  
pizteko su-garra,  
kuriosua dago  
gure mutill zarra.

Uzkarraren indarra  
dago agirian,  
Patxi dabil apostu  
noiznai egiñ naian;  
jartzen bazaio iñor  
atzetik parian,  
bota baietz amaika  
leguan aidian.

Arto, esne, gaztaña,  
baba ta sagarra,  
baserrirako ez da  
muniziyo txarra;  
naiz auzokoak egiñ  
burla eta farra.  
Patxi guriak majo  
jotzen du adarra.

Pake-aldi izaten  
badu uneetan,  
ixildu gabe dago  
gero egunetan;  
polka, mazurka ondo  
jotzen du kornetan,  
Patxi nagusi dago  
musika onetan.

Tripa jartzen danian  
gaztañaz beteta,  
soñu jotzeko dauka  
sekulako beta;  
goizian diana ta  
gabian retreta,  
ixildu gabe dago  
Patxiren korneta.

Txakurrak zaunka eta  
astoak arrantza,  
soñu eder orrekiñ  
gazte askok dantza;  
fresko samarrak dauzka  
gibela ta gantza,  
aizeak galdu bear  
diyote buskantza.

Patxi gaxuak nairik  
libratu barrua,  
pozikan zurrut egiñ  
du Muxu Larrua;  
oraiñ tripak egiten  
diyote orrua,  
atzetikan etzaio  
faltako txorrua.

Komunera ostera  
or dabill saltaka,  
Patxi gaxuak badu  
naikua matraka;  
itxi eziñik berriz  
atzeko ataka,  
ixillik zirin-zirin  
dariyola kaka.

Galtzetan zuloa ta  
andik jariyua,  
muestran agiri da  
daukan oliyua;  
guziyak jakiñ bear  
bere baliyua,  
munduan badauka, bai,  
purgatoriyua.

Bost libra arto ore  
berorik irintsi,  
este lasaiak ditu  
ainbestian itxi;  
jariyua oraindik  
badu, baña gutxi;  
luzaro ondo bizi  
zaite, agur, Patxi.

Bertso-papera: *Tolosa.- Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana. Au izango da bertso auen argitalpenik zaarrena.

Antonio Arrillaga jaunaren paperetatik. Onek aitatzerik merezi duan aldaketarik ez du; eta aurretik *estribillo* edo kantarte au eskeintzen du:

*Jenero piña,  
gustoz egiña,  
Patxi Motzek dauka,  
ara makiña,  
putza ta ziriña,  
uzkarra ta kaka.*

# BERSO BERRIAO.

1  
Cantatutzeroa nua  
Paohi motzen gaitza,  
Bere tripac aspaldi  
Aaerre dabilta:  
Sarritan sortzen sayo  
Barruan ecaitza,  
Apurtsuo luquena  
Aubotoco aitza.

2  
Su onduan jarri ta  
Tirri eta barra,  
Alde gucietara  
Daziyo usorra:  
Aspo bearric ez da  
Pisteco su garra,  
Curiosua dago  
Gara mutill zarra.

3  
Eau ta agarra,  
Baserriraco az da  
Municiyo charra:  
Naiz auzocoac eguin  
Burla eta farra,  
Paohi guriao majo  
Jotzen du adarra.

4  
Galtzac urratirican  
Dabilzqui atzian,  
Lurra dardaratzen du  
Uzoar bacoitzian:  
Artillero jartzeco  
Guerraco ontzian,  
Besta orrelaco bai  
Ez da probintzian.

5  
Uzcarraren indarra  
Dago aguirian,  
Paohi dabil apostu  
Noiz nai eguin nayan:  
Jartzan bazajo inar  
Atzetico parian,  
Bota bayetz amaica  
Leguan aidian.

6  
Pague aldi izaten  
Badu uneetan,  
Isildu gabe dago  
Guero egunetan:  
Polka-mazorka ondo  
Jotzen du cornetan,  
Paohi nagusi dago  
Musica onetan.

7  
Tirri jartzan dabilta  
Gartafiaz beteta,  
Soñu jotzeoc dauca  
Secnlaco beta:  
Goician diana ta  
Gabian retrata,  
Isildu gabe dago  
Pachiren corneta

8  
Chacurrao zaunca eta  
Astoac arrantza,  
Soñu eder orrequin  
Gaste asoco dentza:  
Fresco samarrac dauca  
Guibela ta gantza  
Aiceco galdu beor  
Diyote buseantza.

9  
Paohi gaitzaco nairio  
Garbitu barrua,  
Pocicoan zurrit eguin  
Du Musu Larrua:  
Orain tripac emiten  
Diyote orrua,  
Atzelican etzayo  
Faltzaco chorrara.

10  
Comunera ostera  
Or dabili saltacoa,  
Paohi gatuso badu  
Naietia matraoa:  
Iohi acinico bezzic  
Atzeco ataco,  
Isillio cirin cirin  
Dariyola oaco.

11  
Gartatzen zutou ta  
Andio jardiyo,  
Mnestran agueri da  
Dancan oliyua:  
Guotyao jaquin beor  
Bere bahyua,  
Munduan badauca bai  
Purgatoriyoa.

12  
Bost libra arto ore  
Berorio irinohi,  
Este lassyo ditu  
Aimbestian iohi:  
Jariyua orandie  
Badu baña guchi,  
Luzato ondo biri  
Zaito, agur Paohi.

TOLOSA.—Imp. de E. López.

Aurreko bertsoen kanta-papera.

## Apustu motza

---

Apaiz bik egin dute  
aurten apostua:  
erten baietz ta ezetz  
arbolari ostua;  
merienda jateko  
nenguan poztua,  
baiña tripa gelditu  
bear zait ustua.

Akerraren adarra  
baiño igarrago,  
arbola zelayian  
agerian dago;  
galtzalleak ez du nik  
dedan ainbat gogo  
merienda jartzeko;  
urkatu lenago!

Juan dan urteko orri  
igar geldituak,  
aurtengoak dirala  
gaude adituak.  
Zenbat diskurritzen du  
gizon larrituak!  
Pentsatzen det ez ote  
geran ijituak.

Suak ematen duan  
bezela su-garra,  
eta lurrak ostera  
sasiya ta larra,  
ala arbol igarrak  
ostoa igarra.  
Ederki jotzen digu  
Don Kosmek adarra!

Jakinduriz ezta au  
partzeko bururik,  
ezta irakurri ez  
duan libururik;  
meriendaz gauza bat  
dakit segururik:  
guziok geldituko  
gerala baraurik.

Alperrik eman zaio  
ugari gorotza,  
arbola ori dago  
aspaldi ill-otza;  
kastu oiekin berriz  
bajatu da poltsa,  
penaz zatituko da  
jaun onen biotza.



Arrigarrizko gauza:  
arbol orri zaio  
arta-landaretxo bat  
gorozetik jaio;  
norbaitek alegiña  
pranko egin diyo,  
baiña alper-alperrik,  
ez dio baliyo.

Merienda batgatik  
ai zer apuruak!  
Orren lamentu eta  
orren suspiruak!  
Zertako dira urre  
ta milla duruak?  
Deabruarentzat dira  
jaun orren diruak!

*Urruzuno 'tar P. M'en ipuiak,*  
Lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
*Bertsolariya, 1932-III-15.*

## Astua gaxorik

---

Kantatuzera nua  
nere istoria,  
onela al baneza  
ondu umoria;  
mudatu gabetanik  
gauzen koloria,  
egiak beti dauka  
bere onoria.

Albaiteroak dute  
egin esamiña,  
deklaratu ere bai  
astoaren miña:  
gaixoak du barrua  
libratu eziña,  
sendatzeko bear du  
artu meretziña.

Ijitoai diet  
asto bat erosi,  
zori gaiztoan nintzan  
tratuetan asi;  
onetan nere tripak  
dirade egosi,  
baiña beste gauzarik  
ez nuen merezi.

Puxigarri jarririk  
puntan kañabera,  
moda berrian orra  
jeringa atera;  
malba-loraren ura  
zaiakin batera,  
oiekin meretziña  
noa ematera.

Inguraturik baba,  
zaia ta lastoa,  
ustez egiña neukan  
aurtengo gastoa;  
baiña bereala da  
gaxotu astoa,  
ez da beti konbeni  
guziyon gustoa.

Zutiñik egon ezin  
gure asto zarra,  
aspaldian egin det  
gogotik negarra;  
lagunak albotikan  
burla eta farra,  
kontsolatzeko ezta  
alibio txarra.

Kosta zait egitea  
operaziyua,  
etzaio ondo irten  
erremediyua;  
len falta zana orain  
sobra jariyua,  
leku guzian dauka  
erregabiyua.

Ez diot kulparikan  
iñori ezarten,  
suertia onela  
zaitelako irten;  
pazientziarekin  
pasako naiz aurten,  
erremediatzeko  
beste urte baten.

Laisterka jokatzeko  
bareari ankaz,  
desafiyo ematen  
or dago erronkaz;  
egun osoan jaten  
egoteko kapaz,  
bazter guzियak ditu  
ondatutzen kakaz.

«Mundua esan oi da  
dala eskallera,  
bada ikusten dira  
asko gora-bera;  
nagusiak bota nau  
etxetik kalera,  
juatera obligatzen  
nau ospitalera».

Usai gozoa pranko  
badegu etxian,  
lastimaz iraungo du  
denbora gutxian;  
arranoak agertu  
dira gaur goizian,  
aiek ere dabilta  
zerbaiten eizian.

Agur, nere astoa,  
esanak barkatu,  
makarrot egin eta  
iya naiz urkatu;  
zure onran egia  
ez det nai ukatu,  
amabi bertsoarekin  
orain det bukatu.

*Urruzuno tar P. M'en ipuiak*, Lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
*Bertsolariya*, 1932-III-8.

Bertso-papera, *Imp. Macazaga - Rentería* moldiztegian argitara emana. Aldaketarik gabea.

# Bertso Berriak

1  
Kantatutzora nua  
nere istoria,  
onble al banoza  
onda umoria:  
mugatugabetanik  
gauzen koloria,  
egink beti dauka  
bere onoria.

2  
Ijitoari diet  
asto bat erosi,  
zori gaitztoan nintzan  
testinotan hasi:  
onetan nere tripat  
dirade agosi,  
baha beste gauzarik  
ez nuen mirezi.

3  
Inguruterik baha  
zaya ta lastoa,  
ustez egina noukan  
surtengo gastoa;  
baha bereala da  
gaxotu astoa:  
ez da beti konbeni  
guziyon gastoa.

4  
Albaiteroak dute  
egin osamina  
deklaratu ere bai  
astoreen miña;  
gaxoak du barrua  
libratu ezina,  
sendatzeko bear da  
artu meretzina.

5  
Puxigarri jarririk  
puntan kafabera,  
muda berrian orra  
leringa atera;  
malba loraren ura  
zayakiu batara,  
oyekin meretzina  
noa ometera.

6  
Zutiñik egon ezin  
guro asto zarra,  
aspaldian egin dot  
rogotik negarra;  
lagunik albotikan  
burra eta larra,  
konsolatzeko ezta  
alibio txarra.

7  
Kosta zait egitea  
operaziya,  
etzayo ondo irten  
erremediya:  
len falta zana orain  
sobra jaryua;  
leku guzian dauka  
orregariya.

8  
Lasterka jokatzeko  
bareari ankaz,  
desafyo naiten  
or dago orronkaz;  
egun osan jaten  
egoteko kapaz,  
baxter guziyak ditu  
ondatutzen kakaz.

9  
Usti gozoa franko  
badogu etxian,  
lastimaz irungio du  
denbora gutxian;  
arranoak agortu  
dira gaur gozian,  
aiek ere dabilta  
zerbaiten oizian.

10  
Ez diot kulpaitzen  
ifiori ezarten,  
suertia onble  
zaitelako irten;  
pazientziarekin  
paseko baiz aurten,  
erremediatzoko  
beste urte baten.

11  
Munduá esan oj da  
dala eskallera,  
bada ikusten dira,  
asko gora bera:  
ngusiak bota nau  
otzotik kslera,  
jutarra obligatzen  
nau ospitalera.

12  
Agtur nere astoa  
osanak barkatu,  
makarrot egin eta  
iya nait urkatu;  
zure onran egia  
ez det nai akatu,  
amabi bertsoekin  
orsin dot bukatu.

Imp. Macabaga - Revalto

Aurreko bertsoen kanta-papera.

## Dantza berriak

---

Erdal erritik agertu zaigu  
dantza-jenero berria,  
izan bear du, dirudienez,  
mozkorren batek jarria;  
baltzia du izena eta  
oso da nazkagarria,  
begiratzeak bakarrik ere  
eman lezake larria.

Mozkorrak zutik juateko  
oi du laguna albuan,  
dantzatutzeko begira nola  
birritan bearke duan;  
mutill ta neskatx alkarri eldurik  
burrukarien moduan,  
alare beren ustean ezta  
formalagorik munduan.

Jira ta bira zoroen gisa  
baiña pausua narratsa,  
ao batetik bestera errez  
dijoakie arnasa;  
batek gaitzikan badu izango  
dute besteak arraza,  
alkarri gaitza egotzitzeko  
orra bide txit erraza.

Lastima ere ezta txikia  
danen arpegi legunak  
malaskatzea bizar zatarraz  
beren dantzari lagunak;  
ori guzia egiten dute  
lotsa gutxiko zaldunak,  
baiña merezi ere bai dama  
buru ariñ ta aul dunak.

Emakumia, jakin ezazu,  
sarri bazabiltz baltsian,  
jartzen zerala nolabaiteko  
emakumeen klasian;  
aurretik eder egiñagatik,  
izango dira atzian  
guraiza zorrotz *kras-kras* egingo  
dutenak zure jantzian.

Nere iritziz baltsio-zale  
dan emakume gaztia,  
nai ezpadu're senargai gabe  
geldituko da tristia;  
mereziko du usai eginta  
danak albora uztia,  
santuak jazten igaro dezan  
bere bizitza guztia.

*Urruzuno 'tar P. M'en ipuiak,*  
Lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
*Bertsolariya, 1932-VI-12.*  
*Tierra Vasca, 1933.*

### I

Patxi ta Malen senar-emazte onak ziran. Baña Patxik bazuen Malenek nai etzukian akats bat... Ardozaletxoan zan.

–¡Jesus! –esan zion egun baten Malenek Patxiri–. Bi pitxar ardo eran dituzu eta etzera oraindik ase.

–Zuk badakizu, Malen, nik zenbat ardo eran dedan?

–Bai, ta ondo alare.

–Eta bai al dakizu zenbat egarri daukadan?

### II

Maiz izan oi zituzten beren eztabaidak, batez ere jai arratsetan; eta senarrak esan oi zuan:

–Bakoitzak bere tresnak berezi, eta bata besteagandik alden-du egin bear degu: mai au zuk ekarri zenduan, tupia nik...

Eta onela beste tresnak ere berezi oi zituzten, bigaramonian almoneda egiteko ustian, baña etzan beñere egiten. Emazteak arrazoia ematen zion senarrari berea egindakoa; eta senarrak ere bai emazteari; ala, biak izaten zuten arrazoia, eta pattar apurtxo bat txurrut egiñaz, paketzen ziran urrena arte...

### III

Aur eder bat izan zuten, baña laxter il zitzaien, eta Malen iñude jua zan Donostiara...

–Patxi, bai al dezu Malenen berririk?

–Bai, Joxepantoni; ona emen bere eskutitza.

–Zer dio?

–Lastozko txapel bat bialtzeko esaten nion udarako neretzat, baña esaten dit bururik eztuenak eztuala bear txapelik.

## IV

–Ongi etorri, Malen. Bazatoz?

–Bai, banator ba, Patxi; ez nai baño len.

–Ni ere ondo naitua nengoan zu etortzeko; diru preskua ere ekarriko dezula ta... aspaldian legortxo're eztaarritik banabil eta...

–Uuum!...

## V

Diru preskua iraun zuan bitartian ondo ibilli ziran: biak zuten arrazoia. Baña egun batian oso aserretu ziran. Etzeguan alare almoneda egiteko biderik. Patxik saldu zituan etxeko tresna guziak, emaztea iñude zan bitartean, eta egiñ zion beti-betiko agur emazteari.

–Ogei ta lau ordu baño len etxeruntz begira jarriko zera –esan zion emazteak.

–Zu, berriz, ogei ta lau ordu baño len nere eske etorriko zera –erantzun zion Patxik.

## VI

Ibarretako bentaraño juan zan Patxi; eta an orditurik, bere emazteari zintzerraldi (*cencerrada*) bat emateko ustean, abiatu zan etxe aldera; baña illun zegoan eta sartu zan Errota-txikiko zalpurdian, lo egiteko asmoan.

## VII

Eguna argitu baño len, an zan kalian Errota-txikiko morroia adarra (*corneta*) joaz.

–¡Julian! –deitu zion emakume batek–. Bai al dakatzu patarik?

–Bai, Malen –erantzun zion morroiak–. Or daude zaku batzuek iriñen gañian.

–Ia, ba, bat ematen didazun.

–Ar zazu zedorrek, nik zaldi izu oni eusten diodan bitartean.

Juan zan Malen zalpurdira; oratu zion gañeko zakuari, eta astuntxoa bazegoan ere, eraman zuan nekez, al bezela, eta etxe-ko atarian gora igotzeko puxka bat atsedentzeko, bota zuan... Zer?... Bere senarra!

Ikaraturik, esan zion emazteak:

–Banekian nik zu, ogei ta lau ordu baño len, etxeruntz begi-  
ra jarriko zifnana.

–Baita nik ere zu, ogei ta lau ordu baño len, nere billa etorri-  
ko zifnana –erantzun zion Patxik.

Patxi gizajoa da  
sarritan egarri,  
Malenek eztio nai  
ardorik ekarri.  
Eztabaidan dabilta  
estu eta larri,  
alare arrazoa  
ematen alkarri.

Txiki bat ardorentzat  
eziñ ezer sortu,  
Patxiri eztarria  
osoro legortu.  
Eta Maleni berriz  
belarriak gortu,  
eta Patxiganako  
biotza gogortu.

Malen ifnude juanik,  
senarra etxian,  
lanik asko egin du  
denbora gutxian.



Tresna danak saldu ta  
etxia utsian,  
ondo garbirik zeukan  
Malen biurtzian.

–Agur, oraiñ betiko  
banua ni, Malen.

–Biurtuko zera, bai,  
zu nik nai baño len.

–Ez, ezpazatoz billa  
neronen ondoren.

–Zure bearrik eztu  
iñork ere emen.

Ustez zeramalarik  
patata zakuan,  
Malenek an zeraman  
senarra lepuan.  
Ai zeñek leukakian  
bi aien sasoia!  
Beti eztabaidan ta  
biak arrazoia!

*Euskal-Esnalea*, 1916.

*Urruzuno* ÷ar P. M'en ipuiak,

Lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.

## Jauregiko gaztañak

---

Gabon-erregaluak  
nere lagunai,  
ona non dizkiedan  
ekarri danai;  
jankai ona da baiña  
ala ere normai  
kontuan ipintzen det  
egon dedin ernai.

Ona emen gaztañak,  
jan nai dan guzia,  
ezta gero paltako  
atzetik aizia;  
eta *plit-plot*-ka berriz  
atake luzia,  
arriskuan jarriko  
diguna bizia.

Tripa ezpada jartzen  
lastertxo utsikan,  
soñuak joko dira  
ederki musikan;  
agertzen bada berriz  
iñondik eizikan,  
tiro bat ere ezta  
irtengo utsikan.

Ezta faltako ere  
kia ta lurruna,  
usaia, kiratsa ta  
barruko illuna;  
baiña au guzia da  
naikua biguna,  
bakarrikan sudurra  
minduko diguna.

Aize-kontuan berriz  
ez asi indarka,  
bada lanbide onek  
arriskua dauka  
zikintzeko pinturaz  
atzetikan praka,  
zeren bere ondoren  
agertzen dan kaka.

Orain nai badezute  
jattia gaztañok,  
aitzakirikan eman  
eztezala iñork;  
ustelak kendurikan  
ona emen piñok,  
Mendarotik dakarzki  
Esteban Eginok.

*Urruzuno 'tar P. M'en ipuiak,*  
lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.

## Arduaren bentajak

---

Guazen, guazen,  
oker edo zuzen,  
arduaren bentajak  
ikusi ditezen;  
gazte eta alai,  
ona nun gatozen;  
asi gaitean  
basoak betetzen.

Ona, ona,  
gizon guziz ona,  
ardotarako saldu  
atsuaren gona;  
jaia alegre ta  
triste biyamona,  
baiña etzaite  
estutu, amona.

Ara, ara,  
napar ardo zarra,  
zuk kentzen diguzu  
urdalleko arra;  
illa piztutzeko  
badezu indarra,  
edan dezagun  
bada *zarra-zarra*.

Bai, bai, ez, ez,  
nere maite Kontzez,  
berak irakasten du  
ingeles ta prantzes;  
*klin klon ta sibuplé*  
guzia itz utsez,  
eta barrua  
betetzen du putzez.

Ari, ari,  
begira berari,  
argi bat egon eta  
ikusten dira bi;  
aurrerapen ori  
zor zaio arduari,  
argatik gera  
gu eraten ari.

Ez, ez, bai, bai,  
ai beti balitz jai,  
ardoa eran eta  
bizitzeko alai!  
Ardoak egiten  
gaitu danok anai,  
ardo-zaleok  
gera berdiñ non-nai.

Ama, ama,  
orra gura fama,  
alde guzietara  
ardoak darama;  
pobriak mozkorra,  
aberatsak broma,  
disimulatzen  
izaten du lana.

Orra, orra,  
ardo aldikorra,  
zurrut egin ta eman  
diguzu mozkorra;  
or-emen amillka  
neurtuaz lurra,  
kendu diguzu  
sorgiñen bildurra.

Ola! Ola!  
Ze arraie pola!  
Zuzenian eziñ joan  
egiñaz arrola:  
baten baztarra jo,  
bestean arbola,  
zutika eziñ  
ibilli iñola.

Kontu, kontu,  
ez gaitezen oitu  
ardo asko edaten,  
ez dakigun goitu;  
bada ez du iñork  
ardo garaitu,  
berak bai asko  
azpiratu ditu.

Pian, pian,  
etxera abian,  
lau oñian bada ere,  
arren!, jua gaitian;  
gauza dana betor  
ixillik gabian,  
bestela geldi  
dedilla maipian.

Agur, agur,  
luze ainbat labur,  
ardo edan eta  
sabela *gur-gur-gur*;  
eta atzetikan  
jariua *pur, pur*,  
ai zer usaia!  
Agur, agur, agur.

*Urruzuno* ÷ar P. M'en ipuiak,  
lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.

*El Día* egunkaria, 1931-VI-6.

*Argia* astekaria, 1934.

*Bertsolariya*, 1932-III-5.

*Egan*, 1972.

## Mozkor-gertaerak

---

Mozkorturik oera  
zaigu Patxi jauna,  
laister jaiki da galdez:  
«Nun dago komuna?»  
Leku arrotza eta  
gaba're illuna,  
komuntzat artu digu  
leio balkoiduna.

Kalian pasatzian  
Joxe mutur motza,  
mozkor ederrez etzan  
iñon ere lotsa;  
aditu zuanian  
euriaren otsa,  
guardasola zabalik  
asi zan aruntza.

Bereala asi zan  
leiotik kalera,  
euria *zar-zar-zar-zar*  
plaza-egalera,  
jentia preskura artzen  
zegoan aldera...  
Mariri zuzen-zuzen  
bere magalera.

Zuloz betia zeukan  
guardasolak tela,  
diyote arratoiak  
zulatu dutela;  
laister bustitzen zaio  
Joxeri txapela,  
baiña euri-ur ori  
oso da epela.

Galai bat, bere dama  
arturik besotik,  
bere ustez dotore  
zijuan zut-zutik,  
Patxiren balkoipean  
txit zuzen losatik,  
aprobetxatu ziran  
iturri gozotik.

*Urruzuno ñar P. M'en ipuiak*, lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
*Argia* astekaria.

## Andre mozkorrari

---

Zenbait trabaju badu  
gizonak munduan,  
bizi bada andre txar  
mozkorren onduan,  
sarri ez dakiela  
burua nun duan;  
gu ere bizi gera  
al degun moduan.

Andra Mari guriak  
orduak-orduak  
pentsamentua dauka  
jarria arduan;  
illuntasun triste bat  
sarritan barruan,  
mediku gabe dakit  
ark zer biar duan.

Baulian gordeak  
berrogei botella,  
onak dira kentzeko  
estomauko illa;  
gauza guzietako  
du buru abilla,  
batez ere korneta  
jotzen da mutilla.

Goizian jaiki eta  
lenbiziko lana:  
kornetarekiñ zoli  
jotzia diana;  
badijua esanaz  
gizonarengana:  
«Tristura da azkenik  
galduko nauana».

Kaliak bear ditu  
osoro zabalak,  
luzituko baditu  
andra Marik galak;  
arrastaka dabiltzki  
gonaren egalak,  
gorputza eziñ zaituz  
ai zer egiñalak!

Zapata eta bota  
guziak berdiñak,  
jaiotzerako ama  
beriak egiñak;  
gaiñerako erropak  
ez dira txit piñak,  
baiña bai zarpaill zarren  
antzeko zikiñak.

Urari daukakio  
gorroto bizia,  
zergatik andik sortzen  
dan hidropesia;  
ez progatzeko digu  
egiñ kurutzia,  
baiña ardoa zurrut  
al duan guzia.

Txukuna izan arren  
beti dabill zikiñ,  
kumunera biderik  
ez du bear jakiñ;  
larriya datorkiyon  
leku bertan egiñ,  
lixiba or darabil  
aldian berekiñ.

Uraren bildurrez dan  
bezela arkitzen,  
ez du arpegi eta  
eskurik garbitzen;  
lanikan asko badu  
ganaduak iltzen,  
ezin dueneraño  
ez bada orditzen.

Ez nioke kendu nai  
andreari pama,  
zergatik dan gaixoa  
sei umeren ama;  
ordu bat eziñ pasa  
edan gabe *mama*,  
laister aberasteko  
plan ona darama.

Saltzen ditu zapatak  
gona ta atorra,  
bereganatutzeko  
taberna jatura;  
ixildu eziñikan  
diruri kotorra,  
ez du mozkorrik baizik  
buruko tontorra.

Esperantzarik ez det  
oraindikan galdu,  
laister ontzen ez bada  
bearko det saldu;  
nunbait aserrerikan  
jasoko ez al du,  
erosi nai duana  
nigana azaldu.

*Urruzuno 'ar P. M'en ipuiak,*  
lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
*Bertsolariya.* 1932-VI-26.

## Andre mozkorrari

---

Nere andrea ona litzake  
ezpalitz sarri egarri,  
ark bear ainbat ardo iñola  
ezin nezake ekarri;  
markesen batek naiko balio  
errenta ontxo bat jarri,  
komediarik asko izango  
genduke etxean sarri.

Edandakoan su-bazterrean  
dariolarik elderra,  
egun artako lapikuak du  
izango koipe ederra;  
itzikan ezin garbi egiñaz  
ez euskera, ez erdera,  
baiño ordañez jenioa du  
izan alian kalderra.

Berari geien gustatzen zaion  
eraria da pattarra,  
baiña ardoa edaten ere  
ez derizkiot ain txarra;  
trago batian barruratzen du  
gutxienian pitxarra,  
kapotxinuak bezelakoa  
du arpegiko bizarra.

Zori onean lujorik eztu  
zenbaitek aña jantzian,  
alde ontatik ez du utziko  
diru askorik Prantzian;  
soñeko zar bat, bestek emana,  
lau zulorekin atzian,  
atorra gabe, buru motzikan  
eta beti oñutsian.

Zikiñ-zikiñez ezin geiago,  
nai luke ibilli garbi,  
zikiñak kostraz ederki dio  
egiten *brist-brist* txit argi;  
eztala bear kastatu dio  
lujoz apaintzen geiegi,  
obea dala aporru onaz  
otzari eman arpegi.

Sekulan ez du beretzat ere  
atorra bakar bat josi,  
aiñ gutxi berriz lapikorikan  
egundaño're egosi;  
merke salduko nuke andre au  
iñork nai balu erosi,  
bestela berriz gaurtikan nua  
Amerikara igesi.

*Urruzuno 'ar P. M'en ipuiak,*  
lenengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.



## Asta Patxikori

---

Asta Patxiko, gizon ernaia,  
daukan palta bakarra da ondo naia.  
Ai zer galaia!  
Ardoarekiñ gizon alaia;  
balitz tantaia,  
atxur batentzat zer kerten-gaia!

Bere ixtoria da oso luzia,  
atxu txiki batekiñ nai dan guzia,  
ai zer grazia!  
Etxe zuritzen ikasiya,  
berez asiya,  
letxada ez du txit garestiya.

Dantzari ona erri ta erbestetan,  
ala ikusi degu beti pestetan;  
eta gaztetan  
ibilli izan zan karlistetan,  
gero beltzetan,  
piñ jokatuaz bere ustetan.

Dantzatzen zebilela Debako plazan,  
«Asta Patxiko» zion lagunak esan,  
asarratu zan,  
neskatxa zuan zaplatu izan,  
ikusi zezan  
konpirmatzen zekilla dantzan.

Soldadutzan jakiñ du zer dan gosia,  
gorputzian sarna ta zorritz josia.

Zer nagusia!

Ganadu au ez da erosia,

bai egotzia,

ori bat da kitarra jotzia.

Berreun palo ditu artu batian,  
gero berriz Panplonan preso katian,

bere kaltian;

orra zenbat gradu gerratian:

bala tartian,

soldadu raso zazpi urtian.

Soldadu, mikelete, karabinero,  
enpleo asko baiño poko diñero,

aduanero;

probatua da milla jenero,

eta zer gero?

Opill saltzen dabill egunero.

Bere amets guzia oi da ardua,  
ori edan ezkeru badu garbua,

ez da lerdua,

zaitzen du ederki jatordua,

zer akordua,

lastairan uzteko *mokordua*.

Makala ez da beñere ori,  
baiño eskalletatik beiñ zan erori.

Ai orri, orri!

Lau lagunek arturik zedorri,

kolore gorri,

ospitalera ziñan etorri.

Lanerako ere oso da pizkorra,  
baldiñ ezpadu artzen jaian mozkorra.  
Aitzakikorra,  
astelenetan ago legorra,  
ai au agorra,  
esanta're aiñ buru gogorra.

Gozoro aritzen da bere lanian,  
gozoroago berriz jan-edanian;  
al duanian,  
botella aundia aldamenian;  
gutxienian,  
pitxar bat bear du egunian.

Legatza jatia du bere gastua,  
naiz besteren orpotik izan ostua.  
Ura apetitua!  
Arriz beterik uzten zestua,  
berak ustua;  
orra restituzio justua.

Etzan au munduratu urte gutxiko,  
mundu au ez du bereala utziko;  
da ikusiko,  
eun urtera da iritxiko;  
ondo biziko  
da beti-beti Asta Patxiko.

Antonio Arrillaga jaunaren paperetatik.

Eun orriko larrosa eder bat  
larrarte baten zeguan,  
ederragorik bakar-bakarrik  
arki ziteken zeruan.  
–Zergatik, larrosa ederra, leku  
latz ori autu zenduan?  
–Irautearren mardulik Jaunak  
ementxe jarri ninduan.

Atsekabeaz inguraturik  
bagauzka Jaunak lurrian,  
atsegiña ere izango degu  
gero denboraz urrian;  
atsekabeak zutzat arturik  
Jaunak nai duen neurrian,  
larros edertan biurtzen gera  
bere begien aurrian.

Margo eder ta usai gozoa  
zuga dituzun larrosa,  
beti izango zera ikusten  
zaituzten guzien poza;  
zori onean sortua zera  
alaitutzeko biotza,  
urte askoan bizitu zaite  
zutzaz dezagun guk goza.

Zuri begira nagoanian,  
esaten dizut egia:  
ezin izaten dala aspertu  
beñere nere begia,  
zeralako zu beste danen gain  
oso eder ta argia,  
zikiñen izpi txikienikan  
gaberik guztiz garbia.

Urrezko ontzi eder batean  
nai zinduzket nik ipiñi,  
eta zeruko nere Amari  
nere biotza eskeiñi;  
zori onean oso biziko  
giñake biok zu ta ni,  
glori andia pozez emanaz  
zeruen poza dan oni.

–Ontzi orretan baiño obeki  
nago askoz lar artian,  
ukitzerikan ez nuke naiko  
naiz da orritxo batian;  
emen naukazu guri ta mardul,  
beti osasun betian,  
bakoitza bere lekuan biok  
onela bizi gaitian.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

## Karteruaren Gabonak

---

Urte osoan pozik  
nabill atez ate,  
ibilliko ere bai  
bizi naizen arte,  
nai zaituztedalako  
zorionez bete;  
Jesus jaio da eta  
alegra zaitezte.

Neguko otzak eta  
udako beruak  
ematen dizkidate  
nere apuruak;  
baleude turro, kapoi,  
kopa ta puruak,  
kontserbatu litezke  
gure fueruak.

Berri txit onak beti  
dizkitzuet opa,  
txarrik baldin badator  
ezta nere kulpa;  
zuei dizuedan  
ondo naiak nauka  
jaio dan Jesus oni  
beti erreguka.

Ezertxo're eztiot  
iñori eskatzen,  
ematen didatena  
umill dakit artzen;  
turroi, kapoiak jan ta  
puruak fumatzen,  
bada ez det nai utzi  
fuerorik galtzen.

Ondo pasatu orain  
aurtengo Gabonak,  
ala nai izan beza  
gure Jesus onak;  
igarotzean gero  
lurreko egunak,  
zeruan artu bitza  
kartero ta danak.

Elgoibarko kartero  
Jose Luis Ansolari donkitua.  
*Argia* astekaria.

## Iru gizon galduak

---

Iru gizon dirala  
errian galduak,  
urak kulparik ez du  
baiña bai arduak;  
ez al dira izango  
zagitzat salduak,  
kontu politak dira  
emen azalduak.

Iru zagi zirala  
kontrabando sartu,  
zaitzalleak usaia  
laster zuten artu;  
baiña zagiak dira  
gizontan biurtu,  
Tripot, Zipot ta Pipot  
dira or agertu.

Kontrabando-zaitzalle  
onak daude aurten,  
zagi asko da oien  
mendian erortzen;  
ezpazaie're orain  
nai bezela irten,  
iru atxurrentzako  
ara iru kirten.

Jan-edanian tripa  
egin bete-bete,  
eta gero oera  
loz aspertu arte;  
gizonarentzat bada  
naikua suerte,  
ardorik iñun bada  
beti mozkor urte.

Zertako da jan-edan  
asko egitia?  
Sardiña zarrak bezin  
argal egotia?  
Bazeunka nere zipot  
aundi ta betia,  
kostako litzakizu  
zutiñik juatia.

Jan ta edan eginta  
beti argal bizi,  
eta besteak berriz  
zipot zarra azi;  
baiña soñurik jotzen  
ez dute ikasi,  
iruron artian naiz  
neroni nagusi.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

## Maiñasiri

---

Nere alaba Donostiatik  
etorri da txit apaiña,  
abarka zarrez juan bazan ere  
señorita bat egiña;  
belarritako zillarrezkoak,  
sedazko soñeko piña,  
ezagun da, bai, gure Maiñasi  
eztala buru ariña.

Soñeko ori egiteko du  
eroso ugari gaia,  
begira jartzen naizen guziyan  
iruditzen zait kanpaia;  
beetik zabal, goietik estu,  
geienbat ere gerriya,  
dirudiela ere konilla  
muturraz gora jarriya.

Modistak josi omen diote  
bere soñeko berria,  
patrikara bat bakarrik dauka  
ipurgañian jarria;  
sudurretako pañuelua  
an bertan ondo gordia,  
etzaio asko kostako usai  
gozo atsegingarria.

Sudurretako pañuelorik  
bakar bat digu ekarri,  
ezagutzen da eztabillela  
gauza danetan ugari;  
baiña lan asko egiaz dio  
egitiñ erazten berari,  
ipur zapi ta auts trapu zartzat  
besterik ez du agiri.

Tupi eta pertz, lapiko zar ta  
etxean diran ontziak,  
pañolo orrez guziak dauzka  
oso ondo igortziak;  
oriatzeko artuagatik  
sarri atzeko aiziak,  
ala ere dauzka kolore eta  
usai-jenero guziak.

Bere suerte onaz pozikan  
dago Maiñasi gaxoa,  
zeren pañolo orretan daukan  
perfumeria osoa;  
danari dio ukitze utsaz  
itxasten usai gozoa,  
merkatuko da jenero au ta  
izango du norik jaso.

Lakari t'erdi gaztañarekin  
egiña dago guzia,  
oiek jan eta azaltzen bada  
atzetik egoaizia;  
lenago Paris gauza oetan  
bazan ere nagusia,  
oraiñ egingo zaio berari  
konpetentzia bizia.

Esposizio Pariskuan gaur  
pañolo ori an dago,  
kolorerikan pieza baten  
eziñ arkitu geiago;  
usaika berriz an darabilte  
batek baiño bik naiago,  
lendabiziko sariya berak  
izango duela nago.

Pomadak saltzen ziran lenago  
urre gorriaren truke,  
baño biar zan irabazteko  
artu makiña bat neke;  
oraiñ emendik aurrera dira  
saldu bearke txit merke,  
gure Maiñasik bi zentimoan  
arrua emango luke.

Orra jenero merkia eta  
esan al baño obia,  
orain artian mundu guzia  
berdiñik ere gabia;  
au egiteko badegu ere  
gerokiñ beti labia,  
pribilejioz ogei urtez da  
Maiñasi bere jabia.

Patrikara bat bakarrik duten  
emakumiak atzian,  
kontuz ibilli bearke dute  
eskua ara sartzian;  
urraturen bat arkitzen bada  
patrikararen ertzian,  
bide okerra loitu ez dediñ  
baztarren bat an jotzian.

Emakumeak, badakizute  
gaurko sistema berria,  
bera zarra da baña Maiñasik  
dauka berriro jarria;  
lenago izan ezpadezute  
sistema onen berria,  
orra nik eman eta or konpon,  
legortu zait eztarria.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.



## Euskal pestetan

---

Euskaldun jaio eta  
euskaldun aziak,  
euskaldunen legeak  
gordeaz biziak;  
gugandik esker onak  
ondo mereziak,  
erbestetik etorri  
zeraten guziak.

Euren alkarganako  
degun ondo naiak,  
euskaldun danak gaitu  
egiten anaiak;  
argatik euskal festak  
dira ain alaiak,  
nola elizan santu  
aundiyyenen jaiak.

Erbestekoak baña  
ez ala arrotzak,  
elkarturik dauzkagu  
guzien biotzak;  
bakarrik aldenduko  
gaitu eriotzak,  
arteraño biziak  
gera beti pozak.

*Bizi bitez euskeraz  
mintzatzen diranak.  
bizi bitez euskera  
maite duten danak.*

*Argia astekaria.*

## Garagartzako erlojeruari (Mendaron)

---

Garagartzan daukagu  
danian lujua,  
lenbizi alabatu  
nai det erlojua;  
egunaz geldi eta  
gabaz lo gajua,  
erri aldian dauka  
kleitu bajua.

Batzuetan mutu ta  
bestietan kojo,  
zorrak pagatzen daki  
ala ere majo;  
asi aldian eun  
eta geiago jo,  
bere makinaria  
ez dago ain flojo.

Egoaizerik bada  
azaltzen urrera,  
egundoko lastarren  
eltzen da torrera;  
nai dituen orduak  
jo eta aurrera,  
alakoren batian  
datorgu lurrera.

Geldituko ez bada  
sarritan makiña,  
nai ta nai ez biar du  
oliyua fiña,  
enkarguz Patxi Motzen  
fabrikan egiña;  
uste det etzaiola  
faltako ziriña.

Berri bat erosteko  
asirik tratuan,  
lenik nai degu zarra  
saldu merkatuan;  
tasazioa ez du  
prezio altuan:  
zazpi lapiko zar da  
amairu kuartuan.

Merkatari batek du  
eskeñi egiña:  
zartagin zar bat eta  
zulodun tupiña;  
jeringa mutur motz bat  
gañera propiña,  
orra arrio on bat  
plantatzeko diña.

Eguzkiakin inork  
ezin du zuzendu,  
illargiak alkar  
poliki artzen du;  
jeniyu mudakorra  
ezin zaio kendu,  
ojala itxasora  
botako bagendu.

Edozein aldetatik  
dauka errenkura,  
oliyuaz gañera  
bear du untura;  
kanpotik edertzeko  
baitare pintura,  
oriñal zar batian,  
Patxiren kontura.

Serenak jana dago,  
gañera ugarra,  
errubedak egiten  
dute karra-karra;  
ezin esan liteken  
moduko zakarra,  
matrakatzat parerik  
ez duen bakarra.

Berri bat ezin balitz  
iñola ekarri,  
orren lekuan bear  
da komun bat jarri;  
serbiziyua berdin  
egingo du sarri,  
deskantsua artzeko  
dana kaka larri.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

## Ur zalea

---

Ur zaleok beti  
ibilli kontuan,  
zeren arduak jartzen  
dituan kantuan;  
barruan daukatena  
laister da kanpuan,  
ori egiten dute  
orditurikuan.

Arritzekoak dira  
zure zenbait aldi,  
mirari asko dezu  
egiten aspaldi;  
zubi zarraren zura  
biurturik zaldi,  
nola zoaz, zaldiya  
dagoala geldi?

Mirariak dauzkatzu  
pausuan-pausuan,  
ala esaten dute  
etxe ta auzuan;  
zure gorputzak nunbait  
otzikan etzuan,  
oieko ordeztzin  
zanean potzuan.

Mozkorrarekin dezu  
iduri balea,  
arrolaka betetzen  
dezula kalea;  
ni beti izango naiz  
egi esalea,  
orain jakin ezazu  
nor dan ur zalea.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

–Maite nuan nik nere  
emaztegai Ana,  
aiñ maite nun, nukean  
pozik jango dana;  
ezkondu eta gero  
nik daukadan pena:  
ezkondu aurretikan  
bizirik ez jana!

–Jan izan baninduzun  
orduan bizirik,  
enintzan egongo gaur  
ezurak autsirik;  
baldin nizaz bazaude  
aspertzen asirik,  
kokoteraño nago  
ni zuzaz aserik.

Ezkondu aurretikan  
otsik asko bazan,  
gero ondo izango  
ziran esperantzan;  
eta orra orain or  
zer larri dabiltzan,  
ikasi eziñikan  
ondo makill-dantzan

*Urruzuno tar P. M'en ipuiak,  
Ienengo idaztia, Iruña'n, 1930.  
Argia astekaria, 1922-I-8.*

Urte askoko lore eder bat  
dirudizuna gaztia,  
txoro egiñik dauka berari  
begira mundu guztia;  
maiatzeko intz gozo-gozotan  
goizero dana bustia,  
bere inguru guzi-guzian  
dariyo erruz ezta.

Zeruak ere daude pozikan  
beti berari begira,  
eta alare bera ikusten  
iñoiz aspertzen eztera;  
aingeru berak au ikustera  
baldin jetxiko balira,  
eraman naiko lukete egan  
zeruen erdi-erdira.

Urte on askoz Jaunak zaitzala  
gorde, loretxo polita,  
zeruko jardin eder aietan  
sortutako margarita;  
zure esposo Jesus onaren  
ondoan biok jarrita,  
zeruan alkar ikusitzeko  
pozik bizi da zure aita.

Antonio Arrillaga  
jaunaren paperetatik.

## Lasturri

---

Kontsejuxto bat eman nai dizut  
eskaturikan barrena,  
kontuz begira mintzo zaitzula  
adiskiderik onena:  
mundu guzian zabaldurikan  
dago soltero zaudena,  
len-bait-len, arren, kendu ezazu  
mutill zarraren izena.

Mundu onetan txiki ta andi,  
naiz zar ta naiz gaztiak,  
begien itxi-iriki baten  
bestera goaz guztiak;  
geien-geiena balio digu  
zerua irabaztiak,  
meritua du ejenplo onaz  
besteri erakustiak.

Ogei ta amalau urte ezkeru  
etzaude galai gaztea,  
onena dezu berealatik  
ondo pentsatzen astea:  
edo konbentu batian sartu  
edo artu emaztea;  
mutill zarratik ateratzeko  
egin bat edo bestea.

Jaungoikuari eskatu gogoz  
ondo zaitzala argitu,  
praille sartzeko deitzen badizu  
bear diozu obeitu;  
zu bezelako predikatzalle  
onak berak nai oi ditu,  
baña bestela egi andi bat  
kontuz zadazu aditu.

Artzazu andre birtutetsua  
nai izan umill pobria,  
zenbait aberats arrotxo baño  
izango zaitzu obia;  
Jaunak emango dizute kontuz  
eguneroko ogia,  
dalako bera ezkondu onen  
Aita, Jaun eta Jabia.

Orra nik esan nere iritziz  
zuri konbeni zaizuna,  
Jaunak deizula eman luzaro  
pakea ta osasuna;  
eta zeruan beti-betiko  
ango zoriontasuna,  
auxe da zure adiskiderik  
onenak opa dizuna.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

## Lasturrek zer diño?

---

Gizaseme bat gazte izana,  
oraĩndik zartu gabia,  
ondasun asko izan ez arren  
kitarra baten jabia;  
ona naiz baiña umoria det  
nerau baño're obia,  
triste daudenak kontsolatzera  
mundura naiz etorria.

Jaungoikuari asko zor diot,  
esan biar det egia,  
ematen dizkit osasuna ta  
eguneroko ogia;  
nere bizitzan ez naiz kondeen  
ez markesen enbidia,  
izan ezkeru kitarra jo ta  
kantatutzeko bidia.

Aste guztian lanian gogor,  
beti jairako pozian,  
loteriarik ez da partzeko  
poza nere biotzian;  
txoria baiña alegriago  
arkitzen naiz jai-goizian,  
inguru danak ere poztutzen  
ditut kitarra jotzian.

Jan gogo onaz eta lo berriz  
nai baiño ere obeki,  
ditxa geiago ezin lezake  
emen gizonak iduki;  
erostekoak balira diruz  
pobreak giñake gaizki,  
baiña nori zer eman Jainkoak  
guk baiño obeki daki.

Pobre izanik lana egiten  
ikasi nuan gazterik,  
baiña Jainkoak ez du nai izan  
nunbait ni aberasterik;  
aziendarik nererik ez det  
kitarra zar bat besterik,  
il ta gero're ez det pentsatzen  
nere kitarra uzterik.

Jaia pasa ta astelenian  
berriz eraso lanari,  
onela diot gusto berria  
beti arkitzen janari;  
egunak ondo juango zaizkio  
onela bizi danari,  
loteri au da opa diona  
Lasturrek mundu danari.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.



## Gibel-andiren kontuak

---

Ezagutzen dezute Gibel-andi?... Ara gizon motz, zakar bat, kokotetik illia zintzilik, eta okotzetik bizarra, atze-aurreetan berdintsu dituela, buru-utsian, paparra zabalik, galtza motzak, alondeiko atia ainbateko mantalarekiñ, eta oñ-utsik geienian. Udan ikatz egiten irabazten dituen diruak neguan jan (eta edan), eta bapo bizi dana bere emazte Agera eta alaba Prantziska amalau urtekoarekin. Badituzte etxian txakur bat eta katua.

Gaixotu zan beñ batian Agera, zeñari medikuak agindu zion aragi-salda.

–Agerarentzat salda –esan zuen Gibel-andik– eta neretzat aragia.

Badijoa baserritik kalera aragi eske Gibel-andi guria goizeko bostetan, eta illuntzian ere ez da oraindik agiri. Nun da gizon ori? An dabill trabena batian dantzan, bazter guziak apurtu bearrrik. Ara nola kantatzen zion Kaziñta, trabenariaren alabak:

Andria oian eta  
Gibel-andi dantzan,  
paloak ematia  
merezi du plazan;  
Agera sendatzeko  
larri izan bazan,  
ez dago gaizki gizon  
onen esperantzan. Uxta!

–A biajon diñala, Kaziñta! I bezelako mutillik etzion Prantzian ta proentzian egia gizonari esateko –zìyon Gibel-andik–. Uju... ju...

Eta aragia non da? An darabill gerrikotik zintzilik.

Bigaramon goizian esnatu zan non zegoen etzekiela, ez eta ere zer garai zan, eta oraindik dudan bere buruaz Gibel-andi ote zan. Konturatu zan arkitzen zala trabenako atian; esan zuan:

–Ni nauk Gibel-andi, bada aragia emen zìok, eta Agera gai-xoari salda ona gaur gabian norbaitek emango zìok.

Uste zuan gizajoak illunabarra zala, eta zan egun-sentiya; da esatia, ostiral illuntzia zalakoan, zan larunbat goiza.

Etixeruntz zijoan bezela, zijoan ere eguna argituaz, eta kon-turatu zan etzala ostiral illuntzia, baizik larunbat goiza. Ai aren larriya! «Zer esango det etxian? Nola estali egiñ dedan uts-egi-tea?». Galde oek bere buruari egiñaz zijoan Gibel-andi aragia gerrikotik zintzilik zuela, eta onetan eltzen da etxeko atera. Txakurrak, pozkerian dabilkiola, eramaten dio aragia, Gibel-andik pentsatu ere gabe alako gauzarik. Badijoa emazteagana:

–Zer modu, Agera nere biotzekoa?

–Emen gaude dietan.

–Badakaizu, Agera maitia: Abenduan gaude, penitentzia egin bear degu, eta atzo nola zan ostirala ez nuen etxera ekarri nai izan aragirik.

–Ondo da, Jualimo<sup>1</sup>; nik egiñ nuen atzo penitentzia, eta uste det zuk ere egingo zendueta, ni bezela egon baziña.

–Ixo, ixo, salda egitera noa...

Baña aragirik etzan ageri. Ai ura larritasuna! «Nere pama nora dijoa?»... Egiñ zuen baratzuri salda koipe puska batekiñ, baña Agerak laster ezagutu zuen etzala aragi salda eta galdetu zion:

–Jualimo; gaur ere ostirala al degu? Salda onek ala diruri, bada aragirik ikusi ere ez du.

–Emakumea, artu ezazu pazientzia puska bat. Etxera eltzian, zugana etortzeko sartu det aragia kutxan; eta gero, salda egiteko billa juan naizanian, katua bakarrik arkitu det kutxan, eta katu orrek jana da aragia, bi libra oso-osoak.

Gibel-andik txakurra guziz artua edo gogokoa zuen, baño katua eziñ begiz ikusi zuen.

Agerak bere alaba Prantziskari deitu, pisuak eta katua ekar erazi eta katua pisatu zuen, Gibel-andi aldendu zanian. Ogei ta amar ontza pisatu zituan. Onetan sartzan da Gibel-andi bere emazte gaxoaren gelan, eta katuak, ura ikustian, «miau, miau» egiñaz iges egiñ zuen.

---

<sup>1</sup> Jerónimo. (*Euskal-Erria* aldizkariaren oarra).

–Zer darabiltzute –galdetu zien Gibel-andik bere emazte eta alabari.

–Katuia pisatzen gabiltza; eta uste degu alperrikakoa dala katu oni jaten ematia; bada bi libra aragi jan ondoan, ez du pisatu ogei ta amar ontza baño geiago.

–Katuak eta emakumneak (anima apartatuta) berdintsu zerate: zitalak eta tematsuak; baño beiñgoan amaituko det kontu au, egia argiro esanaz. Abenduan gaude, gaur larunbat eta barau eguna da, aurten buldarik artu eztegu, eta nai dezute aragi-salda artu? Ez, ez nere etxian orrelakorik, arrayiak ezpaitu.

–Ez aserratu, gizona –esan zuen Agerak–. Artu diozu menturaz buldarik txakurrari?

–Oraindik geiago adituko degu: txakurrari bulda?

–Gizona: nik somatzen det oe-pian txakurra, kirri eta karra aragi ezurren bat jaten.

Badijoaz oepera begiratzera eta gure txakurra an dago bi aragi zati eta ezur bat berekiñ dituela. Au ikustian, an dijoa Gibel-andi, aotik zua dariola, esanaz emakumiak, berenaz ateratziagatik, mundua azpikoaz gora jarriko luketela eta oraindik deabrukeri andiagoak adituko dirala.

Eta dio:

–Kontu au geiago iñork aipatzen ere badu, bere denporako oroipena izango du, Jualimo Gibel-andi bizi bada.

Igaro ziran zazpi aste, eta pozik zegoan Gibel-andi iñork etzekizkielakoan bere kontuak.

Badator Santa Agera-bezpera-gaba. Agerak ekarri zuen pitxer bat ardo apaitarako, baita ere libra bat solomo; Gibel-andi an dago upela baño andigoko mozkorrarekin su-bazterrean aparria zaitzen, ama-alabak txerriei jaten ematen dauden bitartian. Onetan badatoz Santa Agera-eskaliak, Gibel-andi badijoa leiora aiei aditzera, eta eskaliak asten dira kantari:

Kantatzen asi gaitian  
Gibel-aundiren atian,  
mirari andiyak egiña degu  
gizon au egun batian.

Danian ardo ugari  
egiten asko mirari;  
bentajarik ez dio egingo  
munduan iñork berari.

Jenioz zerbait arrua,  
gutziz beltza du larrua,  
zaagia bezela beztua  
daukala pikez barrua.

Bi libra aragi ditu  
bere katuak garbitu,  
alare ogei ta amar ontza  
pisaturik da gelditu.

Kristau ona izan ala  
gordetzen du ostirala:  
txakurrari bula artu, berak  
gabe gelditzen dirala.

Gibel-aundiren katua,  
txakur madarikatua,  
biyon artian agertu dute  
gizon onen pekatua.

Katuak *miau, miau,*  
txakurrak berriz, *au, au, au,*  
bere paltak eztali eziñez  
larritxo dabill gizon au.

Suturik Gibel-andi gauza oiek aditzian, artzen du pitxer ardoa ura zalakoan, eta botatzen die burutik bera kantariei esanaz:

–Zuek bezalako giza-txarrak ori merezi ditek.

Txakurrak solomoa jan zuen eta Gibel-andi oeratu zan, emakumeak, giza-txarrak, katuak eta txakurrak berdintsu zirala esanaz.

Bigaramon goizian jaiki zan eta nola bezperako mozkorrak alde egin zion, gogoratzian zenbat kalte eta zenbat lotsari erakarri ziozkan bere denboran ardoak, egin zion promesa Santa Agerrari urte bete osoan ez ardorik edateko. Kunplituko du? Ez dakit, bada oraindik sei illabete dira au gertatu zala, eta denboraz esango dizue

Ur-zale batek.

*Euskal-Erria*, 1886.  
*Baserritarra* 1908-XII-19.

## Iñudiari

---

Nere Mari Prantxiska,  
iru urte dira  
ipiñi ninduzula  
aora begira;  
zure gezur guztiak  
granadak balira,  
beste ainbeste eziñ  
artillerok tira.

Iñude juan artian  
izan ziñan larri,  
ni tontua izan da  
baita zuk igarri.  
«Ondo izango gera»  
esan ziñan sarri,  
bizi guziko petxa  
dirazu ezarri.

Bizitu naiz, eta ez  
denbora gutxian,  
umeekiñ lan asko  
egiñez etxian;  
andria pasiatzen  
ederki kotxian,  
pena aundirik gabe  
bere biotzian.

Utzirik gizona ta  
aurtxo aingeruak,  
nai dizute señora  
ta kaballeruak.  
Ai gizon tonto eta  
emazte eruak!  
Atsekaberik bada  
nork ditu erruak?

Madrilletik etxera  
makiña bat pitxi  
ekarri dezu, baiña  
gauza onik gutxi;  
kofria zazpi giltzez  
dezulako itxi,  
lapur-beldur zeranik  
ez diot eretxi.

Beti esaten ziñan,  
andretxo neria,  
iñude ez juaia  
zala tonteria;  
ekartzeko zenduan  
onuntz loteria,  
baiño ageri dana  
da arloteria.

Bederatziak jota  
oetikan jaiki,  
orraztu ta apaintzen  
txit poliki daki;  
janari piñen zale  
badator egoki,  
txurrun-panplina berriz  
oraindik obeki.

Ixillik saltzen dizkit  
arto ta gariak,  
kostatzen zaizkit orren  
gose-egarriak;  
lana du ezkonduak  
duten uztarriak,  
amaika irinsten du  
bere eztarriak.

Baztarturik an dauzka  
goru ta ardatza,  
gobernatzeko diot  
esaten baratza;  
atxurraren kirtena  
omen dago latza,  
etxea goratzeko  
ai zer esperantza!

Jate orduan beti da  
zintzo eta zurra,  
beretzat mamia ta  
neretzat ezurra;  
ixildu ere gabe  
dario gezurra,  
egunero lituke  
merezi bi zurra.

Ez diot ukatuko  
bere merezia,  
apaintzeko kontuan  
badauka grazia;  
atzetik arrastaka  
soñeko luzia,  
berarekiñ garbitzen  
du kale guzia.

Artorik eziñ jan ta  
bear du ogia,  
ori neretzat ere  
litzake obia.  
«Ago ixillik, tonto  
lotsarik gabia!»  
esan eta ematen dit  
arto motz lodia.

Gauza guziak dakar  
etxera zorretan,  
oso saiatua da  
lanbide orretan;  
pagatuko badira  
ni beti lorretan,  
etzaitezte piatu  
andre ederretan.

Ez nituzke egiñ nai  
alperrik kantuak,  
gizonak, etzaitezte  
izan aiñ tontuak;  
neri begiratu ta  
atera kontuak,  
bada arpegi beltza  
du eskarmentuak.

Baldin ezkondu bear  
banintz ni berriro,  
bearko luke egon  
denbora txit giro;  
nere iritzia det  
esango garbiro:  
onelakoak ditu  
merezi lau tiro.

Iñude juan ezkerro  
kanpora andriak,  
espero bitez gero  
loteri aundiak.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.



## Kanta-paper saltzallea

---

Pobriak lanik asko  
du bizi izaten,  
nere bizimodua  
asten naiz esaten,  
errukirik nitzaz  
ikusi dezaten,  
nola gerra gogorra  
egiten didaten.

Nere bizitzan beti  
kanta-paper saltzen,  
baiña etzait errenta  
andirik ugaltzen;  
ala ere batzuek  
dabiltza ni galtzen,  
nere etsaiak asi  
dirade azaltzen.

Animaren etsaiak  
iru badirade,  
nereak lautaraiño  
eldutzen dirade;  
mingaiñian badute  
milla abildade,  
baiña ni beziñ pobre  
oraindikan daude.

Bi mutil gazte ditut  
etsai gogorrenak,  
gaiztoak dira baiña  
gaiñera errenak;  
atso ta agurea  
orien urrenak,  
deabrukerietan  
berak okerrenak.

Bi gazte erren oien  
betiko jolasa:  
zeñek obeki artu  
pausuan konpasa;  
asmoetan dabiltza  
artutzeko plaza,  
biyak egin dezaten  
iñauteri-konpartsa.

Bat erren ta bestia  
berriz errenago,  
bi oiei begira  
beti parrez nago;  
Madrildik Parisera  
nor eldu lenago  
apostua egin da  
jokatzeko dago.

Aguria berriz da  
txit anka zabala,  
tunelaren sarrera  
badirudi dala;  
pasatuko litzake  
trena bereala,  
beldur andirik gabe  
jotzeko egala.

Bera bakarrikan da  
zubitzat naikua,  
bada egiña dauka  
ankakin arkuak;  
pasa liteke bere  
azpitik barkua,  
naiz ta izan dedilla  
ontzi gerrakua.

Iru oiek daukate  
tratua egiña  
atso bat izateko  
beren erregiña,  
zarra, itxusia ta  
illia urdiña,  
gutxien-gutxienaz  
erdia sorgiña.

Atsoa, agurea  
ta bi mutil gazte,  
kanta-paperak saltzen  
dabiltz jai ta aste;  
ondatuko nautela  
nonbait dute uste,  
baiña oraindik banaiz  
lau oiek ainbeste.

Ondatuko nautela  
lau oiek diote,  
baiña ezingo dute  
poltsarikan bete;  
ni pobre nago baiña  
lau oiek arlote,  
barkilloz mantentzia  
naikoa dute.

Orra konturik asko,  
baita ere merke,  
atsoa erregiñ ta  
agurea duke;  
gazteak berriz markes  
egingo nituke,  
gauza oiek baleude  
gezurraren truke.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

Orain kantatutzera  
natorren berriak  
dira, nere kristauak,  
ikaragarriak;  
gaiztakeri aundiak,  
pekatu larriak,  
jarriko lituzkenak  
negarrez arriak.

Biziyuak oi ditu  
biyotzak gogortu,  
begiak itxutu ta  
belarriak gortu;  
piedadia berriz  
animan agortu,  
azkenikan gizona  
katamotz biyurtu.

Bertso auetan bada  
esango dedana  
sinistek bakarrik  
ere badu lana;  
bildurturik Araban  
probintzia dana,  
kontu au atsekabe  
asko da emana.

Emakumeak illik  
lekuan-lekuan,  
goitik bera idiki,  
biotza kanpuan;  
itotako señaile  
ziurrak lepuan,  
beldurtu bear oiek  
arkitutakuan.

Emakume oietan  
geienak gaztiak,  
zerbait edadetuak  
dirade bestiak.  
O, oien guraso ta  
etxeko tristiak!  
Biotza zatitzen du  
oiek ikustiak.

Gure biotza berez  
biguna izanik,  
nork pentsa zezakean  
arkituko zanik  
ainbeste gaiztakeri  
egingo zuanik?  
A!, orrelakoentzat  
ez dago izenik.

Jakiña zan otsoak  
bildotsak bezela,  
emakume-iltzaille  
au urrian zala;  
Jaungoikoak lenbailen  
agertu dezala,  
ai zein bildurgarria  
dan orren itzala!

Amabiraiño dira  
emakume illak,  
asi dira egiten  
sospetxa ixillak;  
Juan Diaz Garayo-ren  
pikardia millak  
jakin ditu Pinedo  
gure aguazillak.

Iñork artu etzezan  
sospetxatan bera,  
bazekian egiten  
ederki papera;  
ildakuai gantzak  
oi zizten atera,  
naiz da gorputza bota  
bazterren batera.

Zori onian dira  
orrezaz oartu,  
eta presondegian  
bereal sartu;  
bere okerrak ditu  
denboraz aitortu,  
kastigu merezia  
bearko du artu.

Oraindik ezagutzen  
jentiak etzuten,  
baiña beste gauzarik  
etzaie entzuten;  
*Saka-mantekas* zaio  
izena ematen,  
orren bildur guziok  
gerade izaten.

Ainbeste atsekabe  
zuen ematen,  
Bitoriyan garrotez  
orra nun il duten;  
Maiatzaren amaikan  
gertatu da aurten,  
milla zortzireun da  
larogei ta baten.

O zein aundiak diran  
gure miseriak!  
O nolakoak gizon  
onen injuriak!  
Ikaratu gaitean,  
bai, pekatariak,  
egin erazo dizka  
danak lujuriak.

Gurasuak nai badu  
emen ondo bizi,  
Jaunaren bildurrian  
familia azi;  
bide gaiztoetatik  
aldendu erazi,  
birtuteak bitzate  
gazterik ikasi.

Agur, nere jentiak,  
kontu, gurasoak!  
Zaitu zuen karguko  
guziak pausoak;  
aparta oiengandik  
etsaien lazoak,  
izan gaitezen beti  
beti ditzosoak.

Antonio Arrillaga jaunaren  
paperetatik.

*El Diario de San Sebastián* egunkariak onela dio 1881-ko maiatzaren 12-an:

«*El criminal conocido por "Sacamantecas" ha sido ayer ajusticiado en Vitoria*».

Ori besterik ez du esaten. Bearbada, iltzaille ori nor zan eta zer egiña zan irakurleak jakiñaren gaiñean leendik zeudelakoan, egunkarietan-eta irakurrita. Urruzuno ere iturri beretik edana izango zan.

## Mendaron, egi aundi bat

---

Kanpoko izparringi edo periodiku batian irakurri degu, Deun Agustin egunian emengo mojetako elizan egin zan sermoia etzuala iñork ere ulertu, moja batek baizik. Gezur andi oni, egi aundi bat.

Jakintsua bada're  
eztaki guztia,  
oraindik palta zaio  
zerbait ikastia;  
ikasi beza bada  
dala modestia  
gobiernoan bere  
etxetik astia  
eta albokoai  
pakian uztia.

*Argia* astekaria, 1921-X-30.

## Gizontxo baten pena

---

Nere emazteak dit  
arrapatu poltsa,  
kanpotikan apaiña,  
barrutikan utsa;  
orain bere aurrian  
izaten naiz lotsa,  
esaten didalako:  
«I aiz astaputza».

*Argia*, 1921-X-30.

## Maiatzeko loreak aizpatxo bi Mariaren aurrean

---

–Ai zein ederrak diran  
eta zein alaiak  
Maiatzeko egunak,  
batez ere jaiak!

–Añ ederrak dirala  
iduritzen zaitzu?  
Eta argatik zaude  
orain añ alaitsu?

–Ill guzien artian  
iduritutzen zat  
ederrena Maiatza,  
beñepein neretzat.

–Esango bazenekit  
zergatik ala dan,  
entzuteko a zer poz  
andia daukadan!

–Pozik esango dizut  
eta kontuz entzun,  
nik dakidan guzia  
zuk jakin dezazun.

–Alik lasterren asi  
zakidaz esaten,  
nik bezela guziak  
aditu dezaten.

–Goizean goiz datozkit  
txoriak nigana,  
eta gozoro jotzen  
didate diana.

–Baita diana joaz  
loa galerazi,  
eta Maiatz guzian  
lorik gabe bizi?

–Galduko nituzke nik  
pozik gau osuak,  
aditutziagatik  
soñu ain gozuak.

–Añ goiz jaki ta gero  
al zera ibiltzen  
zelaietan diran  
lore eder biltzen?

–Baita pozikan ditut  
bildutzen loreak,  
apaintzeko elizan  
gure aldareak.

–Begira nola diran  
loreak agertzen,  
eta kanpo guziak  
osoro edertzen.



–Guziak nai nituzke  
aldare onetan  
ipiñi, maite dedan  
Amaren oñetan.

–Asko maiteko zaitu  
zu Ama Mariak,  
apaintzen badizkatzu  
bere aldariak.

–Beragatik emango  
nuke nik bizia,  
gorputz, anima eta  
daukadan guzia.

–Ainbesteraño maite  
badezu munduan,  
laster zera zeruan  
beraren onduan.

–Orixe bakarrik da  
nere egarria:  
emen bera maitatu.  
zeruan gloria.

–Zer egin nezakian  
nai nuke nik jakin  
Maria maitatzeko  
biotz guziakin.

–Esan: «Nai zaitut izan  
beti maite-maite,  
arren zu nere Ama  
beti izan zaite».

–Eta juango nintzake  
beti lore billa,  
baita ekarri ere  
milla eta milla.

–Baita kantatu ere  
bere alabantzak,  
ala artuko zaitu  
bere alabatzat.

–Ekarriko ditut ba  
aliek ederrenak,  
eta geienbat usai  
gozua dutenak.

–Lore asko bilduta  
pozikan ekarri,  
eta Amari bere  
aldarian jarri.

Ala egin nai nuke  
artzeko saria:  
emen maitasuna ta  
zeruan gloria.

*Biak Mariari:* Arren adi zaiguzu,  
gure Ama ona,  
egin degiguzula  
biyon zoriona.

P. M. Urruzuno  
*Jesusen Biotzaren Deia*, 1920-V.

## Gabon-jaiak

---

Eguerriak dira  
izaten alaiak,  
baldin badaude ondo  
orniturik maiak.  
Ugari daudenean  
kapoi ta turroiak,  
tripak dantzatzen ditu  
dama ta galaiak,  
pozak aita ta ama,  
arrebak, anaiak.  
Ala dizute opa  
nere ondo naiak,  
ondo igarotzeko  
beti Gabon-jaiak.

**Urruzunok**

*Argia* astekaria, 1922-I-1.

Gabian mozkorra ta  
goizian lo-gura,  
berriz ere bearko  
degu edan ura.  
Gauz onek ematen dit  
naikua ardura,  
urarekin oiturik  
datorkit burura:  
nola biurtu gero  
uretik ardora?  
Ai nor eldu liteken  
alako ordura!  
Noiz izango ote da  
egun eder ura!

*Argia*, 1922-III-5.

## Mariari bere sortze garbian

---

Sortzetik zera guzi-guzia  
ederra eta garbia,  
jatorriz degun pekatuaren  
kutsurik ere gabia;  
zeru goietan apaingarrizat  
Jaungoiko berak jarria,  
lurbira dana alaitzen dezun  
egun sentiko argia.  
Zuri begira ezta aspertzen  
egundaño're begia,  
zeralako zu bizitutzeko<sup>1</sup>  
lurrian ederregia;  
zure diñako bizi-lekua,  
esango badet egia,  
iruditzen zait bakarrik dala  
zeruko loretegia.

Pedro Migel Urruzuno ta Salegi  
*Argia*, 1922-XII-3.

---

<sup>1</sup> *Argia*-n *bizitzeko* irakurtzen da lerro ontan. Neurria osatzearren, *bizitutzeko* idatzi degu.

## Iru Erregeak Jesusekiñ

---

–Milla zorion, Jesus maitea,  
Zeruko Errege zera;  
lurreko iru Errege gatoz  
emen Zu adoratzera.

–Errege nere biotzekoak,  
atozte arren urrago,  
zuen belarri oietara gaur  
itztxo bi esan naiz nago.

Nola zatozte nigana orain  
utzirik zuen erriak?  
Nork dizkitzute eman ain laster  
zuei nere berriak?

–Izar eder bat da dizkiguna  
zure berriak ekarri,  
bide guzian etorri gera  
bera degula gidari.

–Ez al dezute bide guzian  
izan ezeren okerrik?  
–Jerusalenen izar eder au  
ezkutatzea bakarrik.

–Nola dezute gero bidea  
zuzen onera arkitu?  
–Berriro zaigu gure gidari  
izar ederra argitu.

–Jerusalenen izarrik gabe  
nola zerate konpondu?  
–Ango Errege Erodesekin  
itzketan gera egondu.

–Zuen aotik aditu nai det  
nola dagoan Erodes.  
–Adoratzeko Zu, jakiñ nai du  
jaioa zeran edo ez.

–Jakin beza ba: eztet nik aren  
adorazio bearrik;  
naiago det nik zuek ematen  
didazutena bakarrik.

–Dizkitzugu eskeintzen Zuri  
intzentsu, urre ta mirra:  
Jaungoiko, gizon, Erregeari  
tokatzen zaizkanak dira.

–Oien ordañez nai zaituztet nik  
graziaz osoro bete;  
gaurtik aurrera zori onean  
beti biziko zerate.

–Berri onakin gure erriak  
ere nai ditugu poztu;  
bagoaz bada ta agur, Jesus,  
etzaite guzaz Zu aztu

–Ez naiz aztuko eta izango  
zaituztet beti goguan,  
sariatuaz emen graziaz  
eta gloriuz zeruan.

**Urruzunok**  
*Argia*, 1923-I-14.

## Zer da beata?

---

Galdetzen dirate zer gauza dan beata; jakin naia, etzaie arrazoia falta; Jaunak mundura bota duan plaga bat da, arren Berak gaitzala argandik aparta.

Beata ez da txarra, ez-da ere ona; badakizu: leundurik dabillen txanpona; iñork artu nai ez-da ara eta ona, orra estimazio munduan zaiona.

Beata ariko da pijo errezuán, suspirio egiñaz pausuan-pausuan; baña jakingo du zer berri dan auzuan, eta leku guzian beti arazuan.

Lapikuari palta zaionian gatza, gañera aragiya, olio ta gantza, orduan bai daukala beataren antza: sustantziarik ez du baña esperantza.

Begietatik erraz malkua dariyo, baña malko oieri ez naitzaie piyo; arrazoiak gaztiak ez duala diyo beatarik onenak ardit bat baliyo.

Goizero konfesatzen or dabiltz elizan, berenak gorde eta besterenak esan; korreetza oberik ez diteke izan, orra gure beatak zer moduz dabiltzan.

Errezo asko baña  
beti errietan,  
lapikoa egosi  
gabe erdietan;  
beata asko baldin  
bada errietan,  
jendia egongo da  
sarritan dietan.

Zenbat zaleago dan  
kontuak jakiten,  
ainbat da nagiyago  
lanak egiten;  
gauza onikan ez du  
sekulan egiten,  
eta beriarekin  
beti biar du irten.

Iturriari ura  
ainbat itz dariyo,  
arrazoiak diteke  
deitu *itz-jariyo*;  
beatagatik bati  
ardura baliyo,  
igaroko lituzke  
bi purgatoriyo.

Bertso aubek aditzen  
dituan beata,  
asarratzen ez bada  
santa aundi bat da;  
egitean datorren  
urteko *epacta*,  
santa orren izena  
ez dedilla palta.

Mingañian fedia  
osoro berua,  
besteri infernua,  
beretzat zerua;  
zulodun zakua ta  
beaten burua  
dira bata bestia  
bezin segurua.

Beata guziari  
kontribuziyua,  
nigatik egunian  
bein oraziyua;  
gustatzen ez bazaie  
nere aziyua,  
biotzetik eskatzen  
diet barkaziyua.



Bertso auk Azpeitin jaso nituan, apaiz jaun batek eskuz idatzitako kua-  
derno batean; baiña aita nor duten adierazten etzala.

Pedro Migel Urruzuno izango ote zan bereala egin nuan susmoa, aren  
bertsogintzaren usaia artuta.

Ondoren, *Iru ziri* izenarekin Urruzunoren ipui-liburu bat argitaratzera-  
koan (*Auspoa*, 47), beraren illobak, Jose Maria Etxaniz Urruzuno jauna  
zanak idatzi zuan itzaurrea, liburu onen leen orrialdeetan eskeiñi deguna.  
Bertan sail ontako bertsoen batzuk ematen dira, eta norenak diran esan  
ere bai.

Ain zuzen, Azpeitiko apaizaren esku-idatzian bertso-lerro bat falta da:  
2/6; Baiña Urruzunoren illobak badu. Ontatik artuta osatu degu bertso ori.

Ziur aski, aldizkariren batean agertuko ziran bertso auk ere. Baiña  
orain artean ez degu iñon arkitu. Bere lanak toki askotara bialtzen zituan  
don Pedro Migelek, eta orain oso zailla da aiek danak eskuratzea.

**Arantzazuko Andre Mariari abestiak**  
(Aita Arrue adiskidearen eskez egiñak eta berorri opalduak.)

---

*Aloñan zauden izar ederra,  
Arantzazuko Birjiña,  
iñortxok ere etzaitu maite  
Euskalerrriak adiña.*

Begira nola larros eder bat  
dagoan arantz batean,  
zorioneko mendi Aloñak  
dauzkan arkaitzen artean.  
Banatzen duan usai gozora  
datoz bideak betean  
kristau-taldeak onuntz pozikan,  
naigabe emendik jutean.

Artzai gaxoak, arriturikan,  
galde bat egiten dizu:  
«Orren ederra izanik ere  
nola zaude arantz zu?». Geroztik onuntz mundu guztiak  
ospatzen du Arantzazu;  
zure kontura, Ama maitea,  
Euskalerrria ar zazu.

Artzai gaztetxo batek zaitu Zu  
arkaitz artean arkitu,  
eta nork esan artzai gaxoa  
nola dan zuzaz arritu?  
Arkaitz guztiak edertasunez  
nola dituzun argitu,  
Errodrigotxok berri gozoak  
kalera ekarri ditu.

Aloñak daukan edertasuna  
gaur da osoro aundia,  
bada dirudi, argiren argiz,  
dala Taborko mendia;  
bertara pozik, aldapak gora,  
bizkorrik dator jendia,  
uste duela mendi eder au  
dala zeruko bidia.

Agorte aundi eta luzeaz  
lurrak zeudela egarri,  
nekazariak berriz zerura  
begira estu ta larri,  
euri gozatsu ta ugariak  
laister diztezu ekarri,  
erri guztiak gaurtik nai dute  
zure mantupean jarri.

Zorionean zerutik jetxi  
ziñan Aloña mendira,  
geroztikako gure guztion  
atsegiñ danak an dira;  
eziñ aspertuz, Ama maitea,  
gaude orrera begira,  
gure biotzak beti zurekin  
daude ta egongo dira.

*Aranzazu, 1923.*

## Maitatu euskera, bañan itzegiñez

---

Gure errian jaio ta  
euskera gaitzetsi,  
euskaldunan izenik  
ez dezu merezi.

Izkuntzak izan arren  
zazpi edo zortzi,  
euskaldunak bear du  
euskera lenbizi.

Euskalduna naizela  
gogoratutzean,  
atsegiña sortzen zait  
biotz-biotzean.

Euskaldun bat ikusten  
dedan bakoitzean,  
maitasuna sortzen da  
gu bion artean.

*Egan, 1960.*

## Mariari bere bakardadean

---

*Mariak dio: «Semea gabe  
nago umezurtz egiñik,  
begira ote dan atsekabe  
nik dedanaren berdiñik».*

Ama maitea, nai zaitut zure  
bakardadean lagundu,  
zure naigabe neurri gabeak  
al banituzke bigundu;  
baldin lenago luzaro banaiz  
pekatuan lo egondu,  
lengo gaizkiak ondo egiñaz  
nai ditut orain konpondu.

Ar nazazula zure semetzat  
Jesusek dizu agindu,  
zure Semeak gurutzetikan  
aginte ori egin du;  
ai zukanako maitasunean  
berak sutuko banindu,  
eta zeruko aingeruakin  
naitasunean berdindu!

Pekatu egiñ eta anima  
sarri dedala zikindu  
egia da, ta gañera berriz  
zure biotza samindu;  
baña nereak ori egiña  
biziro damu ta min du,  
negar egiñaz nai dizut, Ama,  
atsekabea arindu.

Nola Jesusek bere odola  
nigatik du an ixuri,  
nere anima odol onekin  
dago garbi ta txit zuri;  
bion Ama zu zeran ezker  
arrazoizkoa diruri  
biotz osoaz nai izatea  
Ark neri ainbat nik zuri.

Beti gozoro oroituko naiz  
Jesus onaren izenaz,  
etzaite aztu Ark gurutzetik  
iltzerakoan esanaz;  
biziko gera ni zure seme,  
zu nere Ama izanaz,  
biok batera negar egingo  
degu gugatik il zanaz.

Nere denbora guziko neke,  
atsekabe ta penetan,  
zure ondora etorriko naiz,  
esaten dizut benetan,  
aldendu gabe zure ondotik  
beñere mundu onetan,  
bizituzeko bizi guzian  
zurekin zeru goietan.

Bertso auek *Argia* aldizkarian argitaratu ziran, 1923-IV-22-an, ondotik oar au ematen zalarik:

Au da Urruzuno jaunak *Argia*'rentzat egin zuan azkenengoetako lana. Mariari, berarekin batean zeru-goietan bizi izatea eskatzen dio. Zeruko Ama maiteak entzun dio, ta bere ondora betiko eraman du. Ala izan bedi.

Ill zan 1923-IV-14-an.

# Aurkibidea

---

## *Egillearen berri*

<b>Pedro Migel Urruzuno Salegi (1844-1923)</b> .....	9
Bizitzaren argibideak .....	9
Mendaro .....	10
Eriotza .....	12
<i>Argia</i> astekariak berak, beste toki batean .....	12
<i>Jesusen Biotzaren Deia</i> aldizkariak .....	13
Urruzunoren liburuak .....	14
Toribio Iriondoren bertsoak .....	14
Beste bertso batzuk .....	17
P. M.-ri .....	18
<b>Nere osaba Pedro Migel (J. M. Etxaniz Urruzunok)</b> .....	20
<b>Urruzuno, idazle</b> .....	26
Idazle ugaria .....	26
Umorea .....	28
Ankabikoak .....	30
Euskera .....	32
Bertso-jartzaille .....	35
Eskerrak .....	38

## *Bertso-bilduma*

Jesusen Biotzari: «O Biotz zeruen...» .....	41
Maria txit garbiari .....	43
Mariari eskaerak .....	45
Salbea .....	47
Anton Alper-en kontuak .....	48
Arantzazuko erromeriya .....	50
Ama Birjiña maite sortze oso garbikoari .....	52
Aita Sebastian Mendibururi .....	54
Josepatxoren ametsa .....	58
Kilimongo itur-errekari .....	60
Ama Birjiñaren igoera zerura .....	65
Jesus jaio berriari .....	70
Iru Erregeen adorazioa .....	72
Aldareko sakramentu guziz santuari .....	74
Ama Doloretakoari: «Errukiturik...» .....	75
Aita San Joseren gozuak .....	77
«Jaungoiko-gizona...» .....	79
Mariari .....	80
Neska-mutil zarrak: «Ezurretan guri ta...» .....	81
Neska-mutil zarrak: «Adi dezala Pepak...» .....	84
Josefatxo Jesusekin .....	86
R. I. P. ....	87
Itziarko Ama Birjiñari .....	88
Obispo edo apezpiku jaunari erri txiki batian .....	91
Andre Frantziskaren alabak beren amari egun onak .....	93
Aita Agustin Kardaberaz-i kantaera .....	94
Kontu bat .....	98
Kostarrak 1886-ko Loiolarako erromeriyari .....	99
Artzaiak .....	103
Iru Erregeak; «Erregeak dijoaz...» .....	105



Jesusi: «Ara artzaiak...»	107
Iru Erregeak: «Adoratzera...»	109
Jesusi: «Artzaiakin batera...»	111
Jesusen Biotzari: «Jaun guziz aundia...»	113
Jesusen Biotzari: «O biotz gozoa...»	114
Ama Birjiña Errosariokoari: «Adanen seme...»	115
Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Agur zeruko lore...»	117
Jesus jaio berriari	120
Iru Erregeak «Lurreko erregeak...»	122
Aita San Joseri: «Lagun zaiguzu zuzen...»	124
Abe Maria	126
Ama Doloretakoari: «Zugana nator...»	128
Jesusen Biotzari: «Biotz txit garbia...»	130
Ama Birjiña Errosariokoari: «Koroi eder bat...»	131
Ama Birjiña Kontzeziokari gozoak	133
Jesusen jaiotzan: «Gaur Jesus ikusteko...»	135
Iru Erregeak: «Jesus nun jaio...»	137
Justa Jesus aingerutxoari	139
Aita San Joseri: «Lagun zaiguzu guk bear ainbat...»	141
Ama Doloretakoari: «Ama Maria, badegu ere...»	143
Jesus gurutziltzatuari: «Gurutze ortan...»	146
Aldareko Sakramentu guziz done edo santuari	148
Jesusen Biotzari: «O Biotz maite...»	149
Ama Birjiña Errosarioakoari: «Errosarioa da...»	151
Aita San Frantzisko Asis-koaren Irugarren Ordenan	153
Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Guzi-guzia ederra zera...»	154
Gabon-gaba	156
Obispo jaunari	162
Ama Doloretakoari: «Aitortzen dizut...»	164
Jesus gurutziltzatuari: «Gurutze baten illik...»	165
Erretratua	166
Erretrato berria	171

Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Mantxarrik gabe...»	175
Jesusen jaiotza: «Añ otz dagoelarik...»	177
Andre gaztea eta neska zarra	179
Iru Erregeak: «Izar txit eder bat da...»	187
Mariari Maiatzaren azkenian	188
San Luis Gonzagatarrari	189
Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Goizeko izar eder...»	190
Jesusen jaiotzan... «Goazen al degun lenen...»	191
Akinotar Tomas Santuari	193
Maiatzeko Loreetan Ines eta Errosa	194
Asto polit bat	196
Santiren jakinduria	198
Iru Erregeak Jesusekin izketan: «Adoratzen zaitugu...»	203
Artzaiak Jesusekin izketan	204
Erregeak Jesusekin izketan	205
Arritokiko Ama Birjiñari Zumaian	206
Ama Birjiña Kandelariokoarekin itzalditxo bat	208
Jesus gurutziltzatuari: «Gurutze ortan zaude...»	209
Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Zuri begira...»	210
Belengo estalpean	211
Erregeak Jesusekin: «Zerk ekarri zaituzte...»	212
Gonzagatar Luis Santuari gozoak	213
Ama Birjiña Kontzeziokoarekin itz-alditxo bat	215
Aurtxo Jesusi	216
Ama Doloretakoari: «Gogoratzean...»	218
Jesus gurutziltzatuari: «Nora begiratuko...»	219
Gonzagatar Luis santuari	220
Nuñez-tar Inazio zanari	222
Ama Birjiña Kontzeziokoari: «Eder danen artian...»	223
Artzaiak atez ate eskian	224
Iru Erregeak Jesusekin izketan: «Nundik nora zatozte...»	226
Asuna ta larrosa	227

Bertso berriak: «Kantatutzer a nua...»	230
Apustu motza	233
Astua gaxorik	235
Dantza berriak	238
Biyak arrazoia	239
Jauregiko gaztañak	243
Arduaren bentajak	244
Mozkor-gertaerak	246
Andre mozkorrari: «Zenbait trabaju badu...»	247
Andre mozkorrari: «Nere andrea ona litzake...»	249
Asta Patxikori	250
Larrosari	253
Karteruaren Gabonak	254
Iru gizon galduak	255
Maiñasiri	256
Euskal pestetan	258
Garagartzako erlojeruari	259
Ur zalea	261
Senar-emazte maiteak	262
Lorea	263
Lasturri	264
Lasturrek zer diño?	265
Gibel-andiren kontuak	266
Iñudiari	271
Kanta-paper saltzallea	274
<i>Saka-mantekas</i> -en berriak	276
Mendaron, egi aundi bat	279
Gizontxo baten pena	280
Maiatzeko lorak aizpatxo bi Mariaren aurrean	281
Gabon-jaiak	283
Ordi batek	284
Mariari bere sortze garbian	285

Iru Erregeak Jesusekiñ: «Milla zorion...» .....	286
Zer da beata? .....	288
Arantzazuko Andre Mariari abestiak .....	291
Maitatu euskera, bañan itzegiñez .....	293
Mariari bere bakardadean .....	294

## Auspoaren azken liburuak:

- 281 Antonio Zavala  
*Estropadak bertsoan*
- 282 J.M. Iriondo  
*Segi, Mugartegi*
- 283 R. Iraola  
*Nañarriri begira*
- 284 Ramon Artola  
*Sagardoaren graziya II*
- 285 Leon Albeniz "Iruntxiberri"  
*Nere berriketa eta aitortza*
- 286 Ramos Azkarate  
*Galtzaundi berriz ere (I)*
- 287 Ramos Azkarate  
*Galtzaundi berriz ere (II)*
- 288 Pedro Juan Etxamendy  
*California'ko bertsolari eta musikari*
- 289 Jose Agustin Garziandia  
*Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak*
- 290 Xalbador  
*Odolaren mintzoa*
- 291 Pedro Migel Urruzuno  
*Koroi eder bat*



Pedro Migel Urruzuno Salegi apaiz jauna ipuilari bezela ezagutzen da. Umorez betetako prosa-idazlea, alegia.

Baiña beste alderdi bat ere badu, gaur artean beintzat izkutatuxea egon dana: bertso-jartzaillea. Aalik eta bildumarik osoena eginda, beraren bertsoekin osatu da liburu au.

Beste apaiz jaun asko, bertsoak idazterakoan, beren ikasketa-urteetan ikasitako erdal metrikan oiñarritu izan dira. Urruzuno, ordea, euskal bertso-laritzaren legeen barruan moldatzen ditu bere bertsoak. Ala, apaizetan bertsolariena bera izango degu, dudarik gabe.

*Koroi eder bat itzekin asiera eman zien arek Ama Birjiñari eskeiñitako bertso batzuei. Orixe artu degu guk liburu onen izenburutzat, bertso-bilduma au ala dalakoan euskarerantzat eta Euskal Erriarentzat.*

*Pedro Miguel de Urruzuno*



Auspoa



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-468-X



9 788479 074685